Agirre Maria Dolores, Akesolo Lino, Arrinda Anes, Arostegi Luís, Azurtza Jose Joakin, Barandiaran Gaizka, Berrondo Pedro, Eizmendi Iñaki-Basarri-, Etxeberria J.A., Gaztañaga Jesus, Kerexeta Jaime, Larrakoetxe Bedita, Latiegi Bixente Markaida Jon Mirena, Mokoroa Justo Mari, Olabeaga Iñaki, Olazar Martin, Onaindia Xanti, Oñatibia Jon, Oñatibia Manu, Orbegozo Joxe Agustin, Puxana Pedro, San Sebastian Joxemari, Solozabal Paulin, Urrestarazu Andoni-Umandi-, Yurramendi Felipe, Zatarain Ambrosio, Zubikarai Augustin. Jakakortajarena Txomin, Latiegi Bixente, Zubiri Iñaki, Kortajarena Andoni, Sukia Angel.

EUSKAL SENIK EZ DAIGUN GALDU

Gero ta sarriago asl gara euskal zelalan, ez euskera aldetik, ez bear dan zentzutik ez eta inguruak eskatzen dauan giroari beglra aidetasun txlkienik dauken esaerak zabaltzen.

Ikusiaz begiak lanbrotu eta entzunaz belarrletan min emoten dabenak.

Asko izan dira, oralntsu ertzaln baten il-txartelean agertzen zan esaera batek zer adierazl nai ete ebanka ibili diranak.

Adisklde batek esaten eustan naiago leukela orrelako astakeriak sarriago agertzea, jendea obeto konturatuko lltzakelako euskera jatorretik gaur sartu nal dan euskerara zelako bitarte itsu, zital eta indarkeri menpekoa dagon.

Txarrena da euskal arduradun eta beglrale izan bear lltzakezan erakunde batzuk orrelako nabarmenkeri batek minduta itxl dauzala jaklñarren be, or izten dabela gauza, bertan bera obeto eta lenago aztuko dala-ta.

Zeatz-meatz, besteen artean gauza au da: KISKALGARRI KAPELA, lletetan oiturazko dan erderazko "capllla ardiente" ren kldekotzat edo euskerakotzat agertu zala.

Ez dakit iñor etorri ete leiteken ldazle zarrak esaera orl erabili ebela esaten.

Ez da zarra Kintana eta arek "kaperazekl" agertzen dau bere Euskal Hiztegi modernoan "capilla ardiente" ren esanordetzat.

Azken baten, bata eta bestea esaera orreri erregarri usaiña emon nairik.

Onelakoetan asko izaten dlra itaunka etorten dlranak: zu zeuk zelan esango zenduke ba?

Ni konturatzen naz euskaldunok ez dogula adlerazpen onen zeaztasunik, baiña bal argia berba asko erabilten dala illetetan.

Argi-egile deitzen jakoe illeta-buru joaten dlran emakumeei.

Argltarako, argitako, eskltntzen dan ofrenda.

Gure oituretan lotugarri eta neketsu gertatzen zlan ellezkizun askotako illobletako ("sepulturetako") argizai-ol eta kandelak biztu bearreko egunak.

Argi-egunak deitzen eutsezan sepulturetara joan bearrezko egun orrei. lllen orolmenak bigunduarren, askotan ia eroan eziñlko loturak.

Eta ze alde dago il-barri dan baten gorpua argi artean erakustetik, gero lur azpian dagola ipinten diran bere omenezko argietara?

Batera edo bestera, argi omena.

Eleizak berak ez al dau gogoratzen: Betiko argiak argl begle... Betlko argi zabalean zure argiak argi ditzan... eta abar?

Eta zegaitik deitu ez ll barria dagon gelarl, argi-gela edo argi-etxea?

Guk ez daukagu zetan itzez-ltz jarraltu bear beste izkuntzei, batez be guk oituraz emoten daklgun zentzuz ez ba datoz. Eta argian oiñarrituta argl-gela nal ez ba da be, or dagoz beste ainbat esaera egokl lltzakezanak eta iñor arrituko ez leukenak:

Gorpu-etxea.

Gorpu-gela.

Gorpu-bela.

lletta-gela.

Dolu-etxea.

Agur-gela, eta beste ainbat, kezka eta ardura barik erabili eta onartu leikezakinak:

Baiña gauza bakoitzari berea emonda.

Nik autortzen dot ez nazala izkuntzalarí, idazle izanarren, baiña oraindik ez dot galdu euskal senik, eta ez daidala galdu be Jaunak deitu arte, eta ez daitela iñor ausartu nire gorpua kiskalgarri kapelatik ataraten, argi gelatik betiko argi biderako asmotan baiño.

A. Zubikarai
-1991

BASERRIA TA EUSKERA

Euskaldun gelenok gure oiñarria baserrian degu. Lenengo gizaldian ez ba'da, bldgarrengoan edo Irugarrengoan, aiton-amonetakoren bat baserrian jaio, azi ta ezla da. Orregatik noski, baserrlari diogun begrlune ta maitasuna.

Eta ala izan ezta ere, euskaldunok egiz maltatzeko, baserriak ba-dltu doal berezlak. Gutxlengoa izan dlteke, baserri-lurrak zaltuz, gure begien aurrean eskelntzen dl guten inguru apain, txukun eta atsegiña. Guzti ori, ez da berez sortzen; baserrietan bizi diran giza-emakumeek, golzetlk gabera etengabeko lan eta nekeen ondorioa da

Baserriak urteen junean blzirik zaltu duan gordallurik bikaiñena, euskera da. NI betelñarioa nalzen aldetik, berrogei urte luzetan baserritarreklñ Izandako eguneroko ar-emanetan, ongl asko lkusi det, zenbat eta erdera-kutsu gutxiago izan, zenbat eta erdera gutxiago jaklñ, orduan da euskera aberatsagoa dutela. Norbait tek esan du, baserria euskeraren lkastetxe Nagusia dala eta ala da Aiton-amon askoren izketa entzunaz, askotan ao-zabalik, atseglñez txundituta egona nalz.

Jauregiberri zuberoar andere agurgarrlarl entzun izan nion, euskalduna irakurle balño entzule ohea zala. Euskaldunak entzunaz ikasteko egokitasun ohea gendula esan nal zuan. Ori orrela izanik, gure arbasoek itz egiten zuten euskera bikaiña aoz-ao, gaur arteralño gorde dute baserrietan.

Ni Oyartzun'en jaioa naiz eta bertakoak aditz-joko batzuetan anka-sartze aundi samarrak egin arren, joskeran, aotskeran eta esaldietan, euskera oso aberatsa erabiltzen dute. Amar illabetetan, Azkolti'ko baserrietan lbllli bearra gertatu zitzaidan eta gero berrogei urtetan, Zarautz, Getari, Orlo, Aya, Aizarnazabal eta Ingurukoetan.

Erri bakoitzekoak, bere lzker a ta batez ere bere esaldl bereziak dituala konturatu nintzan. Naklan euskera aberasteko, bide egokla benetan, balña gaur entzundakoa burutlk joan egiten zala eta, entzundako esaldlak jasotzeari ekin nion.

Lan au nere galn antzeko bi elburu nltun: bata, oraintsu esan duten nere euskera aberasteko ta euskera ikasten ari diran euskaldun-berriei laguntza bat eskelntzeko. Euskaldun-berriek itz egiterakoan bezelaxe ldazterakoan, erderatik ltzez-itz itzulita jokatu oi dute. Euskera au beti aula izango da, baiña euskeraz ondo dakitenen esaldiak buruz ikasi ezker a, plxkanaka pixkanaka, berez irtengo litzaizkieke eta orduan, euskera blkain baten jabe izango lirake.

Ala, ekin nion lanari. Esaldi on bat entzundakoan, ala nion nere kiko: Bai esaldi pollta! Gogoan artu bear det! Baiña zer gertatzen zan? Entzundako une berean, erdl-lotsez edo papertxo batean jartzen ez nuanean, gero etxeratutakoan idazten asten nintzanean, beln baiño gelagotan ondo gogoratu ezlñlk, entzun bezain ondo ez nuala jasotzen. Lotsa alde batera utzi, eta entzundako une berean papertxo batean jasotzen asi nltzan. Baserritarrak askotan arrituta gelditzen ziran; bealenzat, egunero erabiltzen zuten esaldia garrantzirik gabekoa zan eta. Ez neretzat!

Egunean-egunean esaldi batzuk jasotzen nituala urteen junean, mordoska aundi baten jabe egin nintzan. Bein, Yon nere anai zanarekin izketan ari nintzala, esaldi-bilduma erakutsi nion; millabat izango nitun. Bere erantzuna auxe izan zan: oso lan ederra egiten ari zera, baiña aspaldiko urteetan lan ortan dabil Aita Justo Mokoroa; berarekin arremanetan jartzea on litzaizuke.

Ala, nere esaldi-bilketan jarraitu nuan nere aldetik eta bein, milla ta zortzireun esaldi paperean txukun jarri ondoren, an joan nintzan Aita Mokoroa'rengana.

ari nintzan lanaren berri eman nion eta nere borondaterik onenarekin, nik jaso-tako esaldi guztiak beraz eskeiñi nizkion, bera egiten ari zan lanaren barruan sar ote zitezken ikusteko, ondo zerizkionak aukeratu ta besteak baztarrean uzteko eskubide osoarekin.

Gain-begiratu bat eman zion eta egindako lana ona zerizkiola ta azterketa sakon bat egin ondoren, aukeraketa egingo zuala esan zidan. Andik puska bate-ra, nik utzitako esaldi-bilduma biurtu zidan, geienak onak inudituz, bere saillean sartu zituala esanaz.

Aita Mokoroa'k larogeita amabost milla esaldi jasoak dituanetz, bere lan bikai-ñaren berri emanez, goraipamen bat egin bearra derizkiot.

Eta orain irakurle, zurekin noa. Zoritxarrez, darabilkigun euskera, oso motela, bizitasun gutxikoa da ta erderaren bultzadak eraginda, gero ta joskera txarragoa ta gero ta esaldi jator gutxiago esaten ditugu. Euskera bizia ta aberatsa gorde nai badegu, esaten eta entzuten ditugun esaldi jator guztiak jasotzen alegindu bear genduke.

Euskera utsean mintzatzen diranekin izketatzen zeran bakoitzean, belarriak tente ta papertxoa ta arkatza eskueran eduki. Eta esaldi jator bat entzundakoan, papertxoan ezarri.

Esaldi bat jatorra dalaren ezaugarrietako bat, erderara itzez-itz itzulpen zuzenik ez izatea da. Adibide bezela, azken aldi ontan, nik jasotako amar esaldi ida-tziko ditut. Bertan konturatuko zera, nork, noiz eta nun esan duanaz gain, zer eta nola esan duan jasotzen dedala

1.- Apari baten ondoren:

Ondo? Ez! Geiegi jan degu; GEREN-GERIAN obeto.

(Eguneroko janariak janez, obeto, alegia)

Zarautz'ko Antuñano'neko atezaiaren

emazteak esana. 84-XII-24'an.

2.- Jateko gogo aundia al du? Ez ba! Jateko EBAKI aundirik ez du.

Zarautz'ko Isasti'ko nagusiak. 85-V-4'an.

3.- Bei au ume-sarria al da? Bai! Urtia ASKO GEIAGO GABE umea egingo du berriz.

Zarautz'ko Argoin-aundi baserriko etxeoandreak. 81-VII-2'an.

4.- Ain urduri egoteko zer du bei onek? JAN-USAYIAN dago ta ez da geldirik egongo.

Getari'ko Mirubi'ko alaba zarrenak. 80-II-21'an.

5.- A zer mutil ederra dagon... Bai! GAZTE-AZIYA ETORRI da.

Zarautz'ko Alkortia'ko alabak. 83-III-5'ean.

6.- Biorria mutil au! -Bai eta geldirik egoten ez ba'da, TXIKITU-GAIZTO EGINGO det.

Errenderi'ko Pitxu'k. 83-III-7'an.

7.- Pattal xamar ikusten zaltut. Jateko gogo aundirik ez, ala? Ez! Jateko aifia MODU bal ta jan ezin.

Zarautz'ko Gaikoetxe'k. 85-II-12'an.

8.- Mutilla ez al da orain arrantzara joaten? Ez! Itsasoak ONDO ARTZEN EZ eta gelditu egin zan.

Getar'ko Abeta-berri'k. 72-VI-19.

9.- Etxeko neskamea ezkondu ondoren: EZKONDU-BITARTE GUZIYAN, gure etxean egon zan. Aya'ko Beoate'ko etxekoandreak. 72-VI-13.

10.- Belak ondo zaitzen ditualako, gaxoaldi gutxi dltuala eta: IÑOLA ALEN gal-tzarl, aurria artu bear zayo.

Zarautz'ko Santarba'k. 72-VI-6'an.

Oñatibia'tar Manu'k
-1988-

ESALDI JATORRAK

- 1.- Eudia GOGOTIK ARI DU!
- 2.- Aspaldi etorri al ziñan? -Oraintxe SARTZEA egin det Ugarte kamioizaleak.
- 3.- DANA EROSITIK jan bearrak, oso garesti jotzen du
- 4.- IÑUNDIK ERE orixe nai zuan.
- 5.- ALA-BEARREZ EDO OBE-BEARREZ egin zuan.
- 6.- Gure etxera etorri, e! -ETORRI GERO, E! -Zarautz'ko neskatx batek.
- 7.- Nik NAI-ORDURAKO etzerate etxeratuko!
- 8.- GORRIAK IKUSI DITU!
- 9.- Zazpi t'erdiak JO TA GERO argitzen du.
- 10.- Sendagai aiek artu ta EGUNDOKO KONPONDUA ARTU ZUAN. Mendaro'ko batek.
- 11.- Itzalera goazen, bestela EGOSIKO GERA-ta! Arantxa'k.
- 12.- Kamamillo asko al dago? -ZALDIKADA bat jasotzeko LAIN bai! Orruaga'ko artzaiak.
- 13.- Aurrak TXARRENEAN JOANAK DIRA beintzat eta... Bengoetxe'ko amonak.
- 14.- TAKIAN-POTIAN mozkor ederrak arrapatzen juaz. (Tarteka) Eibar'ko Bergaretxe' k.
- 15.- Zenbat liburu eramango ditut? BOSTEREN BAT
- 16.- TOKIYAZ-TOKI lau automobil sartuko lirake, baña bi poste daude ta ondo, iru bakarrik sartzen dira. Oyartzun'go Xixtiyo'k.
- 17.- Garai artan BURUZ-AURRERA genbiltzan. Txomin Jakakortexarena'k.
- 18.- Eudia ari aldu? -Ez det uste ARI DUANIK
- 19.- ALA-ERE!
- 20.- Sendagai bat artu ta PIXA ZIRRIYO GAITZAK egin ditu
- 21.- IÑOREN bearrak ez det; lan ontarako, bakarrik NAIKOA NAIZ
- 22.- Nexka-mutillak, ZEIN BAIÑO ZEIN OBEAK dira
- 23.- Yon eta Xabier, biak BERE GUZIZKOAK ditu
- 24.- Ama beti, UME-MAITEA da.
- 25.- GAIZKI-ESAKA zijoazten...
- 26.- LO-ZORROAN ez egon! Esnatu!
- 27.- Oraintze zurekin ASPER-ASPER EGIN DA nago; 8.-ESAN DA ESAN ETA ALPERRIK!
- 28.- LUR-JOTA NAGO!
- 29.- Aren izen onaren aurka IÑUNGOAK ESAN zitun.
- 30.- ETXE-BETEKO zalaparta atera eben. (Augustin'ek).
- 31.- Euskera ikasi nai MUNDU GUZTITIK eta baserrira joan zan. (Basarri'k).
- 32.- Emante duanak ARTZEKO BIDE EGITEN du.
- 33.- Mutil biurri onek NERE ONETIK (NERE ONETATIK) ATERATZEN NAU.
- 34.- Besteen ESANETARA JARTZEA oso zail egiten zait.
- 35.- Pello zintzotu da ta DANA LANARI EMANA dago
- 36.- AZTU-BILDUR ba'zera, papertxo batean idatzi.
- 37.- EZIN-BESTEZ etorri da gurekin.
- 38.- ASARRE-BIZIAN erantzun zion.
- 39.- Pelix droga-barruan sarturik zegon, baña ONEZ ATERA DA.

- Iturri onek ur epela ematen du ta otz eglten duanean, LURRUNEAN EGON oi da Sindlka'ko amonak.
- Etxe berrian A ZER NOLAKO leioak jarri dltuzten...
- Zu, SALTAKA BATEAN JOANGO ZERA...
Burukiko ardi—illea, EGUZKI BE I E—BATEAN jarri bear da.
- LO—BETETAN NENGON eta txiliñak esnatu nau.
- Baserrla erre zanean, GOi—BEAK ELKAR JOTA gelditu ziran...
- Gizon ona zan, baiñan EDAN—GAIZTOKOA.
- Arria bota ta kristala TXIKI—MILLA—APUR eglñ zan. Oyartzun'en.
TXIKI—MILLA—PUSKA Errenderi'n.
- Nolatan ez dldazu deltu?
- Amarrak JO ZAI nengon zuri deitzeko.
- Larrialdi batean: Oralntxe NERE AZKENA!
- Oiean manta au jartzen badegu, KiXKAKI GAIXTO egingo gera
- Arrea, grisa ZIKIN—ESTALKIA DA
- Bidea egiterakoan, lurra ETZANEAN KENDU gendun, baiña EUDIAK EMAN eta lur—jausiak egin zalzkigu.
- Zer zabiltza, Joxe? —Ementxe, EIZA—NAIEAN...
- Basarri idazteari utzia dago. Txomln Garmendia'k.
- Ta? Itzaldia ondo? —Ez ba! UTSAREN ONDORENGOA izan da
- Joxe glzon ona da; GAIZKI—EGIÑAK ONEZ eramaten dakiana da
- Jalno—zaletasunak, beartsuen estutasunak lasatu ta, aberatsen GEIEGINAIA neurrira ekartzen du.
- BEAR—ALDIAN aurkltu ta lapurretari eman zlon.

9—1—25

- ZANA ZAN GUZIA luze—luze etziñik zegon. 90—XI—29 Latiegi'k.
- Emen EGONEAN oztu egiten da Pitxu'k. 71—2—13. (Gomazko bota—altuak eta lanerako jantzi zarrakin zegon gizonezko bat lkusi eta Aya'ko emakume batek esana):
- Zer zabiltza, DENA LAN—ITXURAN JARRITA? 91—2—28.
- AITAREN BATEAN joan zaizkigu urtearen lenengo bi illabeteak. (Joxe Ayerbe'k "Sagardotegiak leen eta orain" El Diario Vasco izparringian. 91—3—8).
- Bizkarreko KRAKATEKO batek EMAN DA, lau egunez DE—ALDETIK IBILLIA NAIZ. 91—3—8.
- KALE—UMEA IZATEKO, baserrl—lanetan oso yayua da. 91—3—18.
- AL DAN GUL 1 IAN euskeraz mintzatu. 91—3—18.
- Orrek ez dik KOLPE ZORRIRIK JOTZEN. Imanol Murua'k. 91—3—22.
- Otz dago, baiña IBILLIAN ez dago otzik.
- lkerketa eglteak BERERIK bal ote du?
- (Aizea ta eudia bat—batean etorrita —EDERRA JARRI DU... Zarautz'ko emakume batek. 91—3—23.

- Gaurko eguna joan da!
- Eta gu, egunarekin batera!
- BERE AREKIN DABIL BETI!
- OKERRIK EZ DALA, biar an izango naiz.
- Zer ordu da?
- Bostak laurden gutxi ORAINTXE JUAK.

Eritetxean JAN NAI EZIK dagon bati:

- PIXKA PIXKA BAT BADA ERE jan ezazu.
- Noiz izango litzake?
- IZATEKOTAN, ARRATSALDETIK BEARKO LUKE IZAN.

Bi neska-mutil zigarro bat txandaka erretzen ari dirala ikusita:

- Ez zerate, noski, porroa erretzean ARIKO?
- Etorriko ote dan esan du...
- Etorriko ote da gero...
- Etorriko al da...
- Ez-ba jakin...
- Larunbatean BIAK ERE agertuko ziñatela uste nuan.
- Etxea LUR TA GUZTI erosi al dezu?
- LUR MUTUR batekin bakarrik.
- Gaur ere EUDIA EGIÑA DA!
- GERO ta drogazale GEYAGO DA.
- Zu etxe ontara joaten al zera?
- Len bai, baiña bein ikaratu nintzan eta ez NAGO BERRIZ JOANIK...

(Maidire-tolestatzen):

- ERDI-ANTZEAN jarri ezazu!
- Milagros'ek deitu, baiña ez dit DEITZEKORIK esan.
- Nere burua bakarrik aurkitzen det.
- ETSI-ETSIAN bizi da.

Bide-ertzean dagon zugaitz zar baten zuloan Jayotza ikusi-ta:

- BAKARREN BATEK jartzen du ba Jayotza ori or!
- IÑORK GUTXIK DU ORREN BERRI.

- Ez naiz lengoa, EL IA GUTXIAGORIK ERE!
- ESKU-UTSIK etzera joango, noski...
- GAIZKI-ESAKA ari dira.
- ASARRE BIZIAK ARTU ZITUAN.

Pastillas Andreu'ren iragarkia irratiz entzundakoan:

- Ez dituk ORAINGOTXEKOAK...

Aspaldi etorri al zifiaten?

- ORAINTXE SARTZEA EGIN DEGU.
- Otz eglten al du?
- Ez! BERO-ANTXA DAGO.
- BEREALAKO BATEAN, an agertu zan.

Askotan esan oi dana:

- Itxoin zazu PIXKA BAT, PIXKA BATEAN esan bearrean.

BAT EDON BATEK egin du-ba au...

BATEN BATZUK egin dute-ba au...

Asmoz aldatu eta etxera etorri bear zuan bati:

- Esayozu, ETORTZEN EZ IBILTZEKO!
- 40 urte besterik EZ ZITUAN, eta II egin da glzarajoa.
- IKUSI BESTERIK EZ DAGO.

Oñatibia'tar Manuk

EUSKERAZKO AKATSAK ZUZENTZEN

- 1.- Emio'n "BIAKRUZISA" egin dute... (EITB, 89'go-III-23'an).
Gurutzbidea, egin dute, kalbarioak egin dituzte...
- 2.- Prozesioak ospatzen dira.. (EITB, 89'go-III-23'an).
Ospatu ez dira ospatzen, egin egiten dituzte prozesioak.
- 3.- Lau mila dolar artuko dute (EITB, 89'go-III-23'an).
Lau milla dolar artuko dituzte.
- 4.....zerbait egiteko asmoa ezertan gelditu da (EITB 89'go-IV-2'an).
Ori ez da euskera! "Ezertan ez dira gelditu... Utsean gelditu dira...
- 5.- Ez da ezagutzen artu duten erabakia (EITB 89'go-IV-2'an).
Arazoa ez da "ezagutzea". jakitea da baizik.
- 6.- Ez da ezagutzen oraingo egoera (EITB 89'go-IV-2'an).
Ez da ezaguna... ez dakigu... ez dakite albistariek...
- 7.- Itsasoan ekaitza dago (EITB 89'go-IV-4'an).
Zer egingo ote luke, baldin ba'lebil? Ez da egoten!!!
Ekaitza sortu da... Ekaitza dabil... Indar artu du ekaitzak...
- 8.- Datorren astean ezagutuko da erabakia (EITB 89'go-IV-15'ean).
Zabalduko da... agertuko da... Jakingo dugu... Jakitera emango dute...
- 9.- || ketan parte materiala artu zuelako (EITB 89'go-IV-19'an).
Nolako "materiala" ote zan ori?
Iltzailleetako bat izan zalako... Ekintzailleetako bat izan zalako ilketan...
- 10.- "Suposatu..." (EITB ortan milla eratarra, beti suposatu diote).
Ez al daukate itz egokiagorik, bearren erara erabiltzeko?
- 11.- "Okintzategia" ageri da Ernani'ko berebil batean.
Okindegia... ogitegia...
- 12.- Zenbat urte du neskatxa orrek? EITB'n Amatiño'k barra-barra.
Zenbat urte ditu.
- 13.- Abstentziorik audiena ezagutu da (EITB 89'go-III-15'ean).
Norbaitek ezagutzen du, lenengo. Gaizki dago, beraz.
Besterik, obe litzake onelatsu: "Ezagutu duten abstentziorik audiena izan da..
Jakín dugunez, orain arteko abstentziorik audiena izan da...
- 14.- Konzierto Sakro bat eskeiñi dute (EITB 89'go-III-15'ean).
Elizako musikaldi bat eratu dute. Eskeiñi bakarrik?

- 1.- Bi buruek itzaldi bana emanez (EITB 89'go-V-1'ean).
Itzaldiak eta mintzaldiak EGIN EGITEN ditugu euskeraz.
- 2.- Laiño txikiak izango dira batez ere ballaratan (EITB, 89'go-V-1'an).
Ballaratan ez-baiña, aranetan, ibarretan, mendarteetan...
- 3.- Erantzun zintzoa eman du... (EITB, 89'go-VII-24'an).
Erantzun zuzena, eta obetu oraindik zuzeneko erantzuna.
- 4.- Dagoaneko ez dute ezer aurkitu (EITB 89go-VII-24'an).
Beti oker darabilte "dagoaneko" itza. Oraindik ez dute...
- 5.- Naiz Paternina-taldeko gizonak lanean egon... (EITB 89'go-VII-25'ean).

Txirrlndulari-taldeaz ari zan edo mintzo zan, beraz... egon ez ziran egongo, eta lanean gutxlagu. Taldeko glzonak gogor ari ziran...

6.- Taldeak irestea lortu ditu (EITB 89'go-VII-25'ean).

Zer esan nai ote zuten? Taldean irestea lortu dute? Aiek irestea lortu du taldeak?

7.- Egazkiñak 300 lagun zeraman (EITB 89-VII-28'an).

Irureun lagun zeramatzan.

8.- Artu basoa ta zerbitzatu. (EITB 89'90...).

Artu basoa ta serbi itzazu,...zerbl ezaiezu...

9.- Latiñezko irakaslea (EITB).

Ezur-mamlzko irakasle izango zan, noski, ez latiñezko.

Latiñeko irakasle... latin-izkuntzako irakasle...

10.- Batzarra jasoko dugu... Batzarra altxako dugu... (Billasante'k).

Batzarra amaitu, bukatu... Batzarraldia bukatu...

Gaztañaga'tar Jesus

1989

AKATSAK ETA ERDERAKADAK

- 1.- %i naiz INFRAKTOREA..." (EITB, 1989-XI-26'an). Zer ote da ori?
- 2.- "Sufragio unibertsala... Autaketa egin daíteke sufragio unibertsalez". (EITB, 1989-XI-27'an).
- 3.- "Ezkerreko írente anplíoiari eman diote baítezkoa". (EITB, 1989-XI-27'an).
- 4.- "Tromozio publiko ta sustatze ofizialeko gauza" (EITB, 1989-XI-27'an). "Sustatze" orrekin, sustotarako aiña ere ez dugu izango.
- 5.- "Egongo zara geldi?" (EITB, 1989-XII-1'ean). Euskeraz pentsatzen dakíanak, onela esango luke: "Geldi egongo al zera?"
- 6.- "Telebista jarriko dut?" (EITB, 1989-XII-1'ean). Non jarri bear ote zuten, bada? Obeki zegokean onela: "Ikustirratia piztuko al dut?"
- 7.- "Wetro bat eta 65 zentimetro neurtzen du". (EITB, 1989-XII-1 'ean). Nork neurtzen du, eta zer neurtzen du? Obeki zitekean onela: "Wetro bat eta 65 zentimetro ditu luzeran".
- 8.- "Sentitzen dut gertatu zaizunagatik". (EITB, 1989-XII-10'ean).
- 9.- "Bederatzi komisio lanean daude". (EITB, 1990-V-17'an). Aspertuko dira, orratik!, lanean "dauden" oiek lana egingo duten zai daudenak.
- 10.- "Txirindulariak indarrean dagoela PROBATU zuen". (EITB, 1990-VI13'an). TROBATU' ondoren, zer? Goxoa ote zegoan?
- 11.- "Lanean egon zen bitartean, Loiola'n zen kongresoa". (EITB, 1990-VI13'an).
- 12.- "Enirentamentuak egon dira ikasle ta polizien artean". (EITB, 1990-VI13'an). Talde bien artean EGOTTEKO, zer ote dira ENFRENTAMENTU oiek?
- 13.- "Euri apurren bat egingo du". (EITB, 1990-IX-4'an). Ogiak eta antzekoek izaten dituzte APURRAK, baiña... euriak APURRIK izaten zuanik, sekulan ez dugu entzun.
- 14.- "Biar odei gutxi EGONGO da". (EITB, 1990-IX-5'ean).
- 15.- "Zortzi milla errekorritu ditu belauntziák". (EITB, 1990-IX-6'an).
- 16.- "Egokitze ekonomikoa egongo dela". (EITB, 1990-IX-12'an). Ekonomi-egokikea". esan ba'lute, gaitz-erdi! Ala ere, non EGONGO ote litzake?
- 17.- "Giro tensoa Unibersitatean". (EITB, 1990-IX-12'an). Ori bai dala, "eusurera ablatzeko manerial"
- 18.- "Tensoa ekartzea... Penso bezala ekartzea. (EITB, 1990-IX-12'an).
- 19.- "Eskola Bertsogintzarako ere laguntza ere eskatzen du...". "Eskola Kantagintzarako ere laguntza eskaken du..." (Eusko Jaurlaritza, HEZKUNTZA SAILA dalakoaren orrietatik artuak, oraintsu). Alderantziz bear lukete, noski: Kantagintza Eskolarako, Bertsogintza eskolarako... Eta orri beroietan onako beste arribitxi au:
- 20.- "Beraietako zuzendarien baimen ESPRESUA lortu bear da".
- 21.- "Gizona etorri BEAR DA... Emaztea joan BEAR DA..." Aditza Intransitibo" danean, joan, etorri, erori, ibilli... BEAR DA, erabilli bear omen. Eta au Irakaskintzako liburu batetik artua da.

Gaztañaga'tar Jesus'ek
1990

Akats geiago

Eskerrilkasko zure ikustla. (Gracias por su visita).
(Gasteiz'en Postas kaleko Bereblitoklaren sarreran).
Edesti Erdirako Udal Sailla. (Departamento del Centro Histórico).
(Gasteiz'en, Postas kalean. Plaza—Berriruntzko sarreran).
Unibertsitate Kanpua. (Campus Universitario).
(Filosofi eta Elertu Ikastetxearen alboan).
Laudioko Abertzaleen Egundialdiak lenengo. (1.ª Jornadas nacionalistas de Llodio).
Santa Maria benetako eliza. (Iglesia de Santa Maria la Real. Zarautz).
Eguraldak arrazoia ematen digu. (El tiempo nos da la razón).
(I kusirratian, Zanussi-ren iragarkia).

1.—"Miterrand'ek arrera EMAN DIE" (ETB, XI—19) = ARRERA EGIN, esaten du Euskalerrri euskaldunak.

2.—"ARAZO FAMILIARRAK dituztenak... GIRO FAMILIARREAN biltzea du elburu..." (ETB, XI—19). Oraindik ere FAMILI—GIROAN esatea, or nonbait!

3.—"PREBISIOAK auxe erakusten digu...". (ETB, XI—19).

4.—"Argi GERATU BEAR DA"... (ETB, XII—27). Gutxienez ere... BEAR DU.

5.—"Ori SUERTATZEN DENEAN, egingo dute billera". (ETB, XII—27).

6.—"INKONPATIBILITATEAREN KOMISIOA... INKONPATIBILITATEAREN LEGEA". (ETB, XII—27). Orrelakoak esateko, ez dago euskaldun izan bearrik.

7.—"APENDIZITIS galxotasuna sendaturik, IRU EGUNETAN ETXEAN DA". Eta... beste egunetan zer egin bear du, edo non egon bear du? "IRU EGUN BARRU... IRU EGUN BAINO GEIAGORIK GABE..."

8.—"JUANARI GURE ANAI..." Gaztelera zko esaldi onen Itzulpena da: Juan nuestro hermano..." "Juan gure analari" izan bear luke. (Naparroa'ko ANORBE errlan orma—arri batean idatzirik dago).

9.—"ESANGO ZAIT, ez arrazoirik gabe, gerrak sartu duela ezinegona". (Andu Lertxundi, D.V.). Onela bear: esango DIDATE... zerbait.

10.—"Diruak herri—ekintzetarako DESTINATZEA PROPOSATU zlen herritarrel... (Rufino Iraola). D.V. Euskeraz obeto badaki, baiña..."

11....."eta bestetik, euskalkiren baten ezagupenak sakondu nahi izan DUENARI aukerak eskalntzea". (Eusko Jaurlarltza, Euskararen - SUSTAPENERAKO Zuzendaritza. Zabalkunderako eskutitza, 91—1—14). Ezagupenak baldin badira, DITUENARI izan bear du.

12.—Bestetik, SUSTATU ta SUSTAPENA baiño itz egokiagorik erabiltzen ez ba'dute, "sustoz" izutuko ta "sustatuko" dltuzte euskaldunak. Eusko Jaurlarltza'ko euskera—arduradunek euskera ohea ez ba'darabilkite...

13.—"Aren egiaGANAKO maitasunez zabaldu egin duzu zure Eliza". (Orduen "Liturgia" liburuan, Epailaren 23'ko otoltza). Nik dakidanez, egia ez da burua ta anakak dituan norbait, beraz... egiaREKIKO bear du.

14.—"Zuzen itzazu gaur gure urratsak zure gogoaren bideTIK". (Ordueñ "Liturgia" liburuan, 1'go Larunbateko eskarlak). Euskalerrri osorako ta bereziki Blz-kai—Gipuzkoa aldeetarako, ulergarriago litzake or adltza bere osoan jarrita: zuzen-DU itzazu, gramatikakeriak alde batera utzirik.

Askoz okerrago dago oraindik, "bideTIK zuzentzea". Zer esan nai du? Izan ere; NONDIK zaindu? BideTIK zuzendu ditzala. Beraz, auxe esan nai du orrela idatzi-ta: "Zure gogoaren bideTIK (begira zaudelarik?), (eta bestela, zure bideTIK kanr pora?) zuzendu itzazu gure urratsak". Eta ori esan nai ez dutenez, onela bear zukean: "Zuzendu itzazu zure gogoaren bideAN".

15.- "Akuilu lanari esker lortu du beka, nahiz Crouch-ek ez duen gehiegi sinesten Kemp-en dohain intelektualketan". (Anjel Lertxundi, ZABALIK 1991'ko-04-3'koa). "Dohain intelektualetan" euskeraz ere esan dezakegu, eta bestetik, nere ustez, "zerbait sinisten dugu, zerbait sinisten diogu norbaiti". Geienera ere, "norbaitengan sinistu" esango genuke.

16.- "Bera baino aurrekoek sortutakoa jasotzen dakiena, baina sormenik era-kutsiko ez duen adolozentea". (Anjel Lertxundi, ZABALIK orrietan, 1991'ko-043'koa). "Bera baino aurrekoek" ez da euskera. Izatekotan ere "BERE AURREKOEK sortutakoa" eta bestela "BERA BAIÑO leenagokoek sortutakoa" izango litzake egokien. Lertxundi'k badaki euskeraz obeki idazten, agerpen bi aukerak ez bai-dira zuzeneko euskera jatorraren eredu.

17.- "Hainbat bertso diferente egin da, harrezkeroztik, antzerki-lan honena, eta pelikulak ere bat baino gehiago dira". (Felix Ibargutxi, ZABALIK 1991'ko-043'an). Bai biurri dagoala esaldi ori, eta gazteleraz pentsatuta idatzia, nere ustez.

18.- "Existitu zuen, bai. 1619'n jaio zen Bergerac-eko Cyrano, Parisen, eta bertan hil 1655an". (Felix Ibargutxi, ZABALIK 1991'ko-04-3'koa). Ibargutxi'k ere badaki obeki. Euskeraz ari geralarik, ain bearrezkoa ote da EXISTITU ZUEN ori erabiltzea?

19.- "Aurtengo neguarenak egin ditu". (Andoni Aizpuru, ZABALIK orrietan, 1991'ko-04-3'koa). %eguarenak egin DU" entzun izan dut beti. Arritu egin nau, eta ez gutxi, "egin DITU" idatzirik ikusteak.

20.- "Fondoko eskitik alpinora dagoen aldea... Trabesiako eskia beste bien konbinaketa besterik ez denez, alpinoaren eta fondokoaren arteko desberdintza aztertuko ditugu lehenik". (Andoni Aizpuru, ZABALIK 1991'ko-04-3'koa). Ez al legoke euskal-kutsu geiago ematerik? Bai noski.

21.- "Datorren igandean, 12,30etan, Azpeitiko zezen-plazan egingo den korrika-saioan omenaldi egingo zaie aspaldiko bi korrikalariri". (Felix Ibargutxi, ZABALIK 1991'ko-04-3'koa). "EGINGO DEN eta EGINGO ZAIE" bata bestearen ondoren ain egoki ez gertatzeaz gainera, egin, ZERBAIT EGITEN DUGU. Orregatik, egokiago leudeke esaldi oiek beste era ontara: IZANGO DEN korrika-saioan" edo "EGINGO DUTEN". eta "omenaldia EGINGO DIETE".

22.- "Gure bezeroei jakin erazten diegu EZEN gure SISTEMA INFORMATIKOEN behin-behineko bateratzea ta kutxa sukursalen sare bakarraren eraketa direla eta (200 sukursal gera) moldatze eta egokitzapen-lan bereziak jartzen ari garela" (KUTXA, G.K.). Gaztelerazko, "les advertimos QUE..." ori euskeraz esateko, EZEN erabiltzea, erderakada makurra da. Osorik artuta, zein euskaldunek ulertuko du, gazteleraz ongi ez ba'daki? Bestetik, "direla eta" ori orrela ez da ez ulergarri ta ez euskera. Onela askoz garbiago da: "direla-eta" gutxienez eta are ulergarriago "dirala-ta" idaztea.

Azkenik, gutxienez ere 1NFORMATIKA-SISTEMEN eraketa" idatzi ezkeror, baluke euskal-joskerarik edo kutsurik. Bestela ez.

23..... "gustatuko litzauguke baldintza berrietan zu harpidedun GISA berriz ere gure artean izatea". (JAKIN aldizkarian arpidetzeko deia). Ez nuke "ARPIDEDUN GISA" sartu nai arpidunen artean: beste edonor bezala baizik, bete-betean arpidedun izanez.

24.— "Atzerriko AKTUALITATE KULTURALAREN INPORTATZAILEA" izango omen da JAKIN aldizkari BERRIA. (JAKIN, arpldetza—orrlltik artua) JAKIN'ek dakarren euskera GISA ortako ba'da, geiegi zalt INPORTA.

Gaztañaga'tar Jesus'ek
-1991

1.—"BADA MEDIKOA artu du kirolariak" (ETB, 91—II—21'ean).

2.—"TRATEMENDU MEDIKOA eman bear dlete umeei" (ETB, 91—1114'an).

3.— "DEABRUAREN POSESIOA... GAISOTASUN MEDIKOAK ZIRELA GERTAERAK". (L I B, 91—IV—29'an) Sendagille esateko orde, "MEDIKU" erabilteza, gaitz—erdi da, baiña sendagilleak burutzen duan eklntza adieraztekotan ere, gaztelerazko "medico" izenlaguna erabiltzeza, erderakada makurra da. Eta garala da, noski euskal—senaz landuriko zerbait erabiltzen asteko.

4.—"PARTE MEDIKOAREN ARAUERA, EZ DU ALDAKETARIK IZAN". (L I B, 91—VI—1'ean).

5.—"BI LAGUNTZAILE SOZIAL joango dira... LAGUNTZAILE SOZIALAK sarritan etortzen dira" (ETB, 91—III—4'an).

6.—"Kirolariaren PALMARESA ez da ona..." (ETB, 91—III—4'an).

7.—ERAKUNDEEN ARTEKO INFORMAZIOA EZ DA EXISTITU" (ETB, 91—III—26'an).

8.—"EGOERA METEOROLOJIKOAK BERDINTSU JARRAITUKO DU" (ETB, 91—III—26'an).

9.—"RATXA ONARI EUTSI DIO ERREALAK" (ETB, 91—IV—24'an).

10.— "AJURIA—ENE—KO JAUREGIAN IZANGO DA BILKURA" (ETB, 91—IV—29'an). Jauregi ori nongoa dan adieraztekoan, Gazteiz'koa dala esan bear, baiña ez "Ajuria—Enea" Koa. Izena bal—da ori, jauregiaren izena, eta ez nongoa danaren adierazpena. "Ajurla—Enea" jauregian izango da bilkura...

11.—"DEABRUA ERREALA ZELA ESAN ZUEN" (ETB, 91—III—26'an). Gaztele-raz pentsatu ta bururik nekatu gabe, bere ortan esatea besterik ez da. Orixe bai dala erreala ballo ez duan euskera.

12.—"ERANTZUNA BEAR DUT 48 ORDUTAN" (ETB, 91—V—1'ean). Ez du txantxetako lana eskatzen! Izan ere, 48 erantzun eskatzea da ori: ordu bakoltzean erantzuna ematen jardutea alegla. "Erantzuna, 48 ordu baiño leen bear dut... 48 ordu barru bear dut..."

13.—"OGEI TA ZAZPI ORDUTAKO EBAKUNTZAREN ONDOREN..." (ETB, 91—V—20'an).

14.—"ONDAMENDI NATURALEKIN JARRAITUZ... KALTE MATERIAL TXIKI BATZUK EGIN DITU... KALTE MATERIAL UGARI SORTU DUTE..." (ETB, 91—V—4'an).

15.— "PREMIA ZUELA OPERATZEA ESAN ZION DOTOREAK" (ETB, 91—V—20'an). Ez itsusiak; ba'da ez ba'da ere, "dotoreak"...

16.— "ISTRIPU BAT ZEGOELA TA JOATEKO" (ETB, 91—V—20'an). Nola EGOTEN ote dira istripuak eta ez—bearrak, zutik ala etzanda?

17.— "KONTZIENTZIA BERRISKURATZEN ASI ZEN" (ETB, 91—V20'an). Eskuetan artzeko zerbalt ote da "kontzientzia"? Ez al zan egoklago, "Kordea etortzen asi... Konortea etortzen asi zltzalon... Ezaguera bazetorkion..." edo antzekoren bat?

- 18.- ERREBELDEK UTIMATUMA EMAN DIOTE GOBERNUARI" (ETB, 91-V-27'an).
- 19.- "GIPIZKOAN OBRAK DAUDE AINBAT ERREPIDETAN" (ETB, 91-V-27'an). Nola EGOTEN ote dira obrak?
- 20.- TUNTZIOTAN DAGOEN MINISTROAK ESAN DU" (ETB 91-VI'ean). Ez zigun esan, NON eta NOLAKO FUNTZIOTAN zegoan alako jaun ura...
- 21.- "BAT EGIN GAITZALA GEHIEN SUFRITZEN ETA GURE BEHAR HANDIAGOAN DAUDENEKIN" (KARITAS, Gotzai-idazkia 91-V15). Gaztelerazko LA MAYOR necesidad". ez da AUNDIAGO. "bearrik AUNDIENA". da baizik.
- 22.- "aren EGIAGANAKO maitasunaz, zabaldu egin duzu zure Eliza" (Orduen Liturgia Eliz-liburuan, Epailaren 23'ko otoitzean). EgiAREKIKO maitasunaz, bear du, ez bai- da NORBAIT, -GANA eramateko.
- 23.- "ZUZEN itzazu gaur gure urratsak zure gogoaren. BIDEK" (Onduen Liturgia, eliz-liburua, 1 'go asteko Larunbateko eskariak). Askoz garbiago ta ulergarriago legoke onela: "Zuzendu itzazu... gogoaren BIDEAN". Bestela, berriz, "- BIDEK" izatekotan, onela bear du: "okerreko BIDEK ZUZENDU zure gogoaren bidera".
- 24.- "SUMENDIA 20 USTEZ LO IZAN ONDOREN"... (ETB, 91-VI10'ean).
aldiz oker erabili izan dute EGON aditza, eta juxtu juxtu EGON esan bear zutenean, orduantxe ez. Esaldi ortantxe bear zuan LO EGON.
- 25.- "Bada orduan zenbait hitzen EUSKAL NORTASUNA DEFENDATU zuen bezala (Euskaltzaindia'k). 91-IV-26'an artutako erabakian dago). Itzek ez dute NORTASUNIK, nere ustez. Ez al zan obe, JATORTASUNA, naiz EUSKALTASUNA idaztea? bestetik DEFENDATU baiño itz egokiagorik ez al lezake erabili Euskaltzaindia'k? "Defendatu" itzak ere EUSKAL-NORTASUNA ote du bere bamean?
- 26.- "Ez da beharrezko lehengo agiri hartan bezala guk ere hemen zerranda luzea ESKAIN DEZAGUN GURE USTEZ EUSKAL HITZAK EZ DIRENENA" (Euskaltzaindia'ren agiri bereko erderakada). Zer ez da bearrezkoa? Zerranda luzea guk ESKEINTZEA, edo guk ESKEINI DEZAGULA.
- Zertarako aipatu dituzte erdal-aitak? Guk zerranda luzea EGIN DEZAGUN. Gauza biak oso ez-berdiñak dira, gaur geiegi naasten dituzten arren: Euskaltzaindia'ren agirietan ere orrela dagoan arren, erderakada galanta besterik ez da ori: %o es necesario que OFREZCAMOS" eta ori bere ortan euskeratuta: "QUE OFREZCAMOS" = EZKAIN DEZAGUN". Noiz eta nola erabil dezakegun ikusi bear, ordeal.
- 27.- "Badakigu batzuk ezinbestean ERABILTZEN DIRELA" (Euskaltzaindia'ren agiri berean). Gaztelerazko "QUE SE EMPLEAN = ERABILTZEN DIRELA" eta lasai geldituko ziran, euskera eredugarria eskeintzen digutelakoan. Baiña ERABILLI... NORBAITEK ZERBAIT erabiltzen DU" eta or ez dago besterik euskeraz, erderakadak baizik.
- 28.- "Euskaltzaindiak bada hitz hauek eta hauen antzekoak diren beste asko ahalik gutxiena ERABIL DITZATEN ESKATZEN DIE... IDAZLEEI, eta horien ordez JO DEZATEN betiko hitz zaharretara". (Euskaltzaindia'ren agiri berekoa).
- Zer eskatzen die? Aalik gutxien ERABIL DITZATELA, eta JO DEZATELA itz zaarretara"; edo gutxien ERABILTZEA, eta JOTZEA," eskatzen dizkit oso besterik dira "ERABIL DITZATEN" ETA "JO DEZATEN" oiek, adibidez Zertarako adierazten die araua? Erdal-itzak aalik gutxien ERABIL DITZATEN, eta JO DEZATEN itz zaarretara". adierazten die arau.

Gaztañaga'tar Jesus
1991

1.- Izparringi edo egunkarietako illeta-albiste edo eriotz-iragarkiak ez dira akats gutxiren arrobi izaten, tamalez. Esate baterako:

"Abuztuaren 19 egunean il zan... 21 egunean il zan..."

Zorioneko "abuztua" bere ortan utzita, "Abuztuaren 19'an... 21'ean... il zan" eta bestela "Abuztuaren 19'gn... egunean il zan".

2.- "Zure lagunak ez zaitugu AHASTUKO" dago egun eta toki berean. Egoklago zitekean onela: "Zure lagunok ez zaitugu aaztuko".

3.- "Idako baten illeta-albiste zabaltzekoan, bizibidez edo lanbldez zer zan adierazi nairik, egunkarian "ARAGIJALE" ikusi dutenak badira. Baiña zer adierazteko? Esan gabe, edo gaztelera-zkoan zegoana ikusi gabe, nola asmatu, "Carnicero" adierazi nai zutela? Jakiña ez da berdin. ARAKINA da, noski, jarri bear zutena.

4.- "Aste-buruetan trafikoa handia DAGO" (EI B, 1991-VII-13'an). Gutxienaz ere joan-etorri aundia DABIL esan ba'lute, gaitz-erdi zltekean.

5.- "Erritomo ona agertu du ldi-pareak". (ETB, 91-VII-29'an).

6.- Asi dira PREMIAZKO blllerak eglten... PREMIAZKO Batzordea lzendatu dute... PREMIAZKO blllera asko dute... Parls en (ETB, 91-VII-119'an eta 21'ean). Baiña... zer adierazteko darabilte "Premiazko" itz ori? Gaztelera-zko "urgente" itza dute buruan, eta orren orde, "premlazko" itza darabilte euskeraz gauza gutzietarako, oker eta zuzen.

7.- "Txosten konparatibo bat bldall dle Lurraldeak". (ETB, 91-VIII-21'ean).

8.- "Berriro martan jartzea espero da". (ETB, 91-VIII-21'ean).

9.- Trenak, lan-uzteaz geldituz zeudela-ta: "Serbltzua autobusez betetzen dute" (E I B, 91-VIII-21'ean).

10.- "Ez dut uste asko luzatuko naizenlk" (ETB, 91-VIII-28'an). Garbl dago, noski, itzultzalileak buruan zeukan gaztelera: "No creo que me alargue mucho".

11.- Gobernari bati alegia, "Konfidantza kentzea erabaki du Batzar gorenak" (ETB, 91-VIII-28'an).

12.- "Ez duela ultimatum bat bezala artzen esan du" (ETB, 91-VIII-28'an).

13.- "Millesker, gurekin izateagatik". (ETB, 91-VIII-28'an). gurekin egon, izan... zeralako... Etorri zeralako.

14.- "Gaur zerbait irakatsi dlguzu: jende ona egon dagoela" (ETB, 91-VII-129'an). Zer esan zuten? Jende ona, egonean egoten dala ezer eglngabe? Ori adierazten du, "egon dagoela" esateak. Beste era ontara esan bear zuan: "Jende ona egon Badagoala".

15.- "Gaur izan da urumea'ren jatsiera" (ETB, 91-VI-23'an). Urumea lbalak leengo toklan jarraitzen du, iñora jatsi gabe, nlk dakldanez. Besterlk da, urak jais-tea, eta txalupak ere Urumea ibaian jaistea.

16.- Txirrlndulariak jo ta ke laisterka doazela, baiña elmuga urrutltxo daukate-la adierazteko, ona emen ateraldi bat: "Oraindlk laixterketa asko falta da" (ETB, 91-VII-11-11'an).

17.- "Pendlente gelditu ziren ainbat arazo martxa normalean jartzen ari dira" (ETB, 91-IX-10).

18.- "Irregularitasunak garrantzi txklkoak dira"... "Puntu komuna da"... (E I B, 91-IX-12).

19.- "Oizko bisitak jaso ditu"... "Iru sail-buruen zesea erabaki du". (ETB, 91 IX-13'an). Nora JASO ote dltu? Bestetik, ZESEA oso polita da!?

20.- "Amedo'ren aurkako sententzia eman dute" (ETB, 91-IX-21'ean).

21.- "Ospe andiz egin dute akto akademikoa" (ETB, 1991-X-3'an).

22.- "Orio'ko klubak, kanterako klubak da" (ETB, 1991-X-6'an).

23.- "Arraza autoktonoko ganaduak saritzeko dirua da". "Eun da amairu abere lapurtu dira" (ETB, 91-X-7'an). ERORI DIRA, bai, LAPURTU, norbaitek lapurtuko zituan.

24.- 'BAGOENETOKOZ' jakiñaren GAINEAN zaude agian, UZEIk egoitzAZ ALDATU EGIN DUELA". Okerrago idazterik, edo ERDERAZAGO idazterik beintzat, bai ote legoke?

a) Aoz esaten dugun arren, "jakiñaren GAINEAN" baiño egokiago legoke, "- JAKINEAN ZAUDE".

b) 'DAGOENETOKOZ' esaldi ortan zearo oker dago, ONEZKERO bear baidu.

d) "EGOITZAZ ALDATU EGIN DUELA". ez da euskera, onako gaztelera onetxen berriztatzea edo "kalkoa" baizik: "Que ha mudado de domicilio". Izan ere, zer aldatu du UZEI'k egoitzaz? Ezer ez, noski. Bera "aldatu da egoitzaz Eta bes-tela, "UZEI'k bere lantokia aldu du egoitzaz

25.- "Kopatxo BAT hartuko dugu elkarrekin". Nere iritziz, KOPATXO BAT oso gutxi da elkarrekin artu aal izateko. Ori ere erderakada osoa da, gaztelaren aldakia: "Tomaremos UNA copa". Nola bear zukean? "Kopatxo BANA artuko ditugu elkarrekin". Au da euskera.

26.- "ENFRIENDAMENDU gogorretan murgildua dabil Yugoslavia" ... Mai PARALELO bat eratzea... Maia bil DADIN, eskatu dute. (ETB, 91-XI4'an). Agian, MAAINA esango zuten... '51 DADIN, etorri gera... Bil DADIN, bideak egin ditu, bai; baiña "BIL DADILLA eskatu dute". bear du.

27.- "Yugoslavia'n ENFRENTAMENTUAK ez dira amaitu... AKORDIOA ez DA ERRESPETATZEN". "Ez da" ren orde, EZ DUTE, bear zukean.

"Ez da kalte PERSONALIK izan istripuaren ondorioz". (ETB, 91-XI-6'an).

28.- "Aurra ESISTITUKO ez ba'litz bezala jokatzeara" ... (ETB, 91 -XI-1 6'an).

"Gurasoak ez dira arazo au duten KONSZIENTEAK". (ETB, 91-XI16'an).

29.- "Armada federalaren mende erori da" ... Emakume ta aurren ebakuazioa asiko da... Oraindik enírendamentuak daude..."

"Eskatera erretiratzea erabaki du". (ETB, 91-XI-18).

30.- "Egoera politikoaren diagnostiko zeatza egin nai du". "Gerraren krudeltasuna adierazten dute". (ETB, 91-XI-21'ean).

31.- "Biztimak sortzen jarraitzen du ETA'k eta mutilatuak egiten".

"Negozíaketa zuzenak asiko dira".

1turri diplomatikoez adierazi dute". (ETB, 91-XI-23'an).

32.- "Iñolako iskanbillarik gabe disolbatu egin dira manifestariak".

"Droga izan daiteke ilketa orren mobilla". (EIB, 91-XI-28'an).

33.- "Au izango da billeraren oinarri filosofikoa".

"Errusia errecurso ekonomikorik gabe gera daiteke". (ETB, 91-XI29'an).

**Gaztañaga'tar Jesus'ek
1991**

ERDERA GEIAGO

Unibertsuaren Kharakter akusativuaren altzinean, haren interpretakuntzarako pentsamendu eta praktikak sistema koherente eta gothorraren formakuntze.

	Aspe Gentea
Gure telesallak osotuko duan ginda.	LIB 1
Extraterrestreak inbaditu dute gure platoa.	ETB 1
Lutxa gogorra Udalaren okerraren kontra Gasteizko Adiano Viren kalean.	
Moneta merkatuko aktiboetako inbertsio Fonda.	
(Fondo de inversion en activos de mercado monetario).	
Errektorearen dimisioa.	Eguñkaria
Amedo pollziak gaur deklaratu du Brouard aferaren inguruan.	Egunkaria.
Kotxearen kredituan Interesetan.	
	Euskadiko Kutxa. Egunkaria.
Euskal preso, errefuxlatu eta deportatuak.	
	Egunkaria.
Ganbio Buletin.	(Boletin de Camblos)
Dokumental kreditu.	(Cr dlto documentario)
Korbana aktibo.	(Dividendo activo)
Data finakora.	(A fecha fija).
Bankari Balantzea.	(Balance bancario)
Moltsa Buletin.	(Boletin de Bolsa)
Gastuen eraketaz.	(Con gastos)
Bankuko Komenio Kolektiboa	(Convenio Colectivo de la Banca)
Kupola kobrura.	(Cupin al cobro)
Grazia eguna.	(Dias de gracia)
Balantze bat faltseatu.	(Falsear un balance)
Interes konposatua.	(Interes compuesto)
Luburu bat dlbertigarri eta fantasiatsua.	Alejandro Ferrelra
Influentzien trafikoa.	(Trafico de Influencias)
Idazburuan adierazitako eskuman organuko Idazkarlak.	
(El/la Secretario/a del Organo jurisdiccional expresado en el encabezamiento).	
Hizkuntza konsentsua pleza dellkatua da.	
Manifestarien biolentzia Poliziaren baiño justoagoa da.	
Kurtsilloak, pintura, dibujoa, zeramika, artesanía, fotografia, yoya, dantza, gitarra elektrikoa eta gitarra bajoa dira.	
	(Nontzebarri)
Oin fumeu ez, edan berez, hembrakez berez.	
	(Nontzebarri)
Karreterak kamioneruen plketeak blokeatuta.	
Eta Jainkoak jakin, zenbat, zorltzarrez ezin batu-ala)	

J. Gaztañaga eta "Taldeak"

1992

EUSKERA BATUAREN BILLA

(Emani'n 1970-n emandako itzaldia)

Ernani'ko euskaldun eta euskalzale jatorrak: agur, agur t'erdi.

Aspaldiko euskal-agur jakin onekin azaltzen naiz zuen aurrera nere gaurko jardun oni asiera ematerakoan. Eta gaiari ekin baiño leen, aitopen gar,bia egin bear dizuet: alegía, zeuok, Emaniko semeok, zeuon senari zintzo ta leial eusten diozute. Zeuon senari eta leenari. Garbi esateko. zeuon euskalduntasunari. Erririk gutxi du Euskalerrriak Zuen erriak aña iangille erakutsi ditzakenik euskal-literaturaren alorrean. Nolako langilleak, gero! Kardaberaz, Iturriaga eta Gregorio Arrue bezelako idazlerik ez da noiznai ez non-nai azaldu Euskalerrrian joandako gizaldietan. Aien senari eutsi nai diozute zeuok, noski; aien en!borreko ezpal izan nai dezute. Egunotan antolatu dituzuten itzaldi auek ori salatzen dute. Zuen jatorria ez dezute ukatu izan nai. Zeuok zeuon buruaz, zeuon euskalduntasunaz lotsa ez zareten bezela, zuen arbasoak, eta aipatutako iru Emanitar aiek, Kardaberaz, Iturriaga eta Arrue ere, ez dira gaur zeuokin lotsa. Ez al dituzute maixu aundi aiek, bein ere aaztuko. Gaurko egun au ere aiekin dituzuten lokarriak estuago eglteko izango al da !

Nere itzaldiaren gaía zeuok jarria da, euskeraren batasunari buruzkoa. Gizaldiz gizaldi nolako pausuak eman diran batasunaren billa, nola azaldu dan kezka au, nola ikusi zuten gorabeera au antziñako gure klasikoek, eta oraintsuagoko aldietan auzi au nola erabaki nai izan dan, ori guzti ori jakin eta ikusi nai dezute. Nere alegintxoia egingo det zuoi ontan atsegin ematen. Aurretik (ala eskatzen dizuet), nere utsengatik izango al det zuen barkamena !

Itzaldi onek bi zati izango ditu, bi zati nagusi: euskeraren batasuna antzinako euskal-idazleetan, leenbiziko zatia; eta batasun ori, oraiñagoko ekiñaldietan, bigarren zatia. Azkenengo zati ontan, bi batasun aztertuko ditugu, alegia, euskal-ortografiaren batasuna, eta euskera idatziarena.

Euskeraren batasuna euskal-klasiko diralakoetan

Gai ontan sartzean, berau aipatuaz batera, galdera bat edo beste etorriko zaio askori burura: Baiñan euskera batuaren auzi eta kezka au ez al da, bada, oraintsukoa, gure egunotakoa? Gure klasikoek ez ote zuten, bada, idatzi, iñolako kezkarik gabe, berez berez? Ez ote zerien aiei, txoriari bere txinta bezela, beren euskera jatorrizkoga, tokian tokikoa? Galdera auei ezezko erantzuna eman bearrean gaude.

Euskaldunak berandu asi ziran euskera idatzia erabiltzen, eta artara jarri ziraneko, beren kezka eta ardurak izan zituzten nola idatziko. Bertatik oartu ziran ez zala Euskalerrri osoan euskera berdiña egiten, ez urbiltzekorik ere; ba-zala aldeia euskeran errialde batetik bestera. Au ikusteak gogoetaka jartzen zituen zein bide artuko, nolako euskera erabilliko, euskaldunik geiagok ulertzeko eran nola idatziko.

Au ikusteko, gure lteratura zaarrari gain-begiratu bat ematea aski degu.

Asi gaitzen gure idazle zaarrenetako bategandik, Leizarraga gandik. Beskoitzezko seme au, Testamentu Berrlaren euskeratzaile au, amaseigarren mendekoa degu. Datorren urtean izango dira laureun urte Testamentu Berrl ori eta beste lan !batzuk argitara z ituela. Apa iza izana zan eta gero Protestante eglña. Protestanteen aginduz ekin zlon bere lanari, beste euskaldun batzuek lagundurik.

Nola idatzi, nolako euskera erabili? Orra asieratik izan zuen kezka. Gogoz eldu zion lanari, balña bere borondate ona gorabeera, bein lbalño geiagotan lzan da dana bertan beera uzteko zorian, eta beldur da ez ote duen asltako lana bukatuko. Batetik antzu eta landu gabea ikusten du euskera. "Oraino, traslationetan behintzat, usatu gabea". Orrez gainera, gure lzkuntza ainbat zatitan puskatua dago. "Bat-bederak daki Eskuel-Herrlan kasi etxe, batetlk berzera ere mintzatze-ko maneran zer diferentia eta diversitate den".

Au ikuslrik, zein bide artzen du Leizarragak? "Ahallk gehlena guzlei adlerazteari iarrelki lzan gaitzaltza, eta ez xoil edozein leku iaklneko lengoaje berezirl".

Itz auetan naiko argl ikusten degu nola ezagutzen zuen Leizarragak euskera-aren egoera eta nola jo duen banatasun artatik nolabaiteko batasunera. Leizarraga onen euskera ez da lzango ez angoa ez emengoa, iñongo leku jakiñekoa; alk eta geienek ulertzekoa erablltzera saiaturko da.

Lapurtarra zan bera, balña aalk eta geienentzat idaztearren, gogoan izango du Zuberoa ere, eta Zuberotarren euskera. Eta auentzat iztegi labur lbat ere jarri zuen azkenean, Lapurdiko itz batzuel Zuberoko ordaiñak aurrean jarrlta.

Urrengo gizaldian, beste idazle batek ez du jokabide berdiña artuko, ain zuzen. *Materra* euskaldun berria da, gaur esango genukenez. Kanpotlk etorria da Euskalerrlra, Sara aldera, eta Sarako euskera ikasi du, ez besterik. Ba-daki onek ere ez dala Euskalerrri guztlan berdln mintzatzen, balña ez beraz dakiena beste-rik eskatu. Ala altortzen du berak: "Badaklt Eskual-Herrian anhltz moldez mintzatz-zen dlrela, eta nori bere herrlko euskara zaikala hoberenik eta ederrenik. Eta handik gogora emalten deraut ene eskribatzeko molde haur etzaiela guztiei ongi iduriltuko. Baina nahi dut lakin dezaten halakoez nik hizkuntza hunetan dakidana Saran ikasia dudala eta hango euskara ongl erabiltzen badut, ez nalzela gaitz erraiteko, eta ez arbuiatzeko, zeren ezpaltaklt nlk hangoa baizen. Ordea ea Sarako euskara denz Eskual-Herriko hoberena eta garblena, ez naiz ni hartan sartzen; bat bederak emanen du bere idurirlk. Eta Sarako eskuara hunetzaz kontent ezte-nak ezkirlba beza bertze eskuara hobeago batez eta hobekiago; ez naiz ni har-gatik bekaiztuko eta ez inbidloz izanen".

Asistarraren seme zlnztoa Aita Materre au, eta ala pakezalea auzi ontan ere. Baiña or degu idazle onen aitortzen gure euskeraren banatasunari buruz.

Gizaldi berean, eta Saran bertan dugu gure klasikoetan klaslkoenaren ospea duen idazlea: Axular aundia. Gure banatasunaren lekuko au ere, eta batasunaren nolabaiteko eragille. Banatasun orrek kezkaz jartzen du. Ezln dezake idatzi euskaldun guztlek ulertzeko eran. Ala aitortzen du berak: "Badakit... ezln heda nait-keiela euskarazko mintzatze molde guzletara. Zeren anhltz moldez eta dlfferent-ki mintzatz-zen baitira Nafarroa Garaian, Zuberoan, Lappurdin, Bizkaian, Ipuzkoan, Alaba-herrlan eta bertze anhltz lekutan... Batek erraiten du *behatzea*, bertzeak, so *egittea*; batek aserretzea, bertzeak *samurtzea*; batek *ilkhittea*, bertzeak *jalg- tea*; batek *athea*, bertzeak *bortha*; batek *erraita*, bertzeak *esatea*; batek *liskar- tzea*, bertzeak *ahakartzea*; batek *hauzoa*, bertzeak *barddea*; batek *aitonen semea*, bertzeak *zalduna*. Finean, bat? bederak bere gisara, antzera eta molde- ra; ez dituzte euskaldun guztlek legeak eta azturak bat, eta ez eskuarazko min- tzatzeak ere, zeren erresumak baitituzte different" .

Nondik norako bidea artuko du Axularrek olako banakuntza ori nolabait berdintzeko eta aalik eta geieni atsegin emateko? Bat, Lafitte jaunak aipatu eta argitan jarri duena: itz eta esaera berdintsu asko, sinonimo asko erabiltzea, era batera eta elkarren gainka. Orixe egin omen zuten antxiñako frantzes-idazle askok ere, esaterako, Rabelais ospetsuak. Iñoiz, euskerak bi itz dituenean elkarren atzekoak edo bi eratara erabiltzen diranak, biak jartzen ditu Axulafrek; eta batera liburuaren barruan, eta beste erara bazter batean, aldamenean, "bat-bederak kontentamendu duen amoreakgatik".

Beraz, Axularren euskera geien batez Saran erabiltzen zana izan arren, badu beste euskalkietako kutsu bat baiño geiago, nola edo alako batasunaren billa saiatuz.

Mende bera, XVIgarrenekoa, bukatu baiño leenago, or legu beste idazle bat kezka eta joera berdintsuarekin, Tartas, Onsa hiltzeko Bidia idatzi zuena. Leizarra eta Axular, biak euskeraren aldetik, Lapurditarrek ditugu. Tartas Zuberotarra da. Zuberon bizi zan gaiñera, Aruen; baiña ez du Zuberoko euskerara oso-osoan jotzen. Zergatik? Batasunaren kezka, irakurle geiagoren billa. Irakurle geiago izatearren, Zuberokoa baiño euskera zabalago batez idatzi nai du. Eta orren jakitun jarri nai izan du irakurlea.

Olena dio: "Ene euskara eta lengoajia eztaikit aprobatia izanen denez, bai da ez. Badu orotarik zerbait; Zuberoak, Baxenabarrek eta Lapurdik eman drauko zerbait, baina ez oro. Aruen egin dut neure pieza pobria; hanko lengoajia ezpada aski eder, hanko euskarak du ogena, eta ez euskaldunak". Benetan aitorten apala auxe. Geienok, nik uste, bakoitzak geure erriko euskara jotzen degu onenetakotzat.

Bidasoaz andiko idazleekin jarraituz, urrengo mendean, amazortzigarrenekoan, beste idazle aundi bat degu: Joanes Etxeberri. Bestaldekoa izan arren, emendikoen artean eman zuen bizirik erdia: Beran, Ondarrabin, Azkoitin. Axularren goresle porrokatua degu bera. Urdazubitarra omen degu euskal-idazleetan maixurik aundiena, eta euskerarik ederrena, Sarakoa Baiña beste euskera-molderik baztertu gabe. Gure euskera molde eta era askotakoa bada ere, gure artean ez da ontan gertatzen beste izkuntza askorekin gertatzen ez danik. Euskera-mota asko omen degu, baiña euskera bat bakarra omen da.

Etxeberri besta aurrekoek baiño sakonago eta luzeago jorratzen du gai au. Entzun zer dion: "Diferentzia molde hau kausitzen da zemahi bertze hizkuntzetan ere, bereziki italiano, erdera eta frantzesean". Izkuntza auek "bere ethorkia dutelarik latinetik, guztiarekin ere diferentziatzen dira elkarren artean; batak latinetik hartu tu hitz batzuek, eta bertzeak bertze batzuek; batak signifikantza batean, bertzeak bertzean; batzuek letrak kenduz, bertzeak berretuz; bertze batzuek letrak aldatuz, edo kanbiatuz eta trukatur; batek labur zena egin du luze, eta bertzeak kontrara luze zena laburtu du... Eta halatan, guztietan ageri da apur bat gora behera batean gehiago, bertzean gutiago, nonik duten bere ethorkia; eta oraino hautan ere kausitzen da, izan arren hizkuntza eta erresuma berekoak, diferentzia badela herritik herrira hitzetan eta mintzatzeko maneretan. Batzuek delikatu, bertzeak moldegaizki; batzuek mintzoari emaiten diote bertzetarik mintzaira diferentia; ordea, hargatik hekien hizkuntza mueta bat da, hala nola eskuararik bat baizi ez baita". (Euskuaren Hatsapenak, 54).

Onela itz egin zigun bere liburu batean, Eskuaren hatsapenetan. Eta Lapurdiri zuzendutako Gomendiozko Karta edo Gutunean dioena are argiago eta gogorragoa da:

"Euskalherriatik ilkhitzen garen bezala laster, hizkuntza arrotzen premlan jartzen garea. Eta oraino, bertzalde, geure herriatik ilkhi gabe Euskalherrian berean barrena, geure artean dugu pena eta nekhe ondikozko hau: zeren geure hizkuntza propiala baitarabilau hain nahasia eta trukatu, non eskualdunok gerok pena eta nekhe baitugu elkarren aditzeko.

"Ezperen bat bedi Nafarroa Beherearra edo Zuberotarra Bizkaltarrarekin, edo Alabesarekin, eta Otxagabierra edo Erronkeleza Baztandarrekin eta Lapurtarrarekin, edo zela-nahi Eskual-herriko aldebatekoa bertze- alderdikoarekin, eta ikhusiko duzu elkar ezin adl dezaketela; aitzitik, elkarri rudituko zaizkio Eskualdunak direlarik, ezirela hizkuntza bereoak" (318).

Au irudipen utsa dala esan digu leentxeago. Euskerarik, izan, bat bakarra baitik ez dagula. Baiña nondik dator gure arteko ezbear au, ezin aditu au? Jakinagari dala uste det Etxeberri ortaz dioena "Hau heldu da Eskualdunek bere hizkuntza propiala ez estimutan idukiz, eta munduko bertze gainerako jendaki guztlek bere hizkuntzan izkiribatzen duten bezala, Eskuaraz izkirltbatu faltaz. Baldin bertzte hizkuntzetan bezala, izan balira lehenagotik liburuak eskuaraz izkribatuak, hetan begiratuak eta altxatuak egonen ziren gauzen izenak, eta mintzatzeko hitz eta manera eskuarazkoak; eta gisa hunetan baliatu ginakeen hetaz mintzatzeko. Balna nola izan baltira hain apurrak eta gutiak ezkuaraz argitarat ilkhi dlren liburuak; hargatik aldebatekoak ezln jakin zetzaken bertze alderdiko hitz guztiak eta gauzen izenak. Eta hala denborarekin edozela lekhutan joan izan dira hitzak eta gauzen izenak, apur bana emeki emeki bertze gauza guztiak bezala, trukatu, eroriz eta ahantziz" (319).

Emen eman digun irltzia ez al da gogotan artzekoa? Gure artean euskeraz idazteko oltura zabalduagoa izan bagenu, batzuen eta besteen euskera ezagutzeko aukera ohea izango genuen. Orrela, bazter bateko itzak bestera zabalduko ziran, eta ez ziran besteentzat ain arrotz eta bitxi izango. Orrela euskaldun guztiok elkar aberastuko genuen, eta aberatsago eta ugariago egingo geure euskera.

Baiña beste ezbearrik ere izan degu euskaldunok eta ez du etxeberrik salatu gabe uzten: "Lehenago Espaiña guztian eta Frantziako anhlitz herrltan Eskuaraz bertze mintzorrik etzelarikan; egun dakusagu zela herri gutitan mintzo garen eskuaraz; eta oraino mintzo garenoi ere eskas zaizkigu hainitz hitz eta izen lehenagokoetatik. Zeren heklen lekhuan hartu baltitugu bertze batzuek hizkuntza arrotzetarik; eta hek ere ez gisa berekoak guztlak; zeren batek hartu baitu hizkuntzagbatetik, eta bertzeak bertzetik".

Ez ote dago argi asko? Gure izkuntzak ainbat adar ezberdin izateak baditu bi iturrak, Etxeberriren irltziz: batetik, gure literatura urrla eta elkarrekin artu-eman gutxikoa izateaz, antxiñako euskeraren ondasun asko galdu egin ditugu, eta lekuren batean bizirik iraun duten itzak ere ez dira beste lekuetara zabaldu. Bestetik, galera ori naiko ez dala, inguruko erderetara jo dogu itz berri eske, galduen utsunea betetzela; o. Eta inguruko erderak bitik gora diran ezker, ezberdintasuna geitu eta aunditu bes terik ez degu egin, eta gure arteko zuloa, aditu eziña, aundiago biurtu.

Ora, euskeraren zorigaitza, egoera negargarria. Ora zergatik idazleak albes- teko kontua erabilli, bear duen, artamuka, zoritxar ori Irakurlearen onetan nola garaituko.

Mendiburu eta Kardaberaz

Kontu eta ardura ori ez zan izan Bidasoaz andiko idazleena bakarrik. Emendikoena ere izango da, emendikoak literaturarako beranduago esnatu baginān ere.

Amazortzigarren mendean asi ginān aspaldietako lozorroa astintzen. Larramendi aundiaren iritzi eta ibultzadarekin batera. Ba-ditugu orduko bi idazle ugari eta bikain: Mendiburu eta Kardaberaz jesuitak. Bigarrena, zuen erritarra, Ernani-ko semea.

Biok ikusi zuten euskera puskatan zatiturik Biak jakiñean daude zatiketa orrek nolako kalte eta okerrak ekartzen dituen eusal-idazlearentzat.

Mendiburu mugaz andiko Etxeberriren iritzi berdintsukoa da. Euskerazko libururik gabez, euskerak anitz itz galdu ditu, eta nonbaiten bizirik gelditutako asko euskaldun guztiek ez dituzte aditzen. "Badira Nafarroan, euskerazkoak izanagatik, Probintzian geienak aditzen ez dituzten izketak edo itz egiteak, baita Probintzian ere Nafartarrentzat berriak diruditenak; eta Probintziako bazter batzuetan aditzen dira beste askotan aditzen ez diran zenbait itz egite".

Beraz, Mendiburuk zer egingo du? "Non-nai aditu ditezkeanak billatu ditut, alegiñean artzen ditudala orretarako, euskerazkoak utzirik, beste zenbait itz". (Jesusen Bihotzaren Debozioa).

Orrela esaten dio Jesusen Bihotzaren Debozioa-liburuaren sarreran irakurleari. Liburu oni Larramendik jarri zion beste itzaurre bat. Edo, zeatzago esateko, liburu orrek itzaurre bezela, Larramendik Mendibururi egindako karta dakar, orduko euskaldun gaizki-esale berritsuentzat batere leguntasunik gabeko karta, benetan. Gogor erasoten die Larramendik or euskera gutxi esten duten euskaldun eroei. "Gogaikarriena da, txarlari oiek ikustea ta aditzea nola dauden ixekaz ta muxinka euskera ederki dakitenean jolasari, bein Nafarroako *mintzoa* dala, gero Bizkaiko *berbeta dongea*, batean *ausez* ere Goierriko izketa dezula: bestean, *noaskiro*, Beterrikoa; atxurlarien eta nekazarien hitzera dala hura, baserritarra dirudizula, eta milla onelako astakeria Ez dute izen obelik merezi".

Mendibururi, berriz, esaten dio ongi egin duela bateko eta besteko euskera naaste erabilliz. "ongi egin dezu Nafarroa'ko hitzen batzuek ekartzea, egokiak diranean, eta besterik ezteanean. Zeren lanbizian eta bat-batean aditzen ezpadira, aurki adituko dira eta geienak dagoaneko editzen ere Badira; eta ala euskera bide batez edertzen eta ugaritzen da. Etzaitzabela tontotzarren erausiak ozpindu eta ikaratu... Zer degu, astoren batek edo bestek esanagatik ezteala onelako hitza emengoa, edo ezteala aditzen? Nafarroan *imi*, Bizkaian *barre*, Probintzian farra egiten zaiela onelako ta alako hitzen batzuei? Suertez ere neurri ederra genduke hizketarako, besterik ezpagendu. Gizon zuhur, zintzo, menak eta jakintsuak gure alde ditugunean, eztegiu jendalla oriei jaramon bear, ez eta a;en esamesanaz ajo-larik artu".

Urrengo liburuetan ere bide berdiñetik joko zuen Mendiburu zentzuzkoak. "Liburua bazter guzietarako egiña da, ta itz guziak ez dituzte era batean bukatzen euskaldun guziak... Liburu onetako euskera len egin nuenarena baño errezagoa da; ta angoa ere aditzen dute, dagoen; bezala... Eta bein edo berriz zerr bait galduagatik, laster oituko dira aditzen dituzten itzetara; eta beste, bear ez diranak utzirik, artuko dituzte beren hizkuntzetarako itz euskaldun garbi leunak".

Zer esan nai du onek? Euskaldunok bata bestearen bearrean gaudela, noski, elkarenganik ikasi bearra degula, euskera osoago ete bateago egiteko. Ez gaitez-

kela bakoltza bere euskalklan sartuta gelditu, euskalkien gaiñeko euskera batera jo bear degula. Ortarako, gutxi ba zan ere, eglñ zuen zerbait Mendiburuk. Zuur jokatu nal izan zuen, bear bada zuurregi. Itzlk zabalen eta adituenak erabiltzearen, orrela, gure ondasun asko lurpean utzi zituen, erraztasunarl begiratzuz. Euskalerri osoan ezagutzen ez ziran Itzen batzuk erabilll bazituen ere, ez asko. Bata-sunaren billa dabillenak maiz eglñ dezake oker au.

Delako oker au Kardaberaz'ek ere ezagutu zuen, eta nolabait osatzen saiatu zan. Mendlburu Nafarroan bezela, Kardaberaz batik bat Bizkaian eta Gipuzkoan zear lbllll da Jaunaren itza zabaltzen. Gipuzkoa'ko eta Blzkai'ko euskera egiten badaki eta lbietan ldatzi du. Eta beti euskerarik jakiñenean, au da, batasunera jotzen duela. Gipuzkoako euskera utsa egitea ere ez zltzalón Blzkairako eragozpen; gelenek atsegiñez entzuten zuten an gipuzkera. Balña an ere ez omen zuten urrutiagokorik ongi aditzen. Eta, bertakoa gogoago entzuten zieten, noski. Orregatlk, Kardaberaz'ek nai luke, Mendiburuk Nafarroarako egin duena beste norbaltzuk Gipuzkoara'ko eta Bizkairako egltea: kristau-erakutsizko liburuak bletan atera. GIpuzkoak eta Blzkalak ez dute Nafarroak baiño gutxiago merezi, eta premia andiagoa dute.

Ala zion berak: "Aita Mendibururen zelo andiak Nafarroako erara liburu eder probetxuzko asko atera dituen bezala, Jalnkoaren ontasunari eskatzen dlot, Blzkaiko biotz nobleren bati ango era ta dialektoan zeruko dotriña ta ejenploen liburuak ateratzeko, arren, argi zeloz ta gogoz lbete bat eman dlozla... Arimeen onerako Blzkaiko, Nafarroako eta GIpuzkoako lru dlalektoetan eskribitzea guztiz premiazkoa eta gauza bearra da. Gure izkera bien erdikoa bezala, Nafarroan eta balta Bizkalan ere aditzen da. Balña ez Nafarrak Bizkaikoa, ta ez bizkaltarrak nafarrena adltzen dute; ta bata besteagandik urruti eta bakoitza bere bldetik dabil. Jalnkoak zuzendu ditzala bere gloriarako".

Kardaberaz ez dago, orraitlo, lan ortarako beste lñoren zal, eta berak ekln go dio lanarl. Balña nola ldatzi? "Emen usatzen dan izkerarlk jakiñenean". Bizkaiko ta Gipuzkoako jakintsu askorekln itz eglnda gero. Blzkaleraz ere bai. Eta Bizkaltarrentzako liburu batean, lege zentzuzko eta egokiak ematen dltu, Bizkaiko euskeraz jatorrago eta garbiago idazteko.

Mogel

Sall au abukatzeke, Blzkaitlk datorklgun iritzl bat jaso dezagun. Mogel zaarrenaren llburu blkalñean, *Peu Abarkan*, arklitzen degu, bostgarren jardunean. Peruk eta Maisu Joanek elkarrekln darabllkiten jardun ortan, azken batean, beste bl sartzen dira izketa-lagun, bata giputza, eta bestea Bldasoaz andiko euskalduna, "prantzesa". Peruren adiskideak dlra biak, eta bakoltzak bere euskeraz diardu. Ez dute irurak elkar aditu ezlñik, bakoitzak bere euskera erabilliarren. Maixu Joanek ez dio ain ondo ulertzen prantsesari Arriturlk dago, entzuten duen izketa euskarazkoa danik siñestu ezlnik. Ortlk sortzen da onoko eztabalda au:

"Peruk: Ez dakit onen euskeriaa aituko dozun.

M. Joanek: Zer, euskeria izan ta nik aitu ez?

Peruk: Ni eginda nago oneei entzutera, ta zurl baizen ondo altuten deuset".

Peruk pranzesarekin jardunalditxo bat eginda gero, ea ulertu dlen galdetzen dio Malxu Joanl, eta onek erantzun:

"Berba banaka bat bai, ezer ez geiago Orren arin esatea, jijaka berbak aitatu-

tia ez da neretzat'. Eta ez du siñestu nai euskera danik ere entzun duena, bai adarra jotzearren asmatutako izketaren bat. Eta Peruri berriz galdetzen dio:

Peru, ta zuk aituren dituzula berba-saltsa ta gatx orrek?".

Peruk: "Bai nire emazte ta umiak bere".

M. Joanek: "Zelan ori, itoaren itoz eta arin esan biarrez ta amasa-ots batzuen artean badiño guztia?".

Peruk: "Alan uste dozu zuk; baiña egingo baziña soinu onetara ta aitu berbak, etzenduke orrelangorik esango. Neuk bere lenengoz etorri zanian, ez neutsan zeuk baiño geiago entzuten baiña orain txit ederto deritz".

Panzasak berak aitopen berdintsua, antzerakoa, egiten du:

"Neri ere Bizkaira ethorri nintzen lenbiziko egunetan, zuri bezala gosta zitzaiztan emengo euskera aditzen. Orain berriz nerea bezela aditzen dut".

Peru Abarkan ikusten degun prantzes au ez da, noski, Mogeleg asmatua. Prantziako matxinada inguruan, mugaz andiko euskaldun eta erdaldun bat baiño geiago, askotxo, etorri zan onuntz, eta Markiñan ere gelditu zan bat edo beste. Arrezkeroko abizenik ere bada gaur Markiñan, bat Duralde beiñik bein. Eta olako orri gertatuak argi berria ematen digula esan genezake, gure euskeraren, banatasuna etalbatasuna ikusteko. Euskera, zatitan banandua egon arren, bat dala adierazten digu. Etxeberri Sarakoak zioena. Eta elkarrekin jarduteak, artu-emanak izateak asko laguntzen duela esaten digu besteen euskerara belarria oitze-ko, eta batasunera bidean jartzeko.

Emen bukatzen det itzaldi onen leenengo sailla. Iru edo lau irakaspen atera ditzakegula uste det esan degunetik. Gure klasikoez erakutsi digute, banandurik zatiturik, dagoela, euskera ez dala euskaldun guztiengan berdiña.

Gero, idasle batzuek erakutsi nai izan digute zerk egiten duen, nondik datozen euskera ain banandua eta zatitua egote ori. Elkarrekin artu-eman gutxi izatetik omen dator geien batez, elkar gutxi ezagutzetik, literatura urria eta ezberdiña izan eta bera ere ez irakurtzetik. Gero, idazleak geienetan beldurrez bezela ibilli dira, irakurleak ulertuko ez Ote dituzten. Orrela euskera murrizter-a egin dute; leku bateko euskera bestekoarekin aberastu bearrean, uzkur ibilli dira, beldur izan dira bakoitzak bere aberastasunak besteei eskaintzen. Eta ez da or gelditu gure okerra. Txarrena izan da erderara jo degula, guk uzkurtasunez eta beldurrez galtzen utzitako itzen utsuneak betetzera. Ortik ere banakuntza-iturri. berri bat sortu zaigu, bakoitzak urbillen izan duen erderara jo duelako, emengoak Gaztelakora, eta angoak Prantzia eta Biarnokera.

Euskera zatitu ori ikustean, zer egin dute gure idazleek geienetan? Aalik eta euskera jbatuena, jakiñena eta zabalduena egiten saiatu. Neurri urrian baizik ez dute egin Larramendik Mendibururi esaten zioena: nozik. bein beste euskalkien bateko edo beste erriren bateko itzak erabiltzea. Mendiburuk egin zuen, bai, noiz edo bein, eta ori euskerarentzat aberasgarri izan da. Geienak beldur ziran, erretasunera, ulerterrazago izatera jotzearren. Mogeleg esan digunetik atera genezake ez zutela orrenbesteko beldurrik izan bear. Badirudi Mogel ez datorrela guztiz bat Kardaberazek eta Etxeberrik esan zutenarekin: alegia, Bizkaiko euskaldunak ez duela Naparren euskerarik aditzen. Artara oitzea, ori da guztia, or dago kakoa. Peruk eta Prantzesak leenbizikotan ez zuten elkar aditzen; gero, berriz, ederki. Elkar entzutera oitzeak dakar aldaketa ori.

Gaurko egunetan ere, orixe litzake askoren iritzian, batetasunerako biderik garbiena.

Baiña oraingo joerak beste blde, batetik dabilta, noski. Leenagoko idazleek, klasikotzat dauzkagunek, nolabalterko batasuna egin-naia ba-zuten, bal, bakoitzak bere euskalklan bederen. Orain gorago jo nai da: euskalkien arteko edo gainetik batasuna lortu nai da, euskera ldatzian beintzat. Beste izkuntza landuetan bezala, euskaldun guztientzat euskera bat jarri nai da eredu nagusi, eta ori goitik bera ezalrita.

Joan dan mendean, emeretzigarrenean, asita gabiltza asmo auetan. Eta leen leenik, ortograflazko batas uha egiterako joera izan genu en.

Nortzuk izan ziran aurrelari? Nortzuk eman zituzten leenengoko uratsak, pausoak, emen, ortograflaren sall ontan? Saia gaitezen erantzuten, ea askoren iritizi okerrak zuzentzeko aiña argi egiten degun.

Askok uste izan dute, eta uste dute oraindik, ortografiatzko auziak gure artean Bldasoaz onuntzeko euskaldunok sortuak ditugula. Eta ez asmorik garbienaz sortuak, galñera, erdaldunenganik berelzearren, edo gere buruak nabarmen-tzearren edo olako arrazoiren bategatik ez da ola, ez ala. Oso bestela balzik.

Gai ontan bide berririk urratzen ez glñan emen asi, Bidasoaz andiko aldean baizik. Nondik asi bear zuen? Literatura asi zutenen aldetik asi bear. Berezkoa da. Esaterako, Leizarraga bera asi zan K erabiltzen: bekatu, ukan, ekarri eta ola, geroagoko beste batzuen kh-ren ordezkoa. Toki berean Etxeparek, beccatu jar-tzen zuen, h-rik gabe, bi letrekin, Joaten orde. Jaklñak dlra, edo jakintzat ematen ditugu Oihenarte-ren alegiñak, H letratzen ez on artzeko. Au ere neurri batean Leizarragaren askolakoa zan: baiña ura baiño aurrerago zijoan bake, adlsklde, uken, bekaiz, eki, eta ola ldazten zuen, eta beste tarteko H-en ordezkakotxo bat erabiltzen zuen: bet'e, *ez bethe*.

Balña antzliñakoen ezbai eta joerak utzlta, goazen oraintsuagoko batzuetara, XIX'garren mendeko salo berrietara.

Aipatzekoak dlra bilbide-urratzaile: 1838-n, *Angre Dena MarMren lllhabethea* argitaratu Zuena, eta Luis Luzlano Bonaparte. Nor zan leenengo ori? Badirudi gero ere ldazten jarraitu zuen apaiz bat zala: Jaureche apaiza.

Nola nai ere, 1838'ko liburuaren egilleak bide berri bat urratu nai izan zuela ukatzerik ez dago. Argi eta garbi esango zuen euskerak bere ldatz-legeak, bere ortografia izan bear zltuela eta berak ortarako arau batzuk ematen zituem

Onen urrengo, Bonaparte Prlntze jauna izan zan bide ortan pausu berriak emango zituena. Ez zan bera euskalduna. Ala ere, Euskalerriko euskera berezi guztiak aztertzen ari baltzen, beste iñork baiño argiago lkusi zuen ortografla berri baten bearra, eta euskerarentzat egokiena zeritzana asmatuko zuen.

Bi auen ondoren, etalberauen bidetik datoz gero Bidasoaz onuzko saioak. Bonaparteri jarraituko zion Manterolak gure artean, eta Jauretche eta Bonaparteren lldotik ekin zion Aizkibekek, bere lztegi aundian. Geroago sortu ziran Azkue eta Arana Golri, bide berriei azken eskualdlra edo ikutua ematen.

Balña goazen poliki eta astiro, eta ikusi dezagun nondik nora zeblllen *Maria-ren lllhabethearen* egilea 1838-n.

Aurrenik, gure ortografiaren anarkla erakusten zlgun, gure arteko legerik eza, araurik eza.

Euskal-idazleek erdal-ortografiari jarraitu omen diote geien batez. Balña argi omen dago euskerak bere soiñu eta otsak ba-dituela eta ortaz bere ortografla bear duela. Ez bedi aipatu oraiñarteko usadio edo olturarik "Ez bedi ekhar, dio berak, oraiartinoko usaia; usala klarki gehientzat kaltekor denean, utzi behar da

gehientzat ona denaren hartzeko". Onekin ez du besterik eskatzen euskerak beretzat on dituen letrak artu bear dituela baizik, eta on ez dituenak utzi. Idazle onek ez du nai bere burua ortografi berri baten asmatzaille azaldu. Gai ontan jakintsu diranen irakatsietatik euskeraz idazteko legeak atera, besterik ez du egin nai.

Iru dira Jauretche dalako onentzat legeak: leenbizikoa, izkuntza bakoitzera-ko ez degu artu bear izkuntz ortan ez dan soiñu edo boza dakarken letrarik: bigarrena, soiñu edo boz bakoitzarentzat ez da bear letra bat bera besterik; irugarren legea, oraino gutxiago erabilli bear da letra bat bera soiñu bi edo geiagorekin.

Iru arauok gogoan dituela, idazle onek letra batzuk kendu egingo ditu euskal-alfabetotik: q, v eta y; g-k beti soiñu berdiña izango du; berdin nai du c letrarentzat, edo kendu eta aren ordezkari k erabilli; z biguñaren ordezkaria danean, beti *zeta* idatzi. Orrela euskal-ortografia ia gaurko legean gelditzen da. Bakarrik, *x* eta *tx* idazteko ez du ezer berririk asmatu eta leenean utzi ditu, bata írantzes erdaldu-nen *ch* utsa, eta bestea, berriz, *ch* ori bera, t aurretik duela.

Jauretchek eman gabeko pausak geroxeago Bonapartek emango zituen. Eta or daukagu, azken batez, Aizkibelek eta Manterolak Gipuzkoan eta Luis Iza Agirrek 1881-garren urtean Bizkaian sartu zuten ortografia.

Orduan asi ziran Bidasoaz emendik xeetasun geiago eskatzen eta laster agertzen dira Azkuek eta Arana Gorik zabaldu zituzten legeak.

Bi auen inguruan sortu ziran eztabaidarik gogorrenak, beti elkarrekin aditu eziñik, lbatzuek eta besteak elkarri amor emateko gogo gutxi erakusten zutela.

Eztabaida auek mugaz emendiko aldean gertatzen dira. Baiña, azkenez, ango eta emengo, guztiek elkar artu eta ulertu naia erakutsi zuten. Ortarako batzorde bat jarri ere bai, Adema Zaldubi idazlea buru. Utsean gelditu zan dana. Batzordeak porrot egin zuen. Eskola guztietakoak, joera guztietakoak ziran tartean, Arana Goitarren aldekoak ere bai. Batzarrak uts egin zuen. Noren erruz? Bototara erabaki bear ziran eztabaidak, eta Aranatarrak beste guztiak baiño batzarkide geiago ziran batzarrean, beren artean gai artan iritzia emateko eskolarik naiko ez zuten ere bai, besteek ziotenez, eta orrela besteok ez zuten jarraitu nai izan. Orrela aurrera egiterik ez zegoela-ta, etorri zan bidetik itzuli zan bakoirza etxera, ezer erabaki gabe. Ez dago beste istillurik emen. Eta ortografiari buruzkoa zan auzi guzia, ez euskera batuarena. Ez da ere egia (oker dabilta bestela diotenak) ango eta emengoen artean orduan alkar aditu eziña sortu zala. Ain zuzen orduan edo ordutik aurrera artu zuen indarra ango eta emengoen arteko elkarte batek, Euskalzaleen Biltzarrak.

Urrengoa alegiñak ortografi-batasunerako, Euskaltzaindia sortu zaneakoak dira. Ia ogei urte geroago. Euskaltzaindiaren eskuetan jarri zan auzia, eta onek eman Zuen bere erabakia 1920-ko urtarrillaren 8-n, Aranatarren arau batzuk ontzat emanez eta on artuz: *erre* gogorra ere, gaiñean puntu batekin, ontzat eman zuten, eta d, t eta l bustiak ere, bai, gaiñean marratxo batekin, eta x eta *tx*, bata prantzesen *ch* eta bestea gaztelarrena idazteko. Azkenengo letra auetan zeukaten aldea Azkuek eta Aranak, ain zuzen, eta euskaltzaindiak Aranaren aldera erabaki zuen.

Urte batzuk geroago, 1939-n bukatutako gerratearen ondoren, Euskaltzaindiak erdi ixilpean ziarduela, letra marradun edo txapeldun aien ordezkari, letra bikoitzak erabilli zitezkeala erabaki zuten: *erre* bikotza, alegia, eta d, t eta l bikoitzak. Ortan dago gaur ortografi-batasuna. Batasun onek nolako erantzuna izan zuen euskal-idazleen artean? Bidasoaz emendik, geien batez, aintzat artu zutela esan

bearrean gaude. Bidasoaz andlk ez zuen erantzun ain biribilik artu. Eta gaur ere ortan gaude.

Auzi ontan, norbaltek esan dezake ez degula H-ren aipamen aundirlik eglñ. Gauzak gaurko beglz ikuslta, emen utsune bat dagoela esan lezake norbaitek. Ez da olakorik. Zergatik egin bear genuen letra orren aipamenlk, ortaz ez baitzan izan eztabaidarik ez auzlrlk, ez aurka ez alde. Bai; gaurko giroan sartuta dauden batek bear bada ezetz uste ala da. Leenago ez zan izan oraingo borrokarik: H bal, ala H ez. Emengoek ez ziran leiatu angoei H kentzen, eta angoek ere ez zioten emengoel letra orl sartzekorik eskatu. Ortografi-utsezko eztabaidak zlrñan ordukoak, zein soiñuri edo zein otsi zein letra egokiago zitzaion erabakitzeoak. Ori zan guztia. Eta H orri buruz, ain zuzen auzia erabakitzat eman zitekean: letra erabllli bear zan, letra orrek berea zuen arnas-otsa adierazteko. Oihenarte andia- ren irltzia edo joera, H ori letratzat ez onartzekoa, euslerik gabe gelditu zan eta aazturik zegoen. Eta H-a or gelditu zan bizirik bere soiñua erablltzean duten eus- kalkientzat, baiña andlk kanpora lñork ez zuen ezer jokatu letra orren alde. Ez orren, ez Zuberotarren u-ren alde.

Oraingo joera urte gutxlz onuzkoa da. Batez ere, Baionako batzarretik onuz- koa. Emengoen artean lñork leenago erabllli badu, ez da izan letra orri gure eus- kalkletan leku eman eta sartzearen, batasunerako euskeratzat Lapurtarren eus- kera edo antzekoa artzearren balzik.

Gai ontaz ez det luzaroago jardun nai. Esana aski bedi.

Ortografi-batasuna eglñ ondoren, euskera berdintzeko alegin eta saioak datoz urrengo. Au ere, Euskaltzalndiaren ardurapean, Euskaltzaindi sortu-berria bide- erakusle dala.

Urrats au urrats berria, pausu berria degu. Artean lau euskalki nagusl genituen, laurak nolabait berdlnkuak eta geiago edo gutxiago landuak, bakoltza bere llitera- turarekin. Emendlk aurrera, alei guztiz agur egin gabe, baiña aien gaiñetik, eus- kera bat lortu nai da, euskaldun guztlentzat eredu jartzeko bezelakoa. Ortara irl- txl nal lteke, beintzat euskeraren literatur-mailla baterako.

Euskaltzalndla sortu zaneko azaldu zan asmo eta ames orl. Gure izkuntza bat egltea, edo batasunera bidean jartzea, ori izan zan Euskaltzalndlak aurrean jarri zituen elburuetatik bat, eta ez garrantzirik gutxienetakoa. Oraindlk ez du lrltxl. Gauza zailla izan, noskl, ez berez berezko lana. Baiña alegiñlk egin da bide orta- tlk, leen eta oralñago.

Leen eta orañago esan det. Au esanaz, bl aldi berezl nai ditut obatasunaren billa egin diran salo eta eklñaldietan. Blel gain-begiratu bat egiten salatuko naiz.

Leendabizko aldía, Euskaltzaindia sortu-berritakoa.

Egla esan, batasun-nai au ez zuen Euskaltzaindiak berak sortu. Ikusl degunez, ez ziran egon euskaldunak leendlk ere beren gaitzaz konturatu gabe. Eta galtz ori sendatzeko aleglñik eglñ gabe ere ez. Baiña zenbat eta elkar ezagutuago, zen- bat eta euskal-gogoak sustrai sendoagoak bota, gelago nabarltzen zan euskal- dun guztiek euskara bat izan bearra. Eta gureak berez esnatu ez balira, or zeu- den atzerlritarrak gogortzeko. Laster dira, aln zuzen, eun urte, atzerriko izkuntza- lari batek (Hovelacque) onako zerbalt esan zuela: "Izkuntzarik geienek, toklan tokiko izkeraz galñera, beste zabalduago bat ba-dute, alkar artuz bezela sortua, eskolan edo nonbait ikasia, eta literaturak erabiltzen duenaren antzekoa, edo

aren urbillekoa. Euskalerrian ez da olakorik gertatzen; idazle bakoitzak bere euskera du".

Izan ere, ala da guk lau bost euskera ba-ditugu. Euskaldun guztiek elkar errez ulertzeko euskerarik ez da gure artean sortu. Odazleek pausu txiki batzuk eman dituztela aurrerago joateko, baiña bakoitzak bere euskalkiaren barruan, euskaldun guztiek elkar aditezko erarik lortu gabe.

Idazleek banaka lortu ez zutena, nork edo zerk lortu zezakean? Geienak Akademia baten begira zeuden. Iñork ezer lortzekotan, Akademiak lortu bear zuen. Akademiak ezarri bear zuen batasuna ortografian, idazkeran, eta berak urratu bear zituen euskera batu baten bideak ere. Iritzi ortakoak ziran okerra zuzendu nai zuten geienak. Eta orra ortako ordua iritxi orain dala berrogeitamar urte.

Ordu orren begira, lentxeago asiak ziran, bai, saiaketa bat edo beste, esaterako, Azkuek bere *Prontuario de la Lengva Vasca* liburuan egiña, Gipuzkera osotuari bidea iriki naiez.

Baiña egia da gero Euskaltzaindiak artu zuela bere gain egiteko au Iru elburu izango zituen Akademia sorturberri orrek, onela zion lenbiziko urtean zabaldu zuen orritxo batek. Iru elburu: leenbizikoa, euskeraren ortografia bat egin; bigarrena, iztegia garbitu eta osotu; eta irugarrena, euskera literario bat, euskaldun guztientzat balio zezakena lortzen lagundu. Irugarren elburu au gero Euskaltzaindiaren arauetara eraman zuten. Eta bertatik ekin zioten lanari.

Zer egin zuten, egin? Leenbizi, ortarako zer giro zan ikusi, iritziak eskatu. Bata-sunik bai ala ez, eta nola egin.

Leendabiziko galaerak baiezkoa artu zuen geienen aldetik. Zailena gelditzen zan: batasuna nola egin?

Bi euskaltzainek, Kanpion eta Broussain jaunek, eman zuten aurretiaz beren iritzia. Bi bide arkitzen zituzten egokienak batasuflerako: leengo euskalki landue-netako bat artu literariotzat euskera idatzirako; edo beste euskalki bat, bederatzi-garrena, sortu, leengoetako bat oiñarri arturik.

Euskalki zaarretan, zaarrez eta landuago, Lapurdiera ikusten zuten landuena eta egokiena ortarako. Baiña Lapurdiera zaarra oraín illa degu. Lapurtarrek ere ez dute erabiltzen. Naiko aldatua daukate. Beraz, bide obetat zeukatzen gaurko egunetako euskalki biziren bat autatzea: gipuzkera, edo gipuzkeraren urbilleko-ren bat. Batez ere, gipuzkera, guztien erdian dagoelako, eta euskaldun geienentzat ulerterazena dalako. Baiña ez gipuzkera utsa ere. Nola galtzen utzi beste euskalkietan gorde diran ainbat ondasun? Beraz, gipuzkoarren euskera besteen ondasunez osatu egin bear zan.

Euskalerriaren iritzia jakiteko, lau batzar antolatu ziran bereala: Bilbon, Donostian, Lekarotzen eta Hazpamen. Idazle batzuek, berak beretara ere, oiali zuten beren esatekoa.

Iritzi-emailla guztiak ez zetozen bat. Batzuek zioten ez zala, beintzat, euskalkirik ito bear; ori euskeraren eriotzea izango zala. Euskal'-i bakoitzean batasuna egin, bai; besterik ez zuten nai, euskera biziaren kaltegarri edo ilgarri izan ez zedin. Iñor beartu gabe jokatu bearko zan, nola nai ere. Beste batzuentzat, euskeraren bizia, euskeraren etorkizuna, euskera batuan zegoen. Eta iñongo euskalkirik artu bear bazan oiñarri, bororik geienak Giputzen alde zeuden.

Aldi artan erdaldun izkuntzalari batek (Ramón Menéndez Pidal'ek) itzaldí bat eman bear zuen Bilbon, eta egun aietako gai oni buruz oar batzuk egiten zizkion Euskaltzaindi sortu-berrfari, Euskal-Akademiari, Kanpion eta Broussain jaunen ageria irakurri ondoren.

Bera ez zan jaun oien iritzikoa. Menéndez Pidal-entzat Euskera batuak erría-

rena izan bear zuen. Baiña gipuzkera batu orl, Kanpionek eta Broussaln jaunak azaltzen zuten ori, izan zitekean erriarena? Ezezkoan dago erdaldun izkuntzala-
la. Orregatik, beste bide bat erakusten du batasunera irixteko. Gogoan du, leen-
bizi, izkuntza ez dala gramatika-bidez sortutako ezer, bai gizarteak, errlak sortu-
tako zerbait. Munduak ez dauka, ez, izkuntza berri bat sortu eziñik; baiña ez
omen da ortara iritxiko, izkuntza berlrlk asmatuz, volapuk edo esperantcak sor-
tuz, edo beste izkuntza batzuk naastekatuz.

Men ndez Pldal orren eritzlz, euskaldunek euskeratbat izan ezlñik ez daukate;
baiña ez dute beingoan edo bat-batean zortuko. Lapurdiera naiz gipuzkera neu-
ri egoki batean naasturik, gaiñera beste euskalkietako ondasun batzuk ari eza-
rrita, ez litzake gauza lzango orrelako euskera batean liburuak ateratzea ere;
baiña, aren lritziz, orl ez da sekula erlarena izango. Orrela euskeraren bizia eten-
da geldituko litzateke. Olako euskcrak leengo mendeetako euskerarekln lokarri
gutxiegl izango luke. Euskaldunck ez al dute beren euskera orrela ilko, ez Bizkail-
coa, ez beste lñongoa.

Ala ere, euskaldunek euskera literario bat bear dutela eta nai dutela dirudi.
Ezingo al dute ori iritxis artflzialkeriarlk gabe? Balerz uste du Men ndez Pidal-ek.
Artflziala. itxura utsezkoa izango da landarea, alan brezko adarrez eta paperez-
ko ostoz ornltzen badegu; baiña ez da olakoa izango, azia erein eta lanaren lanez
erneazi eta azten laguntzen baldin badiogu. Orrelakoak lzan bearko du euskera
batuak ere, baldin errian sus traiak artuko baditu, eskolatu gutxi batzuek eraibil-
tzeko tresna izango ez bada. Zer eglñ dezake, beraz, Euskaltzaindlak? Esatera-
ko, Indarrik gelen erakusten duen euskalkiari aurrera egiten eta zabaltzen lagun-
du lezaioke. Euskalki bakoitzak erakutsi dezala bere gaitasuna, zeieñek daukan
zabal tzeko edo edatzeko bizitasunlk eta kemenik geien, eta beste euskalkien
ondasunak beretzeko indarrik geien. Olako euskalkiak berez artuko du Indarra
idazleen lumetan. Eta idazleek lagunduko diote zbeste gu2tlen artean nabarmen-
tzen eta gaiña artzen. Orrela sortuko dira idazleen lumetatlk ltz berriak ere. Eta ltz
berrlok ere, berak nausituko dira, piskaka, ia igarri gabe.

Eglteko ontan euskaldunak ez zuten urdurlegl ez lasterregi jokatu bear. Ez eta
aginduz, goitlk bera, legez ezer ezarri.

Euskaltzaindiak ez zuen aldi artan jokatu izkuntzalari erdaldun onek erakutsi-
tako bidetlk oso urrutiturik. Ez zan legez ezer erabaki. ez aglndu. Beste bide
batzuk edo egiteko batzuk zeuden ordukoz beiñagoak: Euskera sakonago azter-
tu eta ezagutu gramatka osoago eta jakite-argiz ornltuago bat atera iztegl a uga-
ritu euskalki guztien ondasunak blldu. Bide ortatik joaz sortukk dlra Azkue-ren
Morfologia. errietan egindako azterketa edo Erizklzundia. Itzen eta aditzen forna-
ñ k erablñlenak jakiteko; ortara zi joazten lztegi alik osoena eglteko lanak Ortara-
ko izan ziran. esaterako, Aita Oyeregiren itzik zabalduenezko lztegia. Azkue
jauna, gaiñera berak leenago eta gero gelenen gogoko ger.atu zan bideari ekiñez,
Glpuzkeraren Inguruan saiatu zan euskera batua moldatzen eta ala bere Gipuz-
kera Osotua dalakoa eman zigun, literatur-euskeratako olñiarri edo enbortzat
Glpuzkcakoa arturik

Azkuek berak jokatu zuen Gipuzkera Osotu orren alde beste lñork baiño su ta
gar andiagoz. Onela zion Euskaltzaindia sortu aurretik, Gipuzkoako Diputazioari
esklñi zion lilburu batean: "Gure euskera zar oni, antzlñako izkera guztiai bezela,
umetsua izateak beronen bizia erruz erkindzen dio. Bakarra izan balltz euskaldun
gelenok ezkenduke adiskideen artean erderara jo bear izango. Ezln bakartu
dezakegu, banl bai... Oso ta nun-nai zabaltzeko Indardun izango litzake bat egi-
tea eskuratu (lortu) ezkerero. Gipuzkoako izkelkia (euskera) dugu onetarako gale-

na; beronen gainean izkera batu liteke; bazterretako izkelkien gainean ez, erraz beintzat. Jaunak Euskalerrriaren erdi-erdian Gipuzkoa eta izkelki guztien muntzat berarena jarri duen ezkerotzik, Gipuzkoak ar beza, beste Aldundiak baiño ere gogozago, izkera bati, bizibidea emateko ardura eta arloa".

Gipuzkera osotu Ortan egin nai izan zuen Azkue bere nobela Ardi Galdua. Eta onen itzaurrean berriz ekiten dio bere leloari: "Euskera ilgo ezpada, oraezekoa, nai ta nai ezkoa degu izkelki bati, dialekto bati euskaldun guztiok errazen ulertzen degun izkelkiari, U ru mea- bazeerrekoari indarra eta kemena ematea".

Eta geroago, Gipuzkera osotua atera eta gero, batasun-billa Bilbon, Donostian, Lekarotzen eta Hazpamen egindako batzarrak aipatu ondoren, bere egiten ditu beste Bizkaitar baten itzak, Biktor Garitaonaindiarenak: "Nire aburuz, Gipuzkoako izkelgia autetsi bear da, beste izkelgiak baiño obari geiago dituelako bere alde. Errazago da, bai zabaltzeko eta bai ulertzeko. Beste guztien erdian arkitzen da; eta errazago da erdikoa bere inguru edo alboetara zabaltzen etzatzat egiten baiño. Bizkaitarrak ulertzen dabe Gipuzkoarren izkera, Gipuzkoarrak ez Bizkaitarrena. zuberotar edo Lapurtarren artean ori bera jazoten da (gertatzen da). Idazle guztien euskera ori ez da izango gaur egunean itz egiten edo idazten dan Gipuzkoera, baizik osotua, apaindua. Artu, bai Bizkaiko eta bai Zuberoko eta bai Napar eta Lapurdiko izkelgi edo euskerak dituzten edertasun eta obekuntza bereziak eta Gipuzkoako izkelgiari ezarri".

Orra Gipuzkera osotua nai zutenen elburua. Eta bide ortatik egin ziran alegiñak eta saioak, ogeitamaseiko gerratea etorri zan arte. Orduan bai Euskaltzaindiaren lanak, eta bai euskerazko lan guztiak, etena izan zuten zatilbaterako Euskalerrria indarrak menderatu zuen ezkeru.

Eta berriz euskerak eta Euskaltzaindiak burua jasotzen asi ziranean, beste joera bat dator. Nola? Nortzuk dakarte joera berria?

Bi izen aipatu nai ditut emen: Krutwig jaunarena, eta Lafitte apezarena. Bata, aita alemanaren semea, Bizkaian jaioa; mugaz andikoa bestea. Batez ere, Krutwig jauna izan dala uste det nik oraingo bide berrien aita. Ez zuen berak euskera amaren altzoan ikasi, bai liburuetan eta an-oriko erritar batzuekiko elkar-izketaldietan. Jaun onek erdiz erdi artu nai izan zuen Lapurdiera zaarra batasunerako oiñarri bakartzat. Gazterik zabaldu zizkion Azkue jaunak Euskaltzaindikoko atea. Eta andik, barrutik ekin zion bere lanari.

Idazle zaarretan billatu bear omen zuen euskerak batasunerako bidea eta iturria Gure idazle zaarretan ospetsuenak, landuenak, ongien idatzi zutenak, Lapurtar zaarrak artu bear omen genituzke eredu, eta ez iñondik iñora ere oraingo lapurdiera, Manex-kutsua darioena.

Krutwig jaunarentzat, gaiñera, Lapurdi dago, ez Gipuzkoa, Euskalerrriaren erdian. Eta mapa buruz bera jarrita, alegiñak egiten zituen ori ala Zala erakusten, egiztutzen.

Aren iritzi, lapurdiera zaarra artu, eta eginda daukagu batasuna Ori, bai; edozein idazleri antz emango zaio nontsukoa dan, bakoitzari geldituko omen zaio bere kera eta zuzena, beste izkuntzetako idazle askori gertatzen zaion bezela. Baiña bide zuzena eta bakarra or degu, eta ez beste iñon. Ortan jaun onek ez zuen zalantzarik.

Krutwig jaunak bere eskolara ekarri zuen aita Villasante. Bere eskolara, eta Euskaltzaindira. Eta orixe izan zan ain zuzen Aita Villasantek Euskaltzaindian sartzetakoan artuko zuen itzaldi-gaia. Giro ortan du sustraialbeste Bilboko idazle baten joerak ere, Aresti jaunarenak, alegia. Eta onen ildotik dabiltzan beste oraiñagoko batzuen joerak ere, bai.

Euskera iltzat leen baztertu zana, Lapurdiera zaarra, orlxe jarri nai digute euskera idatzi eta literarloanentzat eredu eta lege.

Joera orrekin aurrez aur, bekoz beko. daukagu Lafitte apez mentuzkoarena. Onek ere batasuna maite du, eta batasuna nai luke, mugaz andiko idazleentzat belñik beln. Lapurdiera zaarra iltzat dauka, eta oraingo lapurdiera eta Nafarroa Behereko euskera eln batean naasturlik egln du andlko aldeko guztlentzat lege nai luken euskara eta euskal-gramatika.

Lafittek uste du Euskaltzaindiak ariñegi, lasterregi jokatu zuela Gipuzkerarl begira larri zanean Gipuzkera nekez on artuko dute beste aldean. Eta arako beintzat euskera batu bat nal du: ez Lapurdiera garrla, ez Naparrera, bai zbien artekoa, Zuberoko euskera-tanta batzuekin naaste. Euskera ori nausitu omen da ango idazle eta sermolaririk gelenen artean, Zuberotarren artean izan ezlk. Gelela Lapurdikotik artu du: au baita landuena, literaturarik urgariena izan duena. Leenari zor zaio berea. Baiña ez geiegl. Orregatik dana Lapurdiera izan ez dedln, napar-euskeraren kutsu apur bat sartuko zaio, eta Zuberokotik ere bai zerbaltxo.

Orl da Lafittek bere Gramatikan erakusten duen euskara, naparlapurdiera. Jaklña, batasuna au Bidasoaz andlko alderako da. Bldasoaz onakoentzat ez du Lafittek legorik eman nai. Ala ere, ez uste, euskaldun guztien batasuna gogoan ez daukanik. Orl ere piskaka plskaka lortu daitekena da, eta opagarri. Nolz edo bein etorriko al da! Bien bitartean, egin dezagun bakoitzak gauere aldeko batasuna. Beste orl, urrenez urren, gogorregi jo gabe, emekl emekl, idazleek ekarriko dlcute. Orl da maixu onek nai lukena.

Auen ondoren, ibear bada, beste batasun-salo batek merezi luke aipatzea. Beronen bultzatzailea: J. Basterretxeajauna. *Oskillaso* ezizenak egin du ospetsu. Eglá esan, berandu samar azaldu da euskal-alorrera. Baiña bai blzi zekarrela batasunaren kezka. Eta artarako bide bat asmarazi dio kezka orrek Izena ere berria asmanl du bere ume orrentzat: *Euskera osotua*, ez ain zuzen *Gipuzkera osotua*.

Entzun dezalogun berarl, *Kurloiak* Izeneko lburuaren sarreran bere asmakizuna azaltzen: "Orai dlrela hoge ta amar bat urthe hasi giñean euskaldunok batasunaren billa. eta egln dugun aurrerapenaz konturatzen geranean, arras laburra lduitzen zaigu denbora horl.

"Laplko batzuekin azalduko dlzuet dana Irakurle

"Hasieran zazpi lapiko geneuzkan: Bizkaiera, GIpuzkera, Napar Garaikoa, Napar Beherekoa, Lapurdiera, Zuberoko euskera ta Erronkarlkoa.

"Laplko bakhar bat behar genuela ta bat hautatu ta beste laplkoetatik tanta batzuk bota genlzklon. Hunela sortu zan lenenblziko batasun-euskalgla.

"Gero, Peruk, Pernandok eta Manexek dastatu behar zuten eltze huntan gordeten zana, Huna zer erran zuten:

"Peruk: "Etxat gustetan lapiko hau". erran zuen, "neurea gustetan jat askozaz gehlago; baiña tira, beharrezkoa dogu. batasuna eta iruntzi egin beharko dogu".

"Pernandok: "Gusto bikaiña du. Ba-aldago eltze oberik?, erran zuen.

"Manexek, berrlz: "Eztut lresten allal, erran zuen. Etxait laket".

"Anhlzt lburu egin ziran lapiko bakarrarekln. Ikus dezagun oraln nola egin ziran, zelako abegia egin zioten irakurleek, eta zer gertatu zan gero.

"Buru-haulste asko eman zioten Peruri liburu hauek, eta blzkalera hutsezko lburuak bethi bezala idatzl eta Irakurri arren, saiatu egin zan Gipuzkera Osotuan ldazten eta irakurtzen. Manexek etzituen ulertzen liburu haiek. Baiña Pernandorentzat errezak eta pozgarriak ziran. Etzan gelditu Manex lanlk gabe eta opor eglten. Huna zer egin zuan gero batasunaren alde: lapiko handi bat hartu, Lapurdi-

ko eta Benaparroako eltzek osorik hustu lapiko handi huntan, eta Zuberoko lapi-koaren erdia bere bamera bota zion. Eragin ondo, eta bigarren batasun-euskalkia jaio zan hunela: Napar-Lapurdiera".

Ona guk leen aipatu degun Lafitte jaunaren lana gatz eta piperrez azalduta. Orain zer berri dak Oskillasok? "Manexek egin zuana arras egoki iruditu zitzaion eta hartu lapiko handi handi bat, Manexena baiño bi bider handiagoa, eta han sartu du lapiko haien barruko guztía liburutto hunen egileak. Eragin ondo eta hemen dizu dasta dezazun".

Orra Oskillasoren euskera osotua, euskera guztien puskaz egiña. Nolabait, Mogel-en "*Pera Abarka*" ko bizkaitar, gipuz eta írantzesena gogoratzen digu. Basterretxearen eltzean, lapikoan, euskalki guztiek sartzen dute bakoitzak ibere koipea.

Etorri gaitezen orain azken-aldiko saioetara. Orain dala seí-zazpi urte agertu zan besterbultzada bat batasunaren alde. Mugaz andian abiatu zan, baiña emen-goak zirala uste det bultz-eragille.

Or degu Baionako batzarra (bitzarra). Geroxeago Ermuko batzarta dator, eta azkenez, Arantzazukoa. *Bultzada* esan diot oraingo joerari. Eta alakoa da. Baionako batzarra ezker, bultzeta eta bultzeta ari dira asko, egundaiño egin egonak jota bezela. Albait ariñen egin nai dute zerbait. Euskaltzaindia astiroegi eta epelegi omen zebillen. Eta Euskaltzaindiarekin naiz Euskaltzai n d iaren gaiñetik, aurrera jo bearra omen dago. Eupada bat ere jaurtiki zitzaion Euskaltzaindiari "edolbatasuna egin eta goitik bera ezarri, edo euskeraren etsai zarete, eta eren etsaíen adiskide". (Enbata, n. 28, IX-1963).

Baionako batzarrak eman zuena or dago argitaratuta, orri batzuetan jasota. Ango erabakiak, batzuk ortografiari buruzkoak dira. Emen agertzen da leenbiziko aldiz H-ren auzia. Euskeara osoaren batasuna badirudi ez daukatela oraindik gogoan, bai euskalkien barrukoa. Baiña H ori euskalki guztietan sartzea nai dute bokal bi berdiñen artean, eta itz baten beraren bi adiera. edo zentzu bereizteko (nahastu, aur-ahur). Ortik aurrera zillegiuzten dute; nai duenak erabiñli dezala, eta nai ez duenak ez. Gero, zer-ikusit gutxiko oker batzuk zuzentzeko arau batzuk eman ondoren, deklinabiderako legeak ematen dituzte, eta aditza nola erabiñli edo aditzaren zein forma on artu erabakitzen. Forma batzuk bi eratara erabiltzeko aukera edo baimena dago. Ez zan gauza andirik, baiña ez oso utsa ere. Eta gogoangarriena: Euskaltzaindiari dei egiten zioten, erabaki aiek aztertu eta onar zitzan.

Beste dei bat artuko zuen Euskaltzaindiak andik geroxeago: Euskaltzaindia sortu zaneko urre-eztaiak zirala-ta, gauza egokiena iruditu zitzaion norbaiti (Aresti jaunari), batasun-auzia berriz aztertu eta konpontzeko bidean jartzen saio berri. bat egitea. Ala egitea eralbaki zuen Euskaltzaindiak. Oiñatiko batzar batek sortua da Euskaltzaindia, eta aren oroigarri, zer gauza egokiagorik, Oiñatin beste batzar bat antolatu eta batasunaren oiñarriak antxe bertan ipintzea baiño?

Bien bitartean, Durangoko Gerediaga Elkartearen ere sartzen da tartean. Eta euskaltzale guztieñ dei egiten die, Baionako batzarrari jarraituz, Ermuan batzar bat egiteko, ea aurrerago joteko biderik arkitzen zuten.

Emengo erabakiak ere argitaratuak daude. Zer da beren muiña? Ainbeste elkarrizketa eta eztabaida izan ondoren, auxe baiño asko geiago ez: H-ari buruz Baionakoak erabakitakoa ontzat artu, eta Euskaltzaindiak Oiñatin artuko zituen erabakiak aintzat artuko zituelakoa.

Beraz berrito daude guztiak Euskaltzaindiak zer esango zai. Eta Euskaltzaindiak zer egin zuen? Oiñatiko batzarra egin baiño leenago, euskal-idazle guztiei

Arantzazura dei eglñ, an guzien iritziak jaso eta an guztieklñ baten batasun-bideak urratzeko. Eta or bukatu zan dana.

Esan nai det, azken-erabakiak artzeko batzarra, Oiñatikoa, ez zala gertatu eta Arantzazuko batzar ortan emanda-ko bide-erdiko pausu artan, erabakitzekoen aurrerapen artan, gelditu zaia guztia.

Beraz, Arantzazuko batzar ori degu aurreko lan guztien gallur bezela. Eta ara begiratu bearko degu. An egin zan lana, eta artu ziran erabaklak edo ziranak ziralakoa ere argitara emanak daude.

Artarako izendatu zan batzordeak lau edo bost lllabetez ekin zlon lanari, eta batzordearen lan ori Arantzazun iru egunez irakurri, azaldu ez eta aldeka edo aurkaka aztertu besterik ez zan egin.

Ondorena ba-dakigu. Erabaki edo erdi-erabaki edo erabaki-aurrerapen batzuk artu ziran; bat, H-ari buruzkoa, badaezpadakoa, eta blde-erdikoa. Ango gorlan badlrudi ezln izan zala geiago eglñ.

Euskaltzaindiak, bere batzordearen bldez, artuak zeuzkan aurretik bide batzuk, arau batzuk, eta auetatik ez zuen, noski, alde egin nai izan. Ona zer lra-kurtzen degun, urte artan bertan, 1968-garrenean, epaillean artutatako erabaki batean: "Beti lzango da kontuan batasunerako normak estuegiak ez izatea; bein baño geiagotan bi edo lru era emango dlra, denboraren jardunean zuzenketak egiteko; eta, baita ere denboraren buruan premiak bearturik, punturen batzuk aldatu bearra izango dala".

Arantzarurako gertatu ziran gaietan puntu asko jotzen zan: ortografla, ltzen formak, morfologia, adltza eta abar. Guztletatlk H-arl buruzko erabakia besterik ez zan artu, erdizkako erabakia rbera, ez batasunerako egoklena. (Ongi ikusiko du... ez du gaizkl ikuslko... aurrerago jo nai dutenak...). Beste gal batzuei buruz puntu batzuk olñarrltzat artuko zirala, zein puntu lzango ziran arglrik eman gabe. Adltzaren batasuna beste aldi baterako utzl zan.

Galñera, guztia zan bein-beiñeko erabakia, "geroago ta astiroago argitarako ziran erabaklen aurrerapena" besterik ez, "galak geroago obeki lantzeko asmoz". Eta agiriarenfburuan, asiera— aslerans altorpen auxe: "Batasuna, noski, ez da Euskaltzaindiak egin dezakean gauza; eta are gutxiago bat-batean egin dezakeana"

Gero sortu dan giroaren eberri, gutxi gora beera, edozelñek jakin dezake. Batasunetik iñozko urrutien jarri ez ote geran nago. Iñoiz. baño euskera berri geiago azaltzen zaigu. Eta dana, euskera batuaren lzenean. Bakoitzat dauka bere euskera euskera batutzat, edo talde zbakoitzak alakotzat dauka berak nal duena. Sariketarik baldln bada, lanak euskera batuan edo Arantzazuko arauen araberan egiñak izan bear dutela aglnduko dizute. Or konpon noren euskera batuan eglñak izan duten ez. badakizu. Ala edo olako aldlzkarlsbatek, leengo euskalkien batean idazten jarraitu arren, norbaitzuen atseglñezko legeren batzuk bete ezkeru, euskera batua darabillega esango dlzute. Bestela dablltzanak euskeraren etsai dira eta blrao guztlak etorriko zalzkie gañera. Danerako ematen du bidea Arantzazuko Batzarrak. Beste ibatzuk, berriz, an egin zanari gutxi iritzlrik, Euskaltzaindiaren azpltlk edo galñetik, berek sortu nal dute euskera batu orl eta guztiei ezarrl. Euskera batua ez ote da euskeraren izen galzto gertatu? Ez da giro atsegiñlk, ez. Leen baiño banatuago geldltzeko arrlskuan ez ote gauden esan genezake.

Glo ito eta lorrln ontan, beldurturik edo, Euskaltzaindia ixilik dago eta, guk dakigula beintzat, ez du agindutako lanik aurrera eraman. Orrela, orainarteko eki-ñaldiei ez zale azken onlk ikusten.

Euskera biziarentzat (ala esan du oraintsu atzerriko izkuntzalari batek) arriskurik andienetakoa izango litzake euskera batu baten alde zomorro jokatzeari edo burrukatzeari. Leenago, oker bat ikusten zuten askok euskera batua dalako ortan, alegia, beste dialeko bat sortzeko arriskua. Orain daramagun Ebidetik, bat ez, dialekto mordo bat sortzeko arriskuan ez ote gaude? Batu bearrean, zatituago eta puskatuago ez ote degu egingo euskera errukarria? Eta azken batean, euskera batu orren aitzakiaz edo aren aldeko jokatzeko ustean, inguruko erderen alde ez ote degu jokatu, eta ez euskalki ez euskera batu gabe gelditu?

Zomorrokeriak utzita, arkituko al degu bide oberik, zentzuzkoa gokorik. Astíroegi, patxara geiegiz dalbillela egozten diote norbaitzuk Euskaltzaindiari. Ez dute ongi ikusten astiro jokatzeko ori. Baiña gogoan izan ditzagun artarako izan leizken arrazoiak ere.

Entzun eta ulertu dezagun, esaterako, Mitxelena Arantzazun bertan esana: "Ezin bestekoa, hil edo bizikoa dela uste degu euskera batasunbidean jartzea". Ez dio gaur bertan euskerak bat egin bearra duenik. Batasun baten bidean jarri bearra daukala dio. Ori egin bear omen du Euskaltzaindiak. Eta ortarako, aipa ditzagun berriz Mitxelena jaunaren itzak, "gidari eta biderakusle agertu nai luke gauden egoeran, egin ditekeanaren neurrian".

Orra beste zentzuzko gizon baten eta izkuntzalari jakintsu baten itzak. "Gauden egoeran" zer da guk egin dezakeguna? Ori ez degu aurkituko, ez zoromoro jokatuaz, batasun bat goitik bera nola nai aginduaz. Gure izkuntza gaixo samar degu ez dezagun zakarregi erabili; ez dezaiogun geiegizko sarraskirik egin, il ez dakigun.

Batasuna ez da ameslari batzuk uste duten ainiako erraztasunez egiten. Nekerik eta eperik bearko da ortarako. Oztapa-arri bat baiño geiago kendu bearko da bidetik. Mitxelena Arantzazun esana da urrengo au ere: "Ez da nor Euskaltzaindia, oraingoz behintzat, oiñarriztat zein euskalki hautatuko den erabakitzeko. Badira, hata ere, besteak beste, (eta Bilbao euskaldun ez dalarik), euskera idatziaren beharretarako egokiagoak dirala erdi-aldeko dialektoak bazterretakoak baiño". Baiña orain, batek baiño geiagok bazterretakoetara jo nai dute, eta euskaldi zaar eta illetara gaiñera.

Are geiago zion Mitxelena: "zenbaitetan, ez dago oraingoz deus egiterik, horretarako behar genituzken istudioak ez bait ditu iñork egin. Beste zenbaitetan, berriz, euskalkien arteko batasuna egitea gaitz bada ere, batasun behar genduke euskalki bakoitzaren barrenean behinik behin, eta ori gure esku dago".

Izan ere, euskalki-barruko batasuna egiteko gai ez bagera, nola egin nai degu euskera osoaren batasunik?

Olako arrazoi eta besteren batzuk gogoan izanik edo dabil, nonbait, Euskaltzaindia ain astiro, ain kontuz, pausu ariñegi eta lasterregirik emateko beldurrez.

Oraingo askoren egon eziñak, dana arrapata egin bearrak ere bere arrazoiak ditu, bear bada, benetakoak naiz itxurazkoak. Aspalditik entzuna degu bi bide ba-zirala batasunerako, bata *eboluzioz*, gerorik gerora, egitekoa, eta bestea *errebourzioz* egitekoa, bat-batekoa. Azkenengo au naiago lukete batzuek oraín. Baiña Ermuako batzarrea norbaitek esan zuenez, errebourzio batean aurreneko lana leengo jauregiak erretzea izaten omen da, gero ederragoak egiteko. Guk oraingo euskeraren jauregia erretzen badegu, ez dezagun uste gero berriz biurtu eta erai-kiko degunik.

Orregatik zion Ermuan bertan beste gazte batek: "gai ontan zazpi begiekin ibilli bear degula".

Ez dezagun ames zororik egin. Euskera bat egiña bagenu, ura zoriona gurea!

Bai, noski. Euskaldun guztiok elkar adituko genuke; euskal-liburuek irakurle gela-go izango lukete, merkeago atera eta salduko litezke. Ura zoriona! Baiña oralndik amesetakoa. Urrutikoa oraindik. Ames ori egi biurtu bearrez, zorion ori urblldu bearrez, ez dezagun urrunago bialdu. Lafitte jaunak Ermun esan zuen bezela, ez dakigu batasuna egin ustez, ez Ote degun euskera, naastuko eta ilgo, eta euskalki bat gelago asmatuz, irakurlerik gutxiago ez ote dugun aurkituko.

Jaun au (Lafitte) beldur zan, erriaren euskeratlk urrunduz, euskera batu orrek iraupenlk izango ez ote duen; euskera ikastea ez ote dlogun erlari neketsuago biurtuko. Ori gure izkuntzaren eriotzea izango litzake. Gurearen eriotzea eta erderari indar ematea.

Or dago gure zorigaitza. Beste lzkuntza batzueri batasunaren auzia sortu zitzalenean, ez zitzaien gertatu etxeko izkuntzaren kalte garbltan: etxeko izkuntza bera sendoago, aberatsago eta geiagorentzat ldekiago egiten zitzaien. Guri etxekoaren ilgarri eta kanpokoaren Indargarri gerta lekikegu. Kanpoko izkuntzaren bizigarri eta etxekoaren llgarri gertatzen zaio euskerearl banatasuna, egia; baiña berdin gertai lekloke batasuna ere.

Ongi ikusi zuen Azkue zanak gure zorigaltza au. Eta bizi bizi adierazi zuen bein, Hazparneko errikoetxean, eman zuen itzaldian, Frantzlán Irakurria zuen ipui one-klñ "Frantzlán nlnltzalarik bein, ez daklt zeln paperetan irakurrl nuen, gezurra esan bearrean *canard* (aatea) esatea nondik datorren. Zelai idor elkor batean aate-taldea Omen zegoen gosez, krak batak eta krok besteak, zer jan etzutela. Egazti aletako batek urdail ustua betetzeko grauskada "bat eman zion urren zuenari eta ezur ta mami iretsi zuen. Alek ala ikusita, beste guztlek elkar jaten asi ziran. Lumaz iñaurria (estalia) gelditu zan laster zelaia; egaztirik bi baizik ez, gizen gizen biak. Aiek ere mokokaldi gogorra eginta gero, batak bestea barrenean sartuz, taldeko lagun guzien aragiak urdall bakar batean kokatu zlrán". Eta Azkuek, bere aldetik: Nlk irakurri nuen paperak etzuen alpatu aatetalde aren inguruan otso ta azeri goseak amorraturlk (amikaturik) zelatan ote zegoen. Izan balitz, etzan aate-ri kan bat ere bizirik geldituko; egazti-mordo osoa, puskatua ta iretsia, urren zan oianera joango zan, otso-azerien sabelera. Talde ura bezelakoa gure euskalki-taldea degu, eta al! beronen inguruan otsoa eta azeria bizi dira. Indian eta Grezian, eta ltallan-eta Españain eta Inglaterran eta Frantzlán eta Alemanian eta izkelgl taldea bizl dan erri guztletan bezela, gure artean ere, alkar irestea bear bada, bildur nalz, sarrakioa erraietaraño sartua daukat, alkar jan eta bat geldltu lbaño lenago, ez ote dituzten otsoak eta azeriak, Frantzlako eta Espalñiako izkerak gure euskalkltxo guzl auek iretsiko".

Orl esan zuen Gipuzkera osotuaren alde aln gogo beroz eta zintzo ekin zuen gizon ark. Orregatik, noski, egoera ain negargarrian ikusten zuelako euskera, orregatlk nai zuen euskalki sendo eta erdl-aldeko bat euskera batuaren oiñarrlta-ko. Orrexegatlk, Bizkaiko semea izan arren, eta Euzkaiko euskera ain malte zuelarik ere, itzaldi aren bukaeran onela zlon: "Entzun au ongl, euskaldun maiteak. Bizkaitarrak, guztiak ez, noski, baiñan askok, gure euskalkla utzi ta beste bat, erdi-inguruko bat, euskaldun guztlentzat ulerterrazago bat, aitzen aisago bat, autatuko genuke. Edozeln euskaldunek zati bat baiño osoa maiteago izan bear du. Au goralbera, guztlok "nlk nerea, nik nerea, nik nerea "ka astekoak bagera, otsoak eta azeriak guztlok ezereztu orduko, sendoenlbizi dan euskalkla ar bezate etorklzuneko euskaldun orok berentzat".

Glpuzkoako euskeraren alde zion ori. Sendo ikusten zuen au, eta, orregatik, kanpoko izkuntzen zlnltzur iresleei iges egiteko egokiena. Baiña Azkueren itzak gaurko egunetako ere ballo ez ote dute? Gure arllxkurik andlernetakoa, "nik

nereaka" ibiltze ori ez degu oraindik uxatu. Eta ez, ain zuzen, bakoitzak bere euskalkiari nagusitza opa diolako. Beren euskera batua asmatzen eta zoromoro indarrez ezartzen saiatzen diranak ere, pekatu berean eta astunagoan erori ditezke.

Euskerak, bere gaixoan eta egoera bildurgarrian, kontu andiagoko jokabidea eskatzen digu. Bizirik irauten lagundu nai diotenak, egiteko ontan sartua danak, seta gogorrik eta arrokeriarik gabe jokatu bear du, apalik eta konturik andienaz. Ez nor-geiagoka, ez eta nor jakintsuagoka. Ain gutxi, nor gazteagoka edo zarragoka.

Iritzi oker batzuk buruetatik kendu bearra daukagula usre det nik. Ez dezagun uste euskera euskerago edo jatorrago egingo degunik, batua egiñaz. Ez gizartelegeetan Oinarrituago ere; gauza ageria da. Euskera batu ori, berriz, indarrez eta edozein modutan sartu nai izan ezkeru, gerta diteke euskera biziaren ilgarri. Eta erderaren bizigarri. Ikastoletan ikasi dutena bera ere, neguteko landare biurtuko daiteke umeen buruetan, ingurukon girorik gabez, illik geldituko dana. Etxeko euskeratik alduenduegia baldin bada ikastolakoa, etxekoa aaztu eta baztertzea eta ikastolan ezer gutxi ikastea edo bizirik irautekorik ez ikastea gerta daitekena da. Ontan saiorik ederrenak eta asmorik onenak zoroenak gerta daitezke. Lafitte jaunak Ermun esan zuenez, asmorik onenak, xederik onenak ez dute bide okerrrik zuzentzen. Bidasoaz andik datorkigun oar au emengoek ere on artzekoa dalakoan nago. Gezurra dirudi baiña, euskera batua dalako ori andikoen aldera etorkor izateko asmoz, aiekikoa egiteko eran eramana dirudian arren, andiko aldean dauka oiartzunik gutxien, angoen artean aurkitzen du jarraitzaillerik gutxien. Angoentzat egiña ez dala dirudi. Zergarik ote da? Ez ote da angoek beti euskeragaietan emengoek baiño zentzu ohea erakutsi dutelako?

Orregatik ongi etorria bedi Euskaltzai nd iaren epetasun eta astiro jokatzea. Euskeraren biziarentzat osasungarriago izango da ori batzuen itsumustuen ari bearra baiño. Euskaltzaindiak ez dio bere egitekoari ongi eta zuzen erantzungo, berea bear luken gidaritzza galduaz, iñongo indarkeriri, iñoren oldar eta bultzadarriri, zinka eta biraoka jardun bearrari amor emateagatik, jaramon egiteagatik. "Denboraren buruan, premiak bearturik, zerbait aldatu bearra gertatuko balitz ere"... Urrezko arau au edo oar-arazpen au ez du Euskaltzaindiak aaztu bearko. Itsua izango litzake atzera egin bearra, eta are itsusiago bein oker emandako pausu bat zuzentzeko atzera egin nai-eza, urtats txar eta oker batean gogortu eta setatzea. Euskeraren eta euskaldunen kaltetan izango litzake orrelako jokabidea.

Bukatu dezadan onenbestekin nere itzaldi au, luzearen luzez zuen aspergarri egin ez nadin. Bide luze samarra eragin dizuedana, gizaldiz gizaldí, mendez mende, gure klasiko zaarretan asi eta gure egunotararte. Idazle zaar aietan pakegiroan azaleratu zan auzia, idazle bakoitzak al zuen bezala erabakitzen saiatu zana, gaur burruka-bide gori eta gorri biurtu zaigu. Ez dedilla Azkue eta Menendez Pidal'en beldurra, gure erruz edo obenez, egi biurtu. Ez al da gure euskera inguruko otso-azerien zintzurretan ilgo. Orain artean beintzat bizirik irau duen izkuntza, euskera batua dala ta ez dala, ez al degu ilzorian ipiñiko. Lagundu dezaiozun, badaezpadako norgeiagokeririk gabe lan egiñez, osorik eta bizirik irauten.

Akesolo'tar Lino A.

EUSKERAREN BATASUNA ETA EUSKALKIEN INDARRA

Orain arte euskalkiak izan dira euskeraren indarra errlaren aoan.

Bitartean, bere batasuna eglnda zeukaten ele eta izkuntza zenbaitek (latiña beuren artean) il,da daude liburuetan; literatura askorekin, baiña, ilda.

Latñari buruz bagera, bere latinkiak (romances) bizirik diraute oraindlk errien aoetan,

Euskera "batua" ilda jaio da; ez bait du errletatik iñork orrela itzegiten.

Alaz ere, batu baten moldeak bearrezkoak ditugu literaturaren aldetik.

Baiña, euskalkiak (glputxa, naparra, bizkaitarra, laburtarra...) il gabe.

Euskalkiak ilko dlrán egunean ilko balt da euskera berbera ere errien aoetan.

Bl zaldi bear ditu euskeraren gurdiak, aurrera ariñ-ariñ joango bazaigu: Literaturauskera batu bat, eta euskalkiak bizirik errlaren aoetan.

Batu bat bear da.

Goltik poderioz eta bortxaz trokelen bldez jota eginda, edo beetik zabalduaz....Norberak ikusi." Gustoekin ez balt da dlsputarik"

Indarkeriaren emaitzak, ordea, gure inguruan lkusiak dauzkagu; Batasuna (uniflkazioa) eglñ zan goitik aginduta.

Ogeitamar urteren buruan lengora gatoz berriro: Orduan trokelez bat eglña, orain bereiztera

Indarkeriaren bldea artzea, gauzak ogel ta amar urte atzeratzea besterik ez da izanen. Indarrez egiten dlranak burnian balioko dute (burnlan bertan ere, burnlak bere giroa bear du; ez da otzik egiten; ondo gorituta, balzik), baiña gizasememakumeen biotzetan ez du ballo lñundlk ere.

Betiko leloan sartuta gaude, pertsona ala elkarte?

Pertsonarl bakarrik begiratzeak oker aundiak ekarri dizklo glzadlari; zenbalt mesede ere bai.

Elkartearl bakarrik begiratzeak mesede aundlak dakazkl bere orrekini; baiña, kalterik ere ez da falta. Kin-kan gabiltza. Justizi eta zuzentasuna eskatzen diguten erdiko puntu ori, nun dago?

Batasuna euskalkirik gabe, zer da?

Euskera biziaren eriotza, liburutegl ederrak.

Euskalkiak batasunlk gabe ?

Perfezlo gutxiago, liburugintza gaitzago, jakindurl-bideak estuago Euskera bizirik, ordea.

Pelotari onak ezker-eskubiak, biak bear dltu, aur^rera joango bada. Euskerak ere batasunarekin batera euskalklen aberastasuna eta bizia, biak bear.

Euskalki guztlen aberastasunak batera ekarrl, euskalkleri leporik moztu gabe....

Bukatzeko: Aolku apal bat ikastoletako aurrerl buruzkoa. Ona: Zenbat eta aurra gazteago, orduan eta amaren lzkuntza bearrezkoago. Amaren euskalklan aurra azi bear, gero batasunean ezlko badegu. Laboratorio utsean sortutako euskera jalo-gabe galdutako aurra da.

A.Arrinda
1975

Gure Lurra

- Sei euskalki.
- Leiñuak kontuan artu.
- Araba'n.
- Gipuzkoerea.
- Lapurteera.
- Naparrera bi.
- Erronkarin Galdua.
- Iparraldean Larri.
- Atzeraka.
- H'aren burrukea.

LEIÑUEN EUSKEREAA

Euskera bat da, baiña alde guztietan ez da bardin egiten.
gure izkuntza zaarrak, Gemikako arbolaren antzera, adarrak ditu.

Zeintzuk dira, eta noraiño zabaltzen dira Euskeraren adar orreik?

Aurreko lanean esan genduen erromatarren aldian euskal leiñu edo tribu bako-
txak bere euskera apartekoa egiten ebala.

Euskeraren zati orrei guk "euskalkiak" esaten deutsegu.

Euskerak gaur sei zati edo euskalki ditu: Bizkaiera, Gipuzkoera, Lapurtera,
Goi-naparrera, Beenaparrera eta Zuberera.

Euskalki bakotxa non egiten dan, eta zenbatek, mapa onetan argi ikusi zein-
ke, irakurle.

Aurreko mapa au ikusiz, laster konturatuko zara, bizkaieraz ez dala Bizkaian
bakarrik egiten, baita Gipuzkoako zati andi baten ere: Eibar, Soraluze, Bergara,
Arrasate, Oiñati, Aretxabaleta... Gipuzkoako erriak izanik bizkaieraz egiten dabe.

Arabako Aramaion ere bizkaieraz egiten dabe, eta leenago Araba osoan Biz-
kaieraz, edo beintzat bizkaiera antzeko euskalki bat itzegiten zan.

Zenbat gara, beraz, bizkaieraz egiten dogunok? 200.000 euskaldun.

Gipuzkoeraz, ostera, ez da Gipuzkoa osoan egiten.

Donostiatik arantz, Bidasoa ibairaiño, Goí-naparreraz egiten da, baiña Altsa-
sua aldean ere gipuzkoeraz egiten da, eta alde au Naparroa da.

Gipuzkoeraz egiten dabenak beste 200.000 euskaldun dira.

Lapurteraz ere ez da Laburdi osoan egiten, mapan ikusten danez.

Baiña Naparroako Baztan aldean lapurteraz egiten dabe.

Naparrak, ostera, bi euskalki erabiltzen dabez: beste aldekoak Beenaparreraz,
eta gure aldekoak Goi-naparreraz.

Goi-napar euskaldunak 50.000 dira, eta Beenaparrak 5.000.

Zuberera bizilagunez urria da, eta ango euskaldunak orañdik gitxiago: 11.000
bakarrik.

Erronkarin (Ronkal) euskera galdu da.

Ango azken euskaldun aítona zaarra oraín 5 urte il zan.

Tamalgarri da esatea, baiña egiarentzat zorretan gagoz, eta Ipar-Euskadiko
Euskera larri ta estu dabil bizirik irauteko. Euskaltzaindiak oraintsu argitaratu duan
El Libro Blanco del Euskera" k diño: "la presión de la lengua oficial (el francés) ha

hecho recular al viejo euskara hasta el punto de que se tema seriamente por su suerte como lengua viva y popular". p. 145.

Bizkaieraz	200.000
Gipuzkoeraz	200.000
Goi-naparreraz	50.000
Beenaparreraz	55.000
Lapurteraz	22.000
Zu bereraz	11.000
Guztiz	538.000 euskaldun

Mapa au, eta zenbaki (dato) oneik begien aurrean eukirik zera ikasi bear dogu:

Orain eun urte euskeraz egiten ebenak eunetik 52 ziran.

Gaur euskeraz dakigunak eta egiten dogunak eunetik 22 bakarrik gara.

Euskera atzeraka doa, eta gure arteko burrukak itxita, euskaldun guztiok euskararen alde jator jokatu bear dogu.

Osterantzean euskera ilgo da.

Frankoren diktadurapean, euskaldunak (zaar eta gazteak) "h" bai eta "h" ez, lotsagarrizko burrukan ibilli gara.

Zuok 15-20 urteko gazteok ez zaitzeze gure antzera burrukan

Nok daukan arrazoia zuok ikusi.

Auzi au zuok garbitzeko dato-zenbaki oneik emoten deusuedaz:

450.000 euskaldunek ez dabe "h" erabiltzen.

98.000 euskaldunek "h" erabiltzen dabe. Zuok erabagi.

Goikoetxea'tar Iñaki.

"Diario Vasco" n, 1989 gn. Loreila'ren 3Van
Paco Aristi'k Jexus Gaztañaga'ri egindako elkar-ízketa

JESUS GAZTANAGA'K EZ DU ETSI

"Jende askoren zapuzketa eka i duen bidea izan duk Euskaltzaindiarena"

Jexus Gaztañaga Asteasun jaioa dogu.

Apaiza Aizaman egon ondoren, 14 urte daramatza E ezilen. Ondo ezagutzen du beraz xe i -tikietako euskalduna, kezka piska bat u unxeago doaz, euskera gure izkuntzaren erremuetaraino, eta batez ere euskara batua sortzen den muga ez ain u uneraino. 1979'an Euzkerazaintza sortu zuten, Euskaltzaindiaren aurka-ko akademia paraleloa, euzkera e ikoi eta naturalago bat reibindikatuaz, itzegiten den bezela idazten dena, "H" rik gabea etabar.

Joera onartu eta oroko aren aurka doaz, zenbaiten eritziz ezjakiñei bidea e azteko besterik balio ez duen euzkera baten alde. Gutxi dira eta baztertu xama ak sentitzen dira, euren ereduak ez du lekurik ikastoletan, laguntza u iak dituzte, baña bizirik diraute komentzimenduz eta lanerako gogoaz. Denborak a razoia emango diela uste du Jexus Gaztañagak.

-Esplika ezazu Euzkerazaintzaren soñera eta bere filosofia.

-Euzkerazaintza, izenak berak adierazten du zaintzeko alderdi ori. Euskaltzaindiaren aurka bezela sortua duk. Euzkera batuaren leen bileren ogei urte burura Bergaran beste bilera batzuk ospatu ituen, zer lan egin ziren aztertzeko. Aldez au etik prestatuak zeuden bilera ayek, beraiek (Euskaltzaindiakoek) nai zituztenak agertzeko. Euzkerazaintzako batzuk joan ituen galderekin, eskakizunekin, gauzak beste era batera eraman naian, eta an esan ziten, gauzak orela baldin badaude Euskaltzaindia ez da euzkera osoaren euskaltzaindia, baizik batua orena baka ik, gañontzeko guzia bazte era utziaz. Beste talde bat sortuko degu, euzkera euskera biziaren alderdi guzien zuzpertzale izateko.

Ain gaizki' egin al ditu gauzak Euskaltzaindiak?

-Gauza guziak ondo egin dituela esango dik, baña guziak ez zaizkiguk ondo iruditu, batez ere batasunaren inguruakoak.

Guziok elkar ulertzeko bideak egin eta bateratu bearra dagoela itsuak ere ikusten dik. Orain, ori egiteko bideak era askotakoak izan zitezkean, eta egin zitekean astiro astiro, inor mindu gabe eta abar, eta gure ustez, askoren ustez, jende askoren zapuzketa eka ri izan duen bidea izan duk Euskaltzaindiarena.

-Presaka egindako gauza bat al da batua?

-Erreboluzioa ez duk kontuz kontuz egiten den gauza bat izaten, leen dagoer na puskatu egiten duk eta beste zerbait ja i. Politikan o ela jokatu dela ez zio ukatzerik. O ekin batera izkuntzaren bu uka ere ortxe sortu uen. Euzkal-E ian,

erreboluzio bu uka ere euzkeraren alo era eraman ziten, leengoak zaa ak dira, leengoak atzerakoiak dira, ori autsi egin bear da, esan ziten, eta beria sortu. O ekin, jato iz euzkaldun diren asko mindu egin ituen, eta oyen artean sartzen nauk ni ere, eta Euzkerazaintzan dauden besteak. Gure izkuntzak desberdintasun aundiak dizkik e i batetik bestera. Berezitasun oyeak sortu dira artuemanik ezean, eta bateratzea, berdintzea, o ek eto i bear dik elka en artuemanetatik, eta elkar ezagutzetik. I atietan ikusi da ori. Garai batetik bizkaiera Gipuzkoan asko entzuten duk, A ate i atiaren bidez. O ek ez dik esan nai segituan bizkaieraz itzegiten asiko garenik, baña elka en be i entzun, ara joan, ona eto i, a eman gehago izan bertsolariekin, bidea ori duk.

-Zein lan egiten dezue akademiaren ba ruan?

- Batetik, e i-akademia denez euzkerea bizia, euzkera itzegiña, joera duk gipuzkera artu eta bizkaiera ere piska bat zabaldu, eta alderantziz, elka en be i jakiñez, eta joera ortako ekintza batzuk egin genizkian ikastoletarako. Liburu batzuk itzuli genituenean ere, aditza batzutan bizkaierakoa genian artean, gipuzkeraz ari zenak bizkaiera ere uler zezan.

-Ez al zerate piska bat baztertuta sentitzen?

- Dударik gabe, bidea Euskaltzaindiarena de la onartuta zegok, ori de la erakunde ofiziala, leendik zekarkin itzalarekin.

Joxeba A egiri esan nioan, oso itzulpen txak egiten dituztela Euskaltzaindia inguruan, baña be iz ere ayei ematen zietela dirua. Proba egin dezagun, laguntza bera eman iezaiozue Euskaltzaindiari eta Euzkerazaíntzari eta ikusiko degu ea zeñek obeto egiten duen. eta batez ere jendearen artean zeñek a era obeagoa duen.

-Euzkal base rita rak zein akats ditu?

-Bat ezjakintasuna. Guk zerbait ikasi badegu izan duk base itik atera giñelako. Base in bertan ikastea izuga i zala duk. Nekazaritzan bizi dena egunero mila gauza eskuartearen dituela bizi duk. Txikitatik asten dan base ita a eskolaren au ean esaten, ori dena zertarako, nik emen naiko lana ez al daukat bada?

Leenago gañera oso minga ia zena, base ita ak eskolara joan eta eskolan maixu maistra erdaldunek tontotzat jotzea. Leen nekazaritzatik ikasterako pauso ori zala baldin bada, bi alakoz edo geiagoz zaildu egiten ziaten. Elkartasuna ere oso ga antzi aundikoa duk, baña elkar artea oso zala zaiok base ita ari. Garai batean bizitzeko bear ziren jan eta jantzi eta dena zenbait etxetan bertan egiten uen, pentsazak zer askatasun ematen zuen besteen bea ik gabe bizitzeko.

-Zer eskatuko zenioke Euzko Jaurlaritzari?

-Euzkera bizia eta au ekoengandik dato ena, ori zuzperten eta ori indartzen aalegin izuga ikoa egin bea a dagoela. Txikitatik, euzkera eranskin bat ez, baizik bizi dutena eta ba utik sortuko zaiena izan dadin, batua gerorako utzi bear litzake eta txikitatik beintzat beste era batera jokatu, euzkera biziari ga antzi geiago emanez. Orduak eta orduak guk erderaz ortografiarekin nazkatzeraiño jarduten ginuan, ortografiatzko arauak eta ikasten. Orain euzkal umeei gauza berdiña egi-

ten zietek. Ge a ondoren gure pozbiderik aundienetako bat uen erderaz ortografia ikasi eziñik ibiltzen giñen bezela euzkeraz oso e eza zela, esaten den bezela idatzi eta idazten den bezela iraku i. Jaurlaritzak beste era batera aztertu bearko luke, ez "bein batua egin degu eta au au era atera bear degu kosta ala kosta" esan.

Denborak arazoia emango ote?

P.A.

Urtean miloi eta be eun mila pezetetako subentzioa jasotzen dute, akademia bati eusteko naiko u ia den dirua. Badirudi bizitza labu eko akademia baten au ean gaudela, ja aitzailerik ezean gaurko partaideekin batera ilko dena, baña Jexus Gaztañagak ez du ori uste. "Diru laguntza geiagorik ez dela aalmen aundirik ere ez zeukagu lanerako. Bazekiagu erabat giroaren aurka ari garela, a o a o esaten ditek: irabazi dugu. Frankoren denboran ere Frankok irabaz egin zuela esaten zuen, bai, baña ixil ixilik segi eta segi eginda, denborak erakutsi zuen ez zuela ark a azoi. Irabazi zuen, zapaldu gintuen baña ez zuen ark a azoirik. Arazo onetan gauza bera pentsatzen diagu. Orain, oso zala duk giroaren kontra lana egiten jardutea".

OPINIONES DE ESCRITORES CASTELLANOS

Pocos hombres han sido tan sensibles al peligro de muerte que para la vida de la Euskera real supone la invención e implantación de un Batua artificial como los grandes Académicos de la Española Srs. Menéndez Pidal y Tovar. Conocida ya la opinión de Menéndez Pidal, conozcamos la de D. ANTONIO TOVAR seguramente el filólogo más citado, cuando de problemas de la Euskera se trata en las revistas mundiales de filología. Dice así el ilustre Profesor y Académico :

—"Se quiere imponer la letra H que en realidad solamente pronuncia una sexta parte (1 /6) de los vascos-parlantes.

—"No hay recelo alguno para tomar de la castellano todas las palabras que hagan falta sin buscar neologismos ni aún aceptar los ya propuestos formados con puras raíces vascas" ¿Quién dijo que los filólogos fueran enemigos de neologismos?).

—"Se quiere prescindir de todo de los dialectos borrándoles en caso necesario de los labios de los niños vasco-parlantes auténticos. (He subrayado yo).

—(Se quiere en la ortografía evitar el uso de los signos " ñ" y " ll" que suenan como en el castellano"

—"El batua funciona como un instrumento político".

—"Mi amigo D. Angel Irigaray académico de Euskaltzaindia manifiesta que la unificación no se puede imponer de un golpe y sin consideración a los dialectos y a las opiniones. Ese batua no es aceptado por los vascos del norte de los Pirineos".

—"El trabajo de conservación y restauración de la lengua vasca viva exige mucha discreción y prudencia; antiguas virtudes vascas que hoy están ocultas incluso cuando se roza la gramática por los gestos, gritos y violencia". (Diario Vasco 26-VI-70. Vuelvo a subrayar yo).

También ha calado a la perfección el Profesor Tovar en el transcurso de "el batua". Es verdaderamente certera la frase que en las Jornadas de Lejona pronunció:

"El camino de la paz en las Provincias Vascas pasa tanto por la propia política como por la política lingüística" (1).

(1) Tovar acaba de mencionarnos la "H". Quiero hacerte lector una primera presentación de la estimación que esta letra le merecía de D Miguel Unamuno:

"¡Fuera las haches. La H es el absurdo la reacción la autoridad la Edad Media el retroceso ¡Guerra a la hache! Hay que escribir en castellano con ortografía fonética " escribí D. Miguel (" Niebla ". Obras completas. Barcelona 1969 pag. 668).

"El batua" sin embargo está plagado de Haches. Basta echar una ojeada a cualquier escrito "batua" para darse cuenta de ello. El lector ha visto una prueba cuando se le ha informado en páginas anteriores de la desproporción del número de Haches en las versiones castellana y vasca de un mismo escrito oficial. Pero el mérito de haber hecho una estadística más completa corre

MIGUEL UNAMUNO.- En una carta dirigida a la R. Academia Española dice que "en rigor todas las haches son innecesarias".- Dice que "hay eruditos retrógados que merecen que se les llame hheruditos con la hache aspirada -que escribo doble- o si se quiere JERUDITOS". Tue un hherudito de estos aspirado quien sin duda hizo que la R. Academia -o Hhacademia- de la lengua introdujese la h que se había con razón perdido de armonía".- Están machacando y estropeando la lengua con pedanterías del siglo XVII y giros y vocablos muertos y bien muertos" (2).

JULIO CARO BAROJA.- Académico de Honor de Euskaltzaindia. Investigador de la Etnología Vasca: "La letra H no tiene justificación en lengua no romance" (3).

FRANCESC DE B. MOLL.- De L Institut d'Estudis Catalans: "Los problemas que tienen los vascos con la H coinciden en parte con los problemas que tuvimos en la lengua catalana. Sobre la H mi opinión personal es esta: lástima que no consigan evitarla si todavía están a tiempo". (4).

MANUEL RAMIRO VALDERRAMA.- Escritor y profesor: "Hoy es general el convencimiento de que muchas lenguas están llenas de complicaciones innecesarias y de redundancias "antieconómicas". Citaré unos hechos muy significativos:

1.- Las lenguas artificiales que se han creado en el mundo a partir del siglo pasado son todas un intento de racionalizar un sistema expresivo que pudiera ser aceptado por todos como una lengua universal. Una de estas lenguas -el esperanto- ha sido la de más difusión; pues bien se sabe que la adecuación de la "ortografía y fonación" es un principio de simplificación que todos esos intentos universales han tenido en cuenta.

"2.- La Ley del WENOR ESFUERZO" es de permanente vigencia en la historia de las lenguas.

"3.- Las innovaciones iniciadas en Inglaterra y Norteamérica en cuanto se

ponde al químico saimantino D. Juan Carlos López, venido a Euzkadi el año pasado (1981) para aprender el Euskera. En la ikastola de "batuistas" en que se matriculó, al Dr. López naturalmente, le enseñaron "el batua". Acostumbrado como químico al análisis de los elementos de las cosas que trata. el Sr. López se puso a analizar cuántas veces entraba la "H" en relación con las otras letras en un escrito batustano de 603 palabras. Quiero llamar la atención del lector a fin de que se percate de que 603 palabras son Ioda una lengua". Son el número de palabras que hasta ahora han empleado la mayoría de los parlamentarios españoles en sus intervenciones parlamentarias, (el que más ha empleado son 700; el que menos no llega a 500). Pues bien: el Sr. López señaló en un gráfico el resultado de sus análisis. gráfico que me ha sido mostrado por el P Mauro Elizondo Abad benedictino de Estibaliz. Según ese gráfico la H es una de las cuatro letras más empleadas; la letra más empleada es la B y luego la E y en tercer lugar, empatadas, la A y la H. Después a respetable distancia viene la G y la L y a continuación -de más a menos— la Z. la O la P y menos empleadas aún las siguientes: N K S D, U T X, y F siempre en orden descendente. Consecuencia: que los batustanos están ellos atiborrados de Haches y nos han hinchado de Haches al Euskera. ¡Hachetitis!

(2) En la versión euskérica al transcribir las citadas frases de Unamuno incurrimos inadvertidamente en una grave errata. Como compensación en el apéndice de este libro publicamos íntegra toda la carta de D. Miguel.

(3) Citado por Labayen: "Sasi Batasuna" pág. 8

(4) Carta a Antonio M a Labayen de 9 de junio de 1976.

consoliden significaran una auténtica revolución para la lengua inglesa tan necesitada como la francesa de actualización. (5).

"No creo que sea necesario seguir argumentando con citas más o menos eruditas. Creo que el sentido común es el mejor juez de este problema. ¿Hay argumento de más validez universal que el que se basa en la perfecta inutilidad de la grafía "H" sin ninguna correspondencia fonética en nuestro sistema? La supresión de lo manifiestamente inútil es un favor que se hace a la humanidad y un argumento educativo; las jóvenes generaciones tendrían así un motivo para estar agradecidos a la coherencia de los adultos. ¿Qué entelequias de etimología pueden justificar ante una inteligencia necesitada de coherencia intrínseca la permanencia de una grafía "muda"? Supongo yo que no resultará menos fuera de lugar que un león disecado en el foso de un zoo. Conservar los valores del pasado sí es defender la cultura. Querer mantener la pacotilla apolillada es otra cosa muy distinta. Creo que no se puede decir mucho más en favor de una causa obvia: la desmitificación de la "H" ídolo de barro de la pseudocultura ortográfica cuya justificación etimológica se limita a su presencia en un museo de antigüedades apto sólo para eruditos" (6).

B. Latiegi
1985

(5) Efectivamente existe un movimiento en pro de la simplificación de la lengua inglesa; promotor destacado en Londres es el profesor Mr. Pittman. El movimiento se ha extendido a Norteamérica así los anuncios luminosos que en las Avenidas de Nueva York que antes aparecían como NIGHT CLUB ahora aparecen como NITE CLUB. con la letra H suprimida

(6) Carta de Valderrama (4-VI-78) a D. Dionisio de Oñatibia.

ITXARTU ZAITEZE

Euskerea egoera larrian dagoala, gauza agiria da ikusi gura daglanarentzat. Leku guztietan, baiña Bizkaía'n batez be. Ames egin genduan igarotako aldietan, egunen baten gure eskoletan indarrez irakasten euskuen ízkuntz arrotza, gure ordua etorrita, amaituko zala beín betiko.

Oker gengozan, baiña. Abertzaletasunak lortutako errí-erakundeek, Bizkaia'n, baita beste lekutan be, erriarena ez dan izkuntza nai-ta-ez jarri dauskue. Eta au negargarriagoa da, benetan, geure Jaurlaritzak eta beste erri-erakundeak errudun diranean. Gaur, Bizkaia'n (gitxi batzuk ezik), umeek ez dabe ikasten euren inguruko euskerea, beste bat baiño. Umea euskaldun jatorra ba'da, ezin dagike erabili etxean berbeta ori, eta onen ondorioz, etxean erderaz diardue. Erdelduna ba'da, ikasten dauan euskerea ezin darabilke euskaldun erritarrekin. El Batuan" irakatsiriko umeak ez dau iñongo eretik jarduteko benetako euskaldunekin. Bada beste zerbait asarratzen gaituena, eta auxe: Gure 'Selebista" edo obeto esateko Ikustirratían, ez da iñoiz bizkaierarik erabilten. Bizkaiera zapuztua, aztua da, eta bizkaitarren diruak bizkaiera lurperatzeko erabilten dira.

Onen ondorioz, bizkaiera aldatz beera doa etenbarik baserrietan txokoratuta (ez dakigu noiz arte, baiña ez luzarorako). Bizkia'n agertzen diran legezko aginduak, iragarkiak, oarrak etab. erritarrek ulertzen ez daben euskeraz kaleratzen dira, eta zer diñoen jakiteko, erderara jo bear dogu. Egunerokoak, aldizkariak, buruak, iñork irakurten ez dauan euskalkeriaz idatzita eskintzen dauskuez. Nora goaz euskaldunok...? Badirudi, gure agintariek azken zentzun-apurra galdu dabela. Nora garoez bide orretatik...? Ez al-da ordua, euskerarekiko maitasunez aztertu dagien BENETAN, nora garoezan orain artean erabilitako bideak...?

Ama euskera geisorik datza kinka larrian, eta osatzeko, asmakeri kaltegarria dan osabide bat nai-ta-ez iruntsi-erazoten dautsoe, alde batera jaurtita bereberea dan euskera osasungarria. Gutariko idazle argi batek esan dau, asken amar urteotan, euskereak Franco'ren berrogei urteetan baiño atzerakada andia- goa egin daua. Izan be, berarekin bat nator. Bizkaia'n erri-euskerea galdu daitenean, zer egingo dabe gaurregun euskereaz jabetu diranak...? Egunen baten gure erriak garbiketak edo erantzukizunak eskatutako dautsez, euskerearen ugallak darabillezanai. Zoritxarrez, baiña, orduko negarrek ez dabe bizitzara ekarriko erail eben asabakandik artutako euskera ederra.

Negargarria da, euskerearen iraupena galtzori gorrian dagoanean, orren arin eta zoro jokatzea. Baiña bada negargarriagoa dan beste egi bat: bizkaitarrok darabilgun zabartasun eta ardura-eza ondapen orren aurrean. Mingarria da egiztatzea zelako ardurabagekeriz begiztatzen dogun gure izkuntzaren ondapena. Itzegira daroezen bildotsak lez jokatzen dogu. Gizajo iñuzenteak lez, gure baserrietan euskera ostentzen danean, beste baten eríotza bai'litzan bake betean gagoz, orrek gurekin zerikusirik ez bai'leuan. Are txarrago oraindiño: bizkaitar asko ta asko aalegintzen da "genocidio" edo erailketa onetan, eta tartekoa da iñongo arrenkura barik, asabakandik jarautsiriko euskerea bere eskuakaz erailten daua.

Oñazez autortu bear da, geurok, bizkaitarrok, euskerearen ondapenean errudun gareala. Batzuk, eskusartze andia dabelako euskal-politika zoro orretan, edota beste batzuk, gure euskalkiaren eriotza ikusita, arduaezik andienaz eta isil- isillik, ez dabe ezer egiten erailketa orí eragozteko. Benetako euskaldunak ba'gin-

tzaz, edonon ikusten dogun jokaera negargarri ori, ez litzake jazoko. Baiña lotan gagoz, lozorroan, ain zuzen be, eta olan jarraitzekotan, itxartu orduko beranduegi izando da.

Augaitik, "ZER" aldizkari onetatik dei bizi bat egiten dautset euskaldun guztiai, eta bizkaitarrai batez be, euren erri-euskerearen alde jokatu dagien sendo ta zindo. Norberaren inguruan euskerearen aldeko arrenkurea erein dagien, eta aal dagien zabalkunderik andiena egiñez, euskaldunak itxartu daitezen. Baiña auxe batez be: eragintza au sendotzeko, euren eritxiak idazlanen bidez agertu dagiezan. Aalegindu gaitezen illero-illero gure erri-euskerearen alde, idazlan bat argitaratzeko aidizkari onetan. Ez dakit noraiño garoezen euskerearen erantzukizuna dabenek, baiña etorkiak esan bei, txokoratuak ízan arren, bazirala erri-euskerearen alde jagi ziran euskaldunak.

Euskaltzaleok, itzartu zaiteze...!

Zubiri'tar Iñaki

BIZKAIERA

Azken ogeita zazpi urte onetan Euskalerriko zazpi probintzietako 22 baserritan nabil, itzak, esakerak eta atsotitzak biltzen. Zuberoako Larrinetik asi eta bizkaiko Zeanuriraiño. Bai zoragarria eguzkiz eguzki beti euskeraz egiten deben baserritarren euskera! Ez dago inongo euskera guttiesterik.

Alere, eskal egiturari begira (alderdi fonikoak eta lexikoak ez dabe orrenbeste-ko garrantziarik) euskerarik onena bizkaieraz egiten dala esan bear da. Batez ere Mondragoi, Aretxabaleta, Ezkoriaza, Aramaio, Oñati eta erri orreen inguruetan.

Orko euskerak baditu ia bizkaieraren alderdi on guztiak eta orren gaiñetik beste batzuk. Beraxe da gutxien erromanizatua dagoan euskera.

Bizkaieraz gipuzkerak baiño askoz obeto bereizten ditu:

Erreflexiboak (neure, zeure...), intensiboak (neu, zeu...), erakusleak (adiskide maiteok), konpletibak -na/-la (etorri dana badaki / etorri daia esan dau), eta -la/-nik (etorri dala usten dot / Ez dot usten etorri danik).

Konjuntzioak oso ederki ipinzen dira bizkaieraz azkenean: "Nik ori ekarri arren". "Nik esan neutsan baña". "Ník esan neutsan barren!" (= bai arren). %ahiz ori ekarri" askoz erdaldunago da.

Bizkaieraz oso ondo bereizten dira iñor / beste. Iñor besteak orokorki da. Beste jazargoan erabiltzen da: "Ori iñoren lepotik bizitzeko ona!". "Batzuk onak dira, besteak txarrak".

Oso diferente dira bizkaieraz "Etxe baten egon naz" eta "Etxe batean ondo eta bestean txarto dagoz".

Bizkaieraz biziki ongi bereizten dira bere / bera(re)n. "Amak bere umia maite dau. Bera(re)n aítzak ez. Latinez ere orrela: Water filium suum amat; illius.soror non amat eum".

Eta zer du Mondragoi-Oñati inguruetako euskerak beste tokietako bizkaierak, Markiñakoak, adibidez, ez dauana?

Etengabe erabiltzen dabezen aditz-sustantibo moldeak. Moldeok euskararen usain ona dabe eta batzuk beste euskalki guztietan galdu egin dira.

"Adiketán dot", "pentsaketan dabe", "zainketan dogu", "ifinitzu esnea beroketan", "ondo geldiketarren", "illunkeran", "ezkondukeran", "jokeran", "alabetan dozu", "batonbatek bere burua abonetan badau", "asko kostetan dau", "gomutetan naz", "preguntien joaten da Erromara" eta orren antzeko moldeak sustantibo moldeak dira.

Guk "aditzen dut", "pentsatzen dut", "ihni zazu esnea berotzen", "ondo geldítzearren", "ezkontzean", "preguntatuz" esaten dogu. Gure moldeok erromanizatuago dira.

-keta sustantibo molde orreetatik guri banaka batzuk bakarrik gelditu jakuz: "Urketan da". "orrazketan diardu" eta orren antzekoak. Ez gerundionaren ordekoak egiteko, baina.

Aramaio, Mondragoi, Oñati inguruetako euskerak, beraz, Gipuzkoako alderdi onak, Bizkaiko molde paragabeak eta orreetaz gainera eskualde orretan bakarrik aurkitzen diren berezitasun aberasgarriak ditu.

Batzuei belarrietarako zakar eta basati idurituko jake. Amazonasko oianak bere baratzetxo ondo zainduak baino zakarragoak eta basagoak dira. Bai eta askoz zoragarriagoak bere.

Gotzon Garate
1995

NON ITZITEN ZAITUE, BIZKAI'KO EUKKERA MAITE ORI?

Urte onetako Loraila'ren lenengo egunetariko bat izan zan. Azpaldiko adizkide bat il zala jakin nebanean, Bilbo inguruetakoko erri baten eta bere aldean egin ziren eleizkizunetara joatea arabaki neban.

Ia beti jazoten dan lez, an be, ainbat lagunzarrekaz aurkitu nintzan eta barrieketa batzuk egin ondoren Meza-Santua entzutera Eleizan sartu gihan. Geienetan, olako Done-egintzatara joaten garanean, illaren senditarrak ain atsekabetuta ikusirik, gu be, apur bat baño ezpada be, samindu egiten gara eta, an be, zelan ez, orixe jazo jakun. Laukiz'tar nire adizkide zintzo dan bat izan neban lagunzat eleiz barruan eta arin poztu ziren gure biotzak, Mesa-emolleak esaten ebana entzutean eta, batez be, ain Bizkai'ko euzkalki eder, garbi eta ulerkorrean mintzatzen zala entzun ondoren. Mezea amaitu ondoren, eleizpera urten eta, antxe, adizkide taldetxu bategaz barrieketan gengozala, esandako Masa-emollea, gure ondo-ondotik igaro zan.

Juzturi bat baño ariñago beraganatu gihan eta biotz barrenbarrenetik zoriondu genduan, ain Euzkera ederrean berba egin ebalako.

Gu, egia esan, ez gara besterik euzkaldun apal edo umil batzuk baño, baño lazter konturatzen gara, gure inguruetan dabillenagaz eta zuri danari, zuri eta baltz danari, baltz deitzen ikasi dogu. Ez dogu aini erre, "ugazabak" diñola ta, bai esango, EZ esan bear dala uste dogunean. Eta, gure uztez, Bizkaian BIZKAI'KO EUZKERA EGIN BEAR DOGULA DINO GUNEAN, orixe dala biderik egokiena, ziur gagozelako, diñogu.

Euzkerea zaindu eta aurrera atarateko ERRIAK, BERAK, EGITEN DAUEN IKZUNTZA ULERKOR ETA ERREZA EGIN BEAR DOGU. Nik esan bearrik ez dago, ba, Euzkera maite dauen edozeiñek, itsu edo gor jarraitu gura dabean batzuk izan ezik, argi ikusten dau, ORTXE, abade ta lekaide eliz-gizonen artean dagozela, Euzkera zaindari eta zabaltzallerik zintzo eta ziurren geienak. Zori onez, ba-dogu ondiño Bizkaia'n gure euzkalkia maite, landu eta zabaltzeko zintzozintzo diren abade asko eta, ZIUR EGON, eurek dira, zati edo alde aundienatariko baten, gure ele edo izkuntza maitearen jagole ta gaizkatzalleak.

Gomutatzen naz ondiño, euzkaldun aini ospetsu eta jakintzua zan KOLDO MITXELENA il-barri izan zanean, zelan JOSEBA ARREGI'K egin ebazan azalpen batzuen artean, auxe esan ebalako: "ABANDERADO EN LA PUESTA EN MARCHA DEL BATUA, KOLDO AVISO DE LOS POSIBLES PELIGROS QUE PUDIERA TENER LA LENGUA, SI PERDIA EL CONTACTO CON SUS PROPIAS RAICES, LOS DIALECTOS".

Koldo'k ori esan ba eban eta beste Ludi'ko izkuntzalari ospetsuenak beste orren beste esaten ba dabe, zer egin dabe eta egiten jarraitzen dabe gure Euzko-politikari, gure Euzkoerakundeak eta Euzko-kulturari (JAKINTZA'N, esango neuke nik) sartuta dabilten agintari eta irakasle jakintzuok?

Gure errian agintari on asko izan dogu eta doguz oraingo aldietan be eta emen

garanen sentzundun biztanle guztien artean, ez litzake aiñ errez izango, egin diren gauzak txarto dagozela baieztuko leukenik, ba nire uztez, ainbat gauza egin da, eta danak ondo-ondo egin ez padira be, ondo dagozenak txalotu eta goratu egin bear dauz gizon zuzen edo deduzko dan edozeñek.

Beste alde batetik, ba doguz gure errian, zori txarrez, bertako dírenak eta atzeritik etorri jakuzenen artean be, ainbat amurrutuak diren arerioak. Orrek iñoz be ez dautzue esango, guk gauza onik egiten dogula.

Ba dagoz zorionez, kanpotik etorritakoen artean mordo andiak be, Euzka~di'ren alde zintzo jokatzin dabenak.

Euzkadí'n, zergak, emen bizi garen guztien lepoetara etorten jakuz baña bide orreitatik batzen diren dirutzak, zati andi baten beintzat, ba~dakigu norako bideak artzen dabezan.

Sarritan irakurten doguz DEIA'n "Cartas al Director" atalean argitaratu eta ain atsegingarri izaten diren eskutitzak.

Esate baterako, joan dan Loraila'ren 10gnean., **SORNE URIARTE URIARTE**'K. "Utz zaitetz guztien ondasunak eroaten" idazburutzat arturik esan ebanana da, Euzkera dabillen bideko ondore lotzagarrizko bat.

Orrelako asko irakurten dogu azpaldian, baña ez dogu iñondik ikusten okerkeri orrek zuzentzeko borondate onik. **BA DABE GURE AGINTARIAK NON LAN EGIN ETA GARBITZEN ALEGINDU, TXOMIN-BEDARTZAKAZ ONDATUTA DAGOZEN GURE LURRALDERIK GEIENAK.**

Mitxelena eta Ludi guztiko izkuntzalaririk geien eta ospetsuenak, euzkalkien alde ba dagoz, nortzuk dira Bizkaí'ko euzkerearen aurka dabiltzen buru gogor eta sasi-izkuntzalari eta euzkal-akademikoak?...

Itxartu zaiz euzkotarra... iñoan antziñako abesti batek.

Lan onak egiteko edo egiterakoan..., iñoz be ez dala berandu siñestu bear dogu. Eta geltoki edo egazkin-zelai baten, bultzia edo egazkiña artu bear ba'dogu, sasoíz joan bear gara.

Esandako orrek, egzitzat artu ezkeru..., ez dakit ba, berandu ibilliko ete garen. Dana dala, gure erriak eipatuko galfu eta... lotsagarri izango da errudun izendatua izana.

Kepa

DEUSTU'KO IKASTETXE NAGUSIAN MAI-INGURUA

(BIZKAI'KO EUSKAREA GAI DALA)

Abenduaren amabigarren egunean, Deustu'ko Ikastetxe Nagusian Mai-Inguru oargarri bat izan zan, Bizkai'ko euskerea gai zala. Ekintza au gertatu eta antolatu ebenai esker ona agertzen dautsegu idazki onen bidez.

Maiaren eratzañlle Patxi Altuna aita josulaguna izan zan. Zeatz eta zorrotz egin eban bere lana, naizta enreza izan ez. Eta erreza ez zala izan esan bear, kidekoak asko izan ziralako eta esanbearrak edo esangurak be ez gitxi.

Patxi'ren eskerreskuman beste sei maí-kide izan ziran eta bakoitxari amar minutu emon jakozan bere gai-arloa azaltzeko. Gero guztientzat itaun bat eta maian ez egozanan itaunak.

Joseba Lakarra'k: Bizkaierea len zelakoa izan zan azaldu eban. Jakiña dan arazo erantzun bako bat: Euskalkiak euskera batetik sortuak diran eta alkarragandik urrintzen doazen ala asieratik ezbarðiñak izan eta alkartzera doazen. Gefenak uste dabenez, euskera batetik sortuak dirala esan eban. Gero Araba'ko euskerearen arazoa aztertu eta euskalkien balioa otzitu egin eban, euskera osoarena berotzeko. Emen esan eban olako zerbait: "Bizkaiko euskalkia galdu arren ajolarik ez, euskereak bizirik urten ezkeru".

Alfonso Irigoien'ek: Lenagoko idazkiai buruz egin eban berba, antxiñako kristiñau-ikasbideetatik asi eta gaur arte. Batua ez doala, esan eban, euskalkien aurka, baiña berak batuz egin eban berba.

Abel Muníategi'k: Bizkai'ko euskereak erri-zaíntza edo "administraziñoa" n daukan lekua aztertu eban, maílla ezbarðiñak kontuan artuta: laterri-erakundee-tan, Jabetzadun Alkartearenetan, eskualdekoetan eta Aldundi-maíllan, Udale-txeetan, gudarostearen erakundean, epaitegietan... Batzutan erabilten da Bizkai'ko euskerea, baiña gitxi eta bizkaierez idazten daben Udal-Batzak be ez dira asko, Bermeo'koa ta besteren bat.

Erroman Berriozabal'ek: Euskalkien eta batuaren arteko goraberak aztertu ebazan. Erabillera erreza indartu bear da eta euskalkia ondo ezagutzen danean sartu batura. Batua ez dago euskalkien aurka eta au sarritan entzuten dan gauze izan anen. bizkaiko euskerea ez da arloteen izkuntza.

Laura Uruburu'k: Ikastegietan bizkaierea zelan dagoan aztertu eban eta jokera bí agertzen dirala esan eban, gitxiengoaren jokera dana bizkaierez irakasten dabenena eta geiengoarena dana batuz irakas[en] dabenena. Arlo orretara politikajokoa be sartu da eta bizkaierea erabiltea atzerakuntza lez agertzen dabela batzuk eta alderdi politiko bateri ezarri, batua erabiltea oster aurrerakuntza lez agertu eta beste alderdi bateri ezarten jakola. Ikastegi batzutan txiki-txikitatik beartzen dira umeak batuz berba egitera. Itzaldi labor onen ostean entzun ziran lenengo txaloak.

Igone Etxebarria'k: Bizkaíerea Euskal Irrati ta Telebistan zelan dagoan agertu eban. Oneri be txaloak jo jakozan azkenean. Ederto egin eban berba.

Eratzañillea ta seirak batera kontuan artuta. zazpiretatik lau izan ziran bizkaierez berba egin ebenak eta iruk egin eben batuz edo gipuzkoeraz.

Ez dogu edesti au amaitu bearko, beste au esan barik: Entzuleak asko izan zirala, bear ba'da irureun inguru, eta geienak gazteak.

Giroa oso ona izan zan baiña maikideai azkenengo itauna egin jakenean, Bizkaierearen naiz euskera osoaren etorkizuna zelakoa ikusten eben izan zan galdera, geienak etorkizun illuna ikusten eben, Patxi Altuna bera agertu zan oso baiezkor.

Eta entzuleen itaunen artean gauza jakingarriak izan ziran. Guztiak aitatu ezin diran ezkerero, bat gogoratuko dogu: Bizkai'ko euskereak aurrera egitea nai ba'dogu idatzi egin bear dala bizkaieraz. Ez dogu egokitzat artzen bizkaitar askok artu dauan jokabidea, euren idazlanak (aldizkarietan, liburuetan...) batuz beti agertzea.

**Olazar'tar Martin'ek
"ZER" 1992**

EUSKO LEGE-BILTZARRARI

(Becerro de Bengoa kalea)
01005 - GASTEIZ - VITORIA

Agiri au izenpetzen dogun Bizkai'ko naiz beste errialdeetako euskaltzaleok; Bizkai'ko Euskereak errialdeetako euskaltzaleok, Bizkai'ko Euskereak daukan egoeraz arduratuta, eskabide au eldu erazo gula dautsagu Eusko Legebiltzarrari bizkaitarron eta euskaldun guztion ondarea dan bizkaierari bere babesia eta itzala emon dagion.

Izan be tamalgarri deritxogu bizkaiereak bizkaiko bizitza agirian daroan egoerari, iñongo autorpen barik. Bizkaiko erakundeetatik kanpora, udal eta errietako administrazio geienetan bazturtuta eta azkenengoz baiña ez azken lekuan, bere aldeko iñongo politika ofizial barik.

Bizkaiereak beste zenbat arlotan be arrisku aundia ba-dau: irakaskuntzan, komunikabideetan eta abar. Baiña erakundeen aldetik jasotzen dauan jokabideak, au da, bizkaiko erritarrek euren izkerea baliotuta ez baiña bastertuta ikus-teak, urritu egiten dau bizkaitarren estimazioa eta erderaren nagusitasuna indartzen dau.

Bizkaiera da Bizkaiko euskerea eta bizkaiera barik ez dago euskerarik Bizkaian. Euskal Erri osorako landu bear dan euskera batuak bere lekua izan leike Bizkaian, gaiñerako errialdetan legez. eta onela autortzen dautsogu izenpetzen dogunok, baiña nai ta ezko deritxogu bizkaierari leku-une bat gordetzeari.

Jakin dogunez Legebiltzarrak laster emon bear dau lege bat Bizkaiko Foru Zibilla barriro arautu eta indarrean ipintzeko. Foru zibil orrek Bizkaiko elizateetan (Arabako Laudio eta Aramaioz gain) izango dau indarra. Bizkaiko euskaldunak nagusi diran tokietan. Lege ori bizkaieraz bestelik ez dan lekuetarako danez eta gure izkereak bear bearreko dauan autorpenagaitik au da gure eskabidea:

Bizkaiko Foru Zibilla bizkaieraz atara dagiala Eusko Lege Biltzarrak.
Bilbao 1992'ko otsailla'ren 16'an.

**Izen abizenak E.N.A. Izenpea
Zer 1992**

Aurreko agiri au euskaldun askok izenpetuta bialdu zan Lege-Batzarrerara, eta agiri onetan egiten dan eskaria oso egokia dala uste dogu: Zergaitik egin bear zan euskera batuz bizkaitarrentzat diran lege zarrak dakarzan liburua? Baiña ori be sartu zan baten-baten buruan.

Dana dala, entzun dogu Lege Zar orreik bizkaieraz argitaratzeko erabagia artu dala. Antza dagoanez, zentzundunen bat izan da or bitarteko.

Bizkaitarrok olako arazoak agertzen diranean, zur eta sendo jokatu bear dogu. Naikoa eta lar izan da gure euskerearen aurka orain artean egin dana eta ez dogu itzi bear geiágo ezer egiten bide orretatik. Geure euskerea geuk zaintzen ez ba'dogu, iñok ez dau egingo lan ori.

Zur ba, Bizkaitarrok eta bizkaieraz itz egiten dozuen guztiok eta eutsi gure euskalkiari. Bizkaia'n bizkaiera galtzen ba'da, beste euskalkirik ez baturik ez da sartuko, erdereia izango da sartuko dana, len be naikoa sartuta dago-ta.

IDAZKOLAKOAK

MENDEBALDEKO EUSKERA XX MENDE GOIENEAN

Izenburu orrenpean, MENDEBALDE Euskal Kultura Alkartekoek bizkaierari buruzko egun biko jardunaldiak eratu ebezan Bilbon orrilaren 16 eta 17an. Jardunaldi orreen elburu nagusiak bizkaieraren egoerea aztertu, egokitu, prestigiatu eta beraren aldeko kontzientziak iziotutea izan ei ziran, orretara euskerea bera indartuko dalakoan.

Or, bizkaierari jagokozan lau arlo nagusi aztertu ziran, arean da:

- 1.- Agozko literatura.
- 2.- Irakaskuntzea.
- 3.- Edabideak.
- 4.- Berbetatik eredura.

Berbalariak, urrengo oneek izan ziran: Xabier Amuriza, Rikardo Badiola, Xabier Kaltzakorta, Jose Muruaga, Kepa Altonaga, Juan Euis Goikoetxea, Juan Mari Iraolagoitia, Maribi Unamuno, Igone Etxebarria, Adolfo Arejita, Eneko Barrutia eta Iñaki Gaminde, baktxari jagokon gaia jorratuteko ordu erdi emon eutsoela.

Moderatzaileak, urrenez urren: Jazinto Iturbe, Iñaki Sarriugarte, Eneko Barrutia eta Jesus Mari Txurruka. Dandanok aitatutako MENDEBALDE alkartekoak.

Entzuleen artean, besteak beste, Euskaltzaindiako euskaltzain oso batzuk egon ziran, Eusko Jaurlaritzako arduradun batzuk, euskal idazleak eta, batez be, irakaskuntzan diarduan irakasle andana. Esan bear da, entzuleek be euren eritxiak azalduteko aukerea izan ebela. Bizkaitarrak ezeze, arabarrak eta gipuzkoarrak be an izan ziran.

Entzundakoen artetik ildo nagusi bi azpimarratu bear ko litzakez. Ildook MENDEBALDE alkartearen bear arloak izango dira:

- a.- Euskera Batua bizkaieraren kutsuz txipriztindutea.
- b.- Bizkaiera estandarri gure gizartean (irakaskuntzan, edabideetan, administrazioan, kalean,...) leku egitea.

MENDEBALDE alkartea igaz sortu zan Alfonso Irigoien zuzendaritzapean, lau urteko lanulen ostean. MENDEBALDE izena imini eutsoen, bizkaieraren eremua zeozelan zeaztu gurarik, Bizkaia bakarrik ez dala adierazo gurarik edo.

Esan bear da, bizkaieraren alde bear egin gura dauanak alkartearen atear edonoiz zabal-zabalik eukiko dauazala.

Au idatzi dauana be jardunaldiotan tarteko izan zan eta joan orduko idatzitakoak gogotan artu ta eta an entzundakoak mamurtu ostean, bizkaierari buzuzko idazle onek urrengo iruzkin eta eritxi apalak zureganatu gura leukez, irakurle.

BIZKAIEREAREN NORMALKUNTZEA EUSKAL GIZARTEAN

Bizkaierak gaur egun dauazan indarra eta osasunaren barri jakiteko gizarte bizitzako arlo guztietara jo bear dogu eta bertan dauan garapena neurtu. Aurreko urteetan izan dauan bilakaerari begiratu bear deutsogu: guztiz atzerantzako eta ezkorra, erabileran ezeze, jakite mailan be. Bizkaieraren egoera kaskarra, ilteko aginean dagoana ezin dogu aaztu. Igorpena galdu edo eten egin da. Nagu-

sienak dira geien eta ía bakarrak bizkaiera erabiltzekoan. Askok ez dabe sinistuko bizkaieraren erabilerarik ezean euskerearen beraren atzerakada aundia datorrenik. Sentsibilizazio kanpainak ez dira naikoak, bestelango bide eta neurri sendoak artu bear dira, alik arinen artu be. Aaleginak aalegin, aurrera egiteko egingo doguzan urratsak beste neurri batzuetaz osotu ezean, ankamotz eta indarge lotuko dira. Izan be, administrazio, irakaskuntza eta edabideetatik, iru arlo nagusiotatik kanpo lotu da, geiagoko barik. Literaturan be, astiroago bada be, laster atean lotuko jaku. Bizkaieraren izen edo ospe galtze orrek erabileran beerakada andia ekarri dau. Galdubide au ez da oraindikaren eten edo lotu. Eta ez batuaren onerako, erderearen onerako baino. Orretatik guztiorretatik atara leiteken ondorioa, zera da, "orain artean, izkuntza politika okerra erabili izan dala". Orretan erakunde publikoek erantzukizuna ezeze, zeresan eta zeregin aundiak daukezana argi be argi dago.

Izan be, azkeneko urteetan, elduen arteko moteltasun itzela egon da bizkaieraren erabileran, lotsaz edo konplexuz edo... (al aldeano y al gorrión, polvora y perdigón). Erritarrak bizkaiera erabiltzeko sentsibilizatu eta kontzientziatu bear doguzana zalantzarik dago.

Baina bizkaieraren benetako normalkuntzea lortu aal izateko bear beste bitarteko zein borondate politikoari bear-bearezko deritxegu.

* **Bizkaierak galdutako izena edo ospea jaso**

(al aldeano y al gorrión,...)

Aspaldiotako kontua da arazo au. Emen jarrera multzo bi nabarmenduten dira:

- bizkaieradunen jarrera
- euskaldun barrien jarrera

Bizkaieradun asko ta askorengan bigarren mailako berbadunaren konplexua igarten da. Arazo au sarri be sarri agertuten da ETB-k edo irratiren batek alkarrizketatuak izankeran. Tresna baliobakoa balitz lez, berealakoan baztertuten dabe euren nortasuna agirian itzi leiken euskalkia. Bearbada "goragoko-mailea" erakutsi guran. Geien-geienetan emoitza negargarriak lortuz eta euren izkuntza aberastasuna iluntasunean ostenduz.

Euskaldun barri asko ta askoren jokabide mingarria geienetan min ori sortu gura barik, gero ta zabalduagoa da, au da, "eske, zuk bizkaieraz egiten duzu" orrelango pentsakerea. Or gurabako destaina dago, nonbait, sarritan euren ezjakintasuna eta ezintasuna estaldu gurarik.

Gure euskalduntasanari zor jakon begirunea birreskuratu bear dogu, batzuk, baxotzak bere buruari begiratuz eta besteek dakian arengandik begirune eta apaltasun osoz ikasiz.

Esan bearrik ez dago, erritarren izkuntzea an-oremenka bultzatu bear da. Tokian tokiko berbakerak izkuntzearen aldetik aztertu bear dira. Erritarrei emoitzen barri emon bear jake, euren berbakerea euren begien aurrean goratu gurarik. Euron eta danon nortasuna dalako. Ospe eta eragin aundiko pertsonak bizkaiera erabiltzeko mesede andia egingo deutso bizkaierari eta azken baten be, euskereari berari.

Bizkaieraren normalkuntzan bearezko dan gizarte giro egokia sortu eta arlo orretan dagozan arazoei urtenbide bateratuak bilatu bear dira. Erritarrak bizkaieraren normalkuntzearen garrantziaz sentiberatu bear doguz. Bizkaieraren onarpen sozialaren oinarri zabalagoa lortu bear da, erabagi pertsonalak eta orokorrak

artuz. Baina erakundeek bizkaierearen jakite eta erabilerea sustatu bear dabez, bizkaierearen aldeko kontzientziarazino sortuz.

Mezua positibizatu egin bear dogu. Bizkaierearen bidez Euskal Erriaren aberastasuna areagotuko dogu. Euskal Erria bera euskaldunagoa egingo dogu.

*** Bizkaierearen azterketa soziolinguistikoa**

Jakin badakigu euskerearen egoerea txarra dana. are ago bizkaierearena. Egoera oneri konponbiderik gura badeutsogu aurkitu, ez dago besterik, leenengo ta bein, egoera ori benetan zelangoa dan jakitea baino. Onetarako azterketa berezia egin bearko litzake, bizkaierearen eremu osoan eta bere eraginpeko eremuan be bai. Orren arabera egoerea arteztuteko bear diran neurriak artu bearko litzakez. Areak da:

- gaitasuna neurtu
- erabilerea neurtu
- jarrerak neurtu

Azterketa onek arlo guztiak ukutu bearko leukez: administrazinoa, irakaskuntzea, kalea, sendia, giro formalagoak, euskaldun barrien eragina,... arek ondorioz onelango argibideak jasoz:

- bizkaierearen erabilera eremuak
- bizkaierearen erabilera bilakaerea
- belaunaldien arteko banaketea bizkaiereari jagokonez
- bizkaiereari jagokonez dagozan ezorekak
- bizkaierearen erabilpenagaz lotura arteza daben beste ainbat eragile

Bizkaierearen erabilerearen aurka jokatuten daben eragileak zeaztu eta aztertu bearko litzakez, esate baterako: sendi barruko igorpena edo igorpenik eza. Bizkaierearen normalkuntzeari buruzko erritarren eritxiak eta jarrerak be entzun bearko litzakez.

*** Bizkaierearen erabilerea**

Badago belaunaldien arteko austurea izkuntza erabilereari jagokonez. Gazteen artean gero eta gitxiago erabilten bada euskera, bizkaierearen erabilerea aixar egiteko aginean dago, gitxienetan dago egon eta. Bizkaierearen alarma gorri guztiak iziotuta dagoz

Berbadunen jokaera linguistiko berezkoari bidea emon bear jako. Gure inguruan bizkaieraz egiteko baldintza egokiagoak sortu bear doguz. Oneek egon ezean, gatx-gatx irauin leike bizkaiereak bizirik gure artean. Ostera. areek sortu ezkeru, bizkaieradunen izkuntza jokaerea bizkaierearen aldeko izan leiteke, gaur eguneko burukonplexu andiak oso-osoan baztertu aal izateko.

Leenengo oinkada lez, bizkaierearen gizarte erabilerea eta jakite mailea parakatutea lortu bear dogu, epe ertainera lortu be. Erabilera au bermatuteko neurriak artu bear dira. Era berean, bizkaieradunen euren euskalkiarenganako aldeko zintzotasuna lortu bear dogu (sendifaren bidez, batez be), bizkaierearen belaunaldi-belaunaldiko jarraipen eta igorpenari eutsi aal izateko. Orregaitik bada, baldintza egokí, baikor eta lagungarriagoak bearrezkoak dira gizartean, eta era orokorrean, ganera.

Erritarren artean bizkaierera erabilteko sentsibilizazino kanpaina andia eta

sakona egin bear dogu. Sendi euskaldunen barruko giroa bizkaierearen alde irabazi bear dogu. Bizkaieradunen artean aldeko jarrerak sendotu eta irabazteko elburuaz. Bizkaierearen jarraipenean daben erantzukizunaz jaubetuazo bear deutesgu. Bizkaierearen izen ona goratuteak asko be asko lagunduko deutso, azken baten, baita euskereari berari be.

Euskerea biziko bada, izkuntza igorpenak dauan garrantziaz jaubetu bear dogu, au da, guraso eta semealabek daben garrantziaz. Beraz, sendi barruko izkuntza igorpena oinarri-oinarrizkoa da orretarako, zeresanik ez bizkaiera bera be.

Bizkaierearen erabilera sozialaren normalkuntzea ere gi be ar da bizkaiera bera g aratu et a bu ltzatuteko asmotan. Azken baten, bizkaiera gizarteratu bear dogu, gero eta eremu geiagora zabaldu daiten. Erispide nagusi batzuei jarraituz, erabilera plangintzea sortu bearko litzake onako oneek gogotan artuta

- Bizkaierearen azterketa soziolinguistikoa egin.
- Bizkaierearen araubidea sortu.
- Tokian tokiko izkuntza plangintzarako egitaraua sortu (argibideak eta erispideak).
- Leentasunezko arloak zeaztu.
- Euskera teknikari, itzultzaile eta euskera zerbitzuek bizkaieraz be jardungo dabena bermatu.

Bizkaierearen erabilera gutariko bakoxtaren esku dago, zeozelan, euskerearen etorkizuna be: etxean, eskolan, lagunartean, bearrean, salerosketan, tabernan, kirolan, erakundeetan..., eguneroko bizitzearen arloetan bizkaiera egingo dogun neurrian, bizkaierearen etorkizuna egiten ibiliko gara. Bizkaierearen erabilera oiko eta eguneroko arloetan sendotu bear dogu, sendotu be.

* **Bizkaierearen igorpena**

Bizkaierearen igorpena bermatuteko sendia dogu ardatz naturala eta nagusietariko bat, eskolea eta urko komunitatea be garrantzizkoak izanik. Eskolea eta sendia, bizkaiera, euskerea, bizi-bizirik jagon eta garatuteko gunea biok bearrezkoak dira. Eskola eta sendiak, bizkaierearen erabilereari jagokonez, alkarregazko loturea, alkarren ondoko katebegi bi izan bear dabe, onartuezina litzake bion arteko etena. Eskolan ikasten dabenak gero sendiaren barruan izan bear dau jarraipena, eta iruntzietara be. Sendia oinarri-oinarriko gunea dan ezker, bizkaierearen etorkizuna sendiari estu-estu lotuta dago, beraren bidezko igorpenak garrantzi ukoezina daukala. Sendiak belaunaldi batengandik bestearengana izkuntzea igarotea bermatu daroa eta. Norbanakoaren izkuntza jokaeran sendiak garrantzi aundia dauka, bera oso artuemon sare indartsua izanda, iraupen luze-ko artuemon sarea dalako. Sendian datza-eta euskerearen jarraipena. Egon, ez dago beste biderik sendiak besteko etekin edo emoitza obarik lortu leikenik. Bizkaiera ikasi eta erabilteko gunerik egokiena, ekonomikoena, emonkorrena eta eraginkorrena da izan.

Orain artean, izkuntza gaitasuna, au da, eredu bakarra (batua) izan dogu elburjokabidea. Umeak izan dira jokabide orren artzañlerik nagusienak. Baina, izkuntzeari jagokonez, umeak be ur-ur dabezanengana -senitartekoak- urreratu bear doguz, urte askotan apurtutako artuemon linguistikoko normalak bizkaierearen bitartez bere lekura ekarri bear doguz, bere senera, atan be, bizkaierearen beraren aldeko jarrerak eta erabilera sendiaren barruan indartu eta areagotuz, biz-

kaierearen jarraipena ziurtatu daitegun. Bada, igorpenaren ontasunak bere leentasunezko lekua birreskuratu bear dau. Urko artuemonetan ezeze, formalagoe-tan be. Orretarako:

- Ingurune bizkaieraduna, erri mailea abiaburutzat artuta, gogotan artu bear da. Bizkaierearen erregistroak ez dira izkuntza eredura igaroten eta.
- Plangintza orokor egokia egin bear da, bizkaierearen igorpena belaualdien artean bermatu eta agozko ereduari eusteko. Izan be, igorpen ori da garrantzitsu, erreze, merke eta eraginkorra.
- Kontzientziapena bizkaitar eta bizkaieradunen artean sortu bear da. Sentsibilizazio eta motibazio kanpainak: irakaskuntzan, sendian, kalean... "Bizkaierearen eguna". eta abar.
- Sendi barruko artuemon bizkaieradunei eutsi bear jake, etxerik etxeko aldeko kanpaina eratuz (gurasoak).
- Irakaskuntzearen bidez bizkaierearen igorpena bermatu bear da, irakasle bizkaieradunak kontratatuz eta tokian tokiko berezitasunak jagonetz.
- Euskaltegiek (AEK, udal euskaltegiak, bameitegiak, baserri eskolak) elduen alfabetatze/euskalduntzea bizkaieraz be sortu bear dabe.
- Astialdirako ekintzak bizkaieraz eratu bear dira.

Bizkaierearen, euskerearen, erabilera plangintzak inguru soziolinguistikoagaz bat egin bear dau oso-osoan, euskerearen jarraipena belaualdien artean bermatu gura izan ezkeru, jakina.

Askotan, goi-mailako plangintzea baino, eraginkorragotzat jotzen da bertsolaritza, ipuin leiaketak, eta abar bultzatutea, baína, batez be, etxean egitea da garrantzitsuena.

Sartalde onetako gizarte osoa bizkaierearen garrantziaz jaubetu daiten aalegin aundia egin bear dogu.

* **Bizkaiera administrazioan**

Legearen arabera, iru erabilera gune garrantzietatik administrazioa dogu leenengoa. Administrazioan egokitzapen berezia bear da bizkaierearen, euskerearen, igorpen katea ez eteteko eta beraren jarraikortasuna bermatuteko. Egokitzapenik eroso, merke, zeaten eta ondorioz aberatsenak ekarriko deus-kuzana aukeratu bear dogu. Azken baten, administrazio barruan bizkaiera lan eta zerbitzu izkuntza biurtutea litzake elburua, bai barrura bai kanpora begira.

Administrazio txikiak (udalek) zein aundiek (Aldundiek eta EJ-k) bizkaierearen erabilera sustatu bear dabe, barru zein kanpoari begira. Orrek administrazioaren kideen izkuntza gaitasuna sendotu eta, bide batez, erabilpena araututea dakar (Euskerearen Udal Arauak). Lan ekoizpena bizkaieraz sortutea da elburua. Leenengo ta bein, izkuntza oiturak eta inguruaren baldintzak egokituz joan bear da. Geroko baten, ekoizpen guzti-guztiak bizkaieraz egin artean. Onetarako, bearginen eskuartzea oinarritzkoa da.

Administrazioan bizkaiera erabiliko bada ala ez agintarien eskuetan dago. Beraz, ukoezina da arlo onetan agintari politikoen erantzukizuna. Alderdi politikoen eskuartzea eta konpromezua bear-bearrezkoak dira gaía bideragarri egitekotan.

Bizkaiereari leentasuna emon bear jake, agoz zein idatziz, zerbitzu publiko zein pribatuetan (osasunbidea, diru etxeak, epaitegiak, irakaskuntzea, Eleizea, kultura

alkarteak, seinalakuntzea,...). Orretarako erabagi politikoak bear dira. Bizkaiera administrazinoan txertatutea ezin leiteke, baina, tresna edo iskilu politikotzat erabili, txertaketa ori berezko gauzea izango dalako, naturalnaturala.

Bear be, bizkaierearen aldeko lurgunea bear dogu Euskal Erriko Sartalde onetan. Aukerea geurea da. Bizkaieraz bizi diran Udalakaz (oraingoz Bermeokoa bakarrik) bat eginik, inguruko errietara zabaldu geinken asmo polita da izan. Aaztu barik, erriotan dagoan bizkaieradun errealitate soziolinguistikoa. Udalotan bizkaierearen aldeko aurrebaldintza egoki-egokiak dagoz egon eta.

Administrazioen arteko artuemonak bizkaierearen bitartez atondu bear ko litzakez. Udalak beste administrazioakaz bizkaiera erabiliko dau. Alan be Aldundiek udalakaz. Administrazio mailan bizkaierearen erabilerea arautu eta normaldu bear da, betekizun guzti-guztiak bete aal izan daiazan. Administrazioan bizkaierearen erabileran aurrera egitea euskerearen normalkuntzan aurrentzako urrats garrantzitsua egitea litzake eta.

* **Bizkaiera irakaskuntzan (eskolaurea, OHO, UBI)**

Irakaskuntzan azkenengo urteotan erabili izan dan izkuntza politikea birrikusi bear ko da. Gurean ez dau. geiengeinetan, inguruko izkuntzeagaz ezelan be bat egin. Or, zeozelan, izkuntzearen igorpenaren katea eten egin da. Orren ondorioak, orañdinokarren, inork neurtu ez dauazan arren, edonorentzat agiri-agiriak dira, arean da, euskereari berari lagundu baino, kalte geiago egin deutso. Daukagun izkuntza altxorra baztertuz, beste eredu batzuk eta eurek bakarrik, gurataguraez sartuak izan dira eta. Ez da or eredu batetik besterako ezelango zubi antzerkorik egon, zoritxarrez. Etxeko eta eskolako euskera ereduaren artean aurkaesan andia sortu da, bizkaiera gitxiagoturik albo baten geratuz.

Beraz, gauzak dagozan egoeratik egoera normal batera eroteko bear-bearezko da izkuntza politikea aldatu eta egokitudea, au da, bizkaierearen aldeko izkuntza politika egokia ezartea. Or Eusko Jaurlaritzari jagokon sailak zein eskoletako irakasleek euren ikuspegi itxia albo baten bertan beera itzi bear dabe. Azterketa zorrotza egin bear da irakasleen gertakuntza eta etenbako birziklatzea dirala-eta, bizkaiereari jagokonez, umezaindegietatik unibertsitateetaraino. Bearrezkoak dira politikarien borondate politikoa eta irakasleen ezkuntza borondatea be. Bizkaierearen bearrianaz bete-betearen egon daitezcan eragin bear jake.

Zer esanik be, arazo onetan guraso askok be askok daukezcan erantzukizuna eta konpromezua artubearra.

Irakaskuntzan bizkaierearen aldeko giroa sortu bear da, gaur egun bizkai ere aren aurkako eta baztertzaile bizi dogun giroa bestelakoa erakusten deuskun arren. Irakaskuntzearen barruko administrazioak arazo onetan badauka zereginik eta zeresanik. Bizkaiera oidalako eta oiko biurtu bear dogu irakaskuntzan, ikasle-irakasleen arteko eskola barruko zein kanpoko artuemonetan, biurtu be.

Bizkaiera ezkuntza sistemearen berezko izkuntza lez ezarri bear da. Bizkaierearen erabilera publikoa, areri jagokozan lurraldeetako berezko izkuntzat bulztatu bear dau ezkuntza sistemeak.

Elduen alfabetatze-euskalduntzeak be, beraren zeresana euki bear dau bizkaierearen aldeko normalkuntza bide orretan: aukerak-irakasleak-metodologia eskueran ipiniteko, ain zuzen be.

* **Bizkaierrea eta edabideak**

ETB- Orokorrean, euskalkien eskuartzea lortu eta areagotu bear da. Erritarrek alkarrizketetan egiten dabena ezeze, aurkezle-esatariek egiten dabena be. Zati aundi baten egin egiten dabe, eredu bakarrari jarraituz (gipuzkerea), baina. Batuagazko dendua lortu bear da. euskalkiei jagokenez, eta, batez be, xiberoera eta bizkaierari jagokenez.

IRRATIAK- Bizkaiko irratietan, Bilbokoetan, bizkaieradun eremuko irradi euskaldunetan bizkaiereak zeresan aundia bear dau euki, leentasunezkoa, atan be.

ALDIZKARI-EGUNRARIETAN- Erri eta errialdeetako aldizkarietan bizkaierari leentasuna emon bear jako. Euskaldunon Egunkaria" euskereari zabaldutako leíoa dogu eta esan bear da, bizkaieradun gitxik be gitxik bizkaieraz bertan idazten dabela. Or gure buruari eginbearreko kritikea. Or dago, bada, zabalik dagoan erabili bako leio interesgarria!

* **Euskerearen normalkuntzan bizkaierearen zeresana**

Euskerearen normalkuntzarako garrantzitsua da bizkaíerearen normalkuntzea, euskera bizia dalako. Euskal gizartea normalduteko euskerearen normalkuntzea garrantzitsua dan ginoan, beintzat.

Erabileran oinarritutako normalkuntzea sortu bear da apurka-apurka arlo eta eremu barriak irabaziz. Onetarako, aurrean aítatutako iru eremu nagusietan, batez be, jakite mailea, gaitasun eta erabilera egitasmoak sortu eta gauzatu bear dira.

Bizkaiereak galtze eta atzerakuntza andia egin dau azken urteotan, bai berbadunen kopuruan, bai erabileran, bai lurraldez. Ordezkapen bide eskergan sartuta dago. Geien baten, erderearen indarrezko ezarpen eta beronen indar sozialagaitik, baina baita ezarritako euskera plangintzearen okerbidea edo eraginik eza-gaitik be.

Bizkaíereak joko andía euki bearke leuke euskerearen normalkuntzan, bizkaierearen soinari bere osotasunean begiratuta, jakina.

* **Bizkaierearenganako gorengo erakundeen izkuntza politikea**

Izkuntzearentzat oinarri-bearrezko eragilea ezkuntzea da.

Baina ez da bakarra. Gizarte ingurunearen eragina nabarmendu bear dogu. Izkuntzearen aldeko jokabideak garatu bear doguz, eta izkuntzearen erabilerea errotuteko bearrezko gizarte ingurunea bear da. Izkuntza eragileen multzoa, atan be.

Izkuntzearen, bizkaíerearen aldeko jokabideak garatutea agintari politikoen erantzukizuna da. Erri borondatea ekintza biurtu bear dabe, eta kultura, ekonomia arlo zein edozein arlotan neurriak artuten dabezan lez, onetan be neurriak artu bear dabez. Erritarren arteko norberaren izkuntzaz irudi txarra izatea ez da oidalakoa eta. Egoera ori normaldu bearra dago. Izkuntza politikearen elburua izkuntzearen normalkuntzea da. Beraz, neurriok izkuntza politikea garatutean datzaz, izkuntza politika egokian atan be.

Politikoak dira izkuntza politikea sortu dabenak. Izkuntza politika orrek, batez

be, administrazinoan (udalak, aldundiak,...), edabideetan eta irakaskuntzan eragin andia be andia eta argi-zuzena dauka. Politikoen eskuetan dago, beraz, bizkaierearen etorkizuna. Bizkaiera bera babestu, bultzatu, sustatu eta erabilteko aaleginak egitea, atan be. Au da:

- bizkaiera ondorengoentzat bermatutea
- bizkaierearen oiko erabilera eremuak sendotutea
- bizkaierearentzat berbadun barriak irabaztea
- bizkaierearentzat erabilera eremu barriak irabaztea

Zenbatekodun izkuntza politikeak -eta zalantza barik, zelangotasuna bizkaie-reak dakar-, edozelango euskera igorpenak, ez dau oinarri sendorik iminiko euskerearen zein bizkaierearen birreskurapenerako. Betelana baino ez da izango, etorkizunerako oinarria imini bearrean. Zenbatekoari begiratu barik, oba da zelangotasunari begiratutea.

Eusko Jaurlaritzak (EJ) eta Foru Aldundiek erriko errealitate biziagaz bat egin bearke leuke, euskereari jagokonez. Onek esan gura dau, bizkaiera aintzakotzat artu bear dabela, bai barruko, bai kanpoko artuemonetan. Errealitate bizi orregaz bat egiteko, bearrezkoa da izkuntza politika egokia egitea. Egokitasun ori ezin leiteke ezelan be ulertu, bizkaiera, gaur arte egon dan lez, albo baten baztertuta lotuten bada. Au da, izkuntza politikatik ate egotea, sarbiderik ez eukitea. Gizarte arlo guztietara eroan eta ezarri bear da izkuntza politika barri ori. Gauza asko aldatu bear dira or eta orretarako politikarien borondate ona bearrezkoa da, jakina.

Izkuntza politikeak plangintzea ekarri bear leuke, onetan bizkaierearen aldekoa ekarri be. Bizkaiera normalduteko bearrezkoa dan plangintza orokorra jomuga izan bear dogu. Bizkaierearen erabilera soziala eta publikoa ziurtatu eta bermatu bearke dauz izkuntza plangintzeak. Baita erabiliko dan bizkaierearen jatortasuna eta aberastasuna jagon be. Aldarrikapenak egia biurtutera igaro bear doguz. Plangintza orokor au euskal erakundeek bideratu bearke leuke, arlo guztietan bizkaierearen aldeko dinamikea iziotuz. Leentasunezko arloak edo lerro nagusiak landu bear dira, arean da:

- administrazinoa
- irakaskuntzea
- edabideak
- kaleko erabilpena
- sendiaren barruko izkuntza igorpena

Izkuntza politikea egiterakoan, euskera bizirik dagoana, arean da, bizkaiera, aintzakotzat, artu bear da. Bizkaierearen normalkuntzearen kontzientzia eta kulturea zabaldu bear doguz. Bizkaierearen aldeko plangintza orokorra bultzatu bear da, erabilpena, agoz zein idatziz.

Au guztiau aurrera atarateko, erronka andia bada be, esanda dagoan lez, borondate politikoa eta baliabideak eskueran imintea bearrezkoak dira.

* **Bizkaiera bultzatuteko itzarmenak**

Erri alkarte eta taldeek erakundeakaz egindako eta bizkaiera bultzatuteko itzarmenak dira. Bizkaierearen erabilera areagotuteko, atan be. Bizkaiera erabilteko konpromezua artutekoa, bai izenpetzaileen euren arteko artuemonetan, bai izenpetzaileok beste talde edo erakundeakazko artuemonetan be. Itzarme-

nen izenpetzaileek euren eguneroko barruko jarduketan be bizkaiera indartuteko konpromezua artuko dabe.

* **Bizkaiera eta bere eremu erdaldunak**

Euskeraz bizi diran lurraldeak, udalerriak, bizkaieraz bizi diranak barru, sendotuteak leentasun osoa izan bear dau euskerearentzat.

Bizkaierearen eremu erdalduntzat euskera galduta dauken Bizkaiko eta Arabako eremuak dira. Bertan egiten zan euskerea bizkaiera izan zalako eta orren egiztapen argiak toponimia bera eta bertako askoren antroponimia doguz. Ori olan izateaz gan, eurentzako euskal lurralderk urkoena, auzoa, bizkaierearen lurraldea da izan. Beraz, euskerearen aldetik bizkaiereak leenago eragin leikie beste euskera moeta batzuk baino. Or bizkaierearen egona edozein arlotan, logika osoaren aurka, ia utsaren urrengoa da. Ez dira bizkaierari buruzko jakintza gitxieneko batzuk bermatuten be. Orren adibiderik argiena Bilbo bera da. Bilbon bertan be, euskaldunen artean bizkaieradunak geiengo aundía izanda be. Bilbon bertako euskerea oraíndinokarren il aginean bizirik badago be.

Eremu orreetan bizkaierearen egona bermatu bear da, bai irakaskuntzan, bai administrazioan, bai edabideetan, baita edozein arlotan be. Udalerrri bizkaieradunen aldeko politikea egin bear dabe euskal erakundeek.

* **Bizkaiera versus batua**

Aspaldiko kontua da au. Beinola bateko kontu onek burruka antzekoa sortu eban bien artean. Burruka antzuagorik! Bai alde batetik zein bestetik. Burruka antzu ori aaztu egin bear da. Batuak bere bidea argi ta garbi dauka, lotuezina, eta onartubearrekoa. Bizkaiera, ostera, bere bidea idoro ezinik jabilku. Bideok, batak zein besteak, alkar osogarriak eta egundo be ez aurkakoak izan bear dabe. Ezin leiteke bideotatik bat, bestea dalaeta, aolan, geiagoko barik, baztertu, ez eta iruntzietara be. Izkuntza idatziak eta agozko izkuntzeak alkarregaz norabide berean joan bear dabe eta ez alkarren aurka.

* **Bizkaiera estandarra**

Bizkaiera estandarren bearrizana argi be argi dago.

Euki badauka bizkaiereak bere tradizino idatzi luzea eta indartsua. Agozko ereduari jagokonez, gogotan artutekoa da urteetan Eleizeak bizkaieradun lurraldeetan anor-emenka erabili izan dauan eredu jaso, érriak a ulertuteko arazorik euki ez dauana, atan be. Orain dala urte batzuk bizkaierearen estandarizazioaren bidea asi zan: bizkaierazko idatz arauak, deklinabidea, aditza eta joskerea. Badagoz egon, ostera, zer batzuk, oraíndinokarren, argitasun eta ukutu barik lotu diranak. Eredu estandar ori zeaztu eta ezarri bear da. Eredu integratzailea edota bateratzailea erabiliz, arean da, bizkaiera osotua. Batuarako artutako eredu baztertzailea saiestutea garrantzizkoa da, ez daiguzan, azkenean, ia gipuzkera uts biurtu dan euskera batuan egindako akats baztertzaileak bizkaiera estandarrean be egin. Dagozan urtenbideak danak onartu eta aukeran itzi (e.b. gintzazan /

ginan), baten aldeko jokerea erakutsi arren. Egin daigun estandarizazioa inor atean ez sentiduteko moduan.

*** Bizkaierearen gramatikearen aldetik dagozan iluntasunak**

Dagozan iluntasunak eta utsuneak argitu eta beteteko jakitunen batzorde eragile zabala eratu bear da. Bizkaierearen estandarizazioa sortu eta lortuteko, onargarri eta erabilgarri izan diran eta diran aukera guzti-guztiak onartuz, aolkatuz eta eskueran iminiz, bai aditza, bai joskera, baíta iztegiaren aldetik be. Orretan batuak daukan erabide linguistikoa lortu eta aren pareko joan bearko leuke gure bizkaiereak. Izkuntza jasoa izan daiten lortu bear dau, idatziz zein agoz, berak bizirik irautea gura badogu, beintzat.

*** Bizkaierearen aolkularitzea**

Aurrekoagaz lotuta eta aregaz bat egiteko, egitura edo zerbitzu tekniko au erateua oso interesgarri izan leiteke bizkaíerea bera bultzatu, zabaldu eta normalduteko. Beraz, bizkaierearen normalkuntza eta birreskurapen bidean aolkularitzea izatea dau elburu. Azken baten, bizkaierearen normalkuntzarako tresnea izango litzake. Zerbitzu onetan erakundeen eskuartzea garrantzi aundikoa litzake (EJ, Aldundiak eta udalak). Zerbitzu tekniko orrek bizkaiereari buruzko dokumentazio zerbitzua, laguntza teknikoa, arlo orretan beste batzuen lanak batutea, argibideak emotea, normalkuntzan artu bearreko neurrien ganeko eritxia emotea, erabilerea eta sustapena aalbidetuteko proposamenak egitea, eta abar eskeini hearoko leukez.

*** Bizkaiera utsezko aldizkaria**

Bizkaieradunen multzoa edo komunitatea zeozelan alkarregaz lotu bear dogu. Komunitate orren arteko komunikazio bearrizana egon badago eta bizkaierazko aldizkariak bete leike utsune ori. Gaur egun, gure arteko lotura idatzia bear-bearezkoa da bizkaiereak bizirik irautea gura badogu, beintzat. Edabide idatziaren ekarpena bizitza kulturalaren eta sozialaren onatsunagaz eta indarragaz lotuta dago eta.

Erritarrek euren euskerearen balioaz jaubetu daitezcan eta bizkaíerea apurka-apurka jantzi aal izateko, bizkaíeraz idatzitako aldizkaria beren-beregia da. Bizkaieradunak euren euskalkian irakurten oitutea (dakigunetik ez dakigunera joanik) elburu argia dogu. Bizkaíerearenganako begirune eta ezagutza soziala areagotuko dauz eta. Aínbat izkuntza erregistro gaurkotu, antxinako batzuk birreskuratu eta bizkaierearen aberastasuna zabaldutea jadetsiko litzakez. Euskaldundu eta alfabetatuteko be tresna erabilgarri besteko osogarria litzake aldizkaria. Egon be, gero ta bizkaíeradun geiago alfabetatuta dagoz (batuaz geienak) eta oraíndinokarren erreferentzia idatzirik ezean bizi gara. Bizkaiera utsez idatzita, bada. egon bearko leuke aldizkariak, publizitatea barru.

Izkuntzearen normalkuntzeak eredu idatzian dauka bere oinarririk sendoena. Idatziko ez dan izkuntzeak iraun nekez iraungo dau bizirik. Bizkaiereari, bere normalkuntzearen bidean, asko be asko lagundu leikíona aldizkariarena izan leíteke.

Izan be, aldizkaria izan leiteke bizkaierearen normalkuntzearen bermatzailea. Aldizkari osoa bizkaieraz idatzita. Bizkaiera estandarrean idatzita egon arren, bere orrialdeek aldaera, berbakera guztietara zabaldua egon bearke leukee. Izan be, kendu baino geitu egin bear dogu eta. Baztertu baino, onartu egin. Bada, azpíeuskalki eta euren altxorrei era estandarrean idatzita leku egin bear jake bizkaierearen aldizkari orretan.

Edukina, egitura eta ildo profesionalaren aldetik. Euskaldunon Egunkaria" eta "Argia" barriemoileek darraien eredia jarraibidetzat artu leiteke onerako be.

* **Bizkaiera eta liburugintza-argitalpenak**

Or, arlo bi aztertu leitekez:

- literatura arloa
- irakaskuntza arloa

Azkeneko urteotan, bizkaieraz egin izan dan literaturea gero eta urriagoa izan da. Ia utsaren urrengo biurtu artean, idazle bakan batzuk egindakoa izan ezik. Bizkaieradun idazleak bildur dira bizkaieraz idazten, "zer esango dabelakoan" edota "danok ulertu daigun". Fenomeno bitxi be bitxia dogu, anaturala. Gitxitasun konplexua ete? Oidalakoa izan bear leukena, oiezlako biurtu. Zenbakiak or dagoz, bizkaieraz egiten dan ekoizpena negargarria da.

Beste orrenbeste irakaskuntzan jazoten da. Emen. baina, akiakulea aundiagoa da: ez dago bizkaieraz eskeinduten daben ikastetxe naikorik, au da eskabide naikorik, olako ekoizpena zuzenesteko beste. Alan da ze, bizkaiereak, merkatuaren legeen logikapean il bearke dau. Dana diruaren neurgailuz egingo bagendu lez! Esan bearrik ez dago be, irakaskuntzan goitik aginduten dan izkuntza politikeak olako egoeretan eragin aundia daukana. Nork egin edo egiten eta aginduten dau dalako izkuntza politika ori?

* **Seinalakuntzea bizkaieraz**

Tokian tokiko ereduak eta izkuntza aldaerak gorde gurarik, seinalakuntzeakanpoko zein barrukoa- bizkaieraz egin bearke litzake. Inguru linguistiko bako txak daukazan izkuntza iturburu eta altxorra erabiliz, areri eusti guran: bide iragar kiak, toki eta zerbitzu publikoetako seinalakuntzea, toki eta zerbitzu pribatueta ko seinalakuntzea,... Beraz, eta erispide lez:

- Bizkaiereari leentasuna emon.
- Tokian tokiko berbakereari bidea emon, a jagotekotan.
- Seinalakuntzarako aukeratutako eredu estandarretara arik eta geien urrera tu, beti bizkaierearen nortasunari leentasuna emonez.
- Bertoko lekuizenak eta toponimia birreskuratu eta agirian erakutsi eta iraga mi.

Bizkaiera entzun ezeze, ikusi be egin bear da eta. Au guztiau garrantzi aundi ko arloa da, bizkaiereak galdutako ospea eta "lurralde" birreskuratu aal ízate ko. Azkenean, euskerearen onerako izango da eta.

* **Bizkaierera eta publizitatea**

Publizitatea egunero eta edozein lekutan ikusten dogun mezuz betetako arloa dogu. Mezuok gitxi-gitxitan izaten dira euskeraz. Bizkaieraz, are gitxiago. Gitxi-
netariko bat "El Corte Ingles" -ek darabilan publizitate adibidea dogu. Bizkaierera-
ri argi ta garbi egiten deitso leku eta.

Publizitatea bizkaieraz be aal dala egin erakutsi bear dogu. Ekimen pribatua
alde onen etekinaz be jaubetu daiten, bizkaierera erabili, sustatu eta garatuteko
kanpaina zabala eratu bear da. Baina erakunde publikoen babes politikoa bea-
rrezkoa da orretarako, jakina.

Beste aldetik, errietako jai, jaialdi, kontzertu edota edozein ekintza eraturera-
koan ekintzon barri emoteko iminten dñan ormirudietan gitxi be gitxi dagoz biz-
kaieraz. Arlo onetan badago zereginik, oraindikarren. Erri euskaldunetan, batez
be. Aor, bada, Udal Administrazioak egin leiken tokian tokiko bearra, bizkaierera-
ren aldeko kontzientzia erritarrengan birloratu birreskuratu eta errotu daiten.

Iñaki Martiartu
1997ko dagonilean
ZER"

MENDEBALDE KULTUR ALKARTEARI

Ba-genkian, ez ain antxiñatik, Mendebalde deritxon talde bat sortu dala eta talde onen sortzaille Alfonso Irigoien zala, eta gaur bertan, azillaren 14'an irakurri dot DEIA'n talde oneri begira barri-emote luze ta zabal bat, Juan Luis Goikoetxea adiskide aundiaren argazkia lau eratan agertzen dala, baita ertz baten Amuriza adiskidearena be.

Lenengo ta bein beiokie ZER egiten dogunen izenean eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren izenean agurrik beroena Mendebaldekideai eta agurragaz batera gure esker ona Bizkai'ko euskerearen alde jokatzeko datozelako. Guztion artean lortuko al dogu gure euskereak bizirik irautea, Bizkaia'n Bizkai'koak.

Alfonso Irigoien'eri buruz orain-artean be esan dodana gogoratuko dot barri-ro: Deustu'ko Ikastetxe Nagusian izan zan eta gaia Bizkai'ko euskerea eban batzar ospetsu baten, Alfonso'k Bizkiareari buruz berba egiteko batua erabillega entzuten neban eta esan neutson: Alfontso! Bizkaia'n eta Bizkaiera gai dauan batzar onetan zuk zergaitik egiten dozu berba batuz? Eta bere erantzuna auxe izan zan: "Nik erran dut eta zuk ulertu duzu".Orrelan aterako ete dogu aurrera gure bizkaiera?

Eta DEIA'n gaur irakurri dodan barri-emotean be beste orrenbeste ikusten dot: Bizkaiko euskereari buruz berba egiteko batua darabillega. Danean ez ba'da, geienean. Orra or Larramendi'ri egiten geuntson azterketa bera egin-bearra, arek erderaz goraltzen eben euskerea eta orain batuz goratzen dogu bizkaiera! Ai! Bizkai'ko gure idazleak! Nondik nora dabilzan!

DEIA'ren orri beratan eta barri-emote onen barruan dator Amuritzaren eritxia. Eritxi au ezagutzen gendun, bai Iruña'n dan erri-aurreko Ikastetxe Nagusian izandako alkar-izketatik eta bai beste etorbide batzutatik. Amuritzaren besteak baiño zuzenago dabil. Emen beintzat bizkaieraz idazten dau bizkaierari buruz. Nik zeozer aurka esatekotan, atxearen arazoa aitatuco neuke: Bizkaifereak ez dau bear atxerik, batua bear ba'da be, atxea baturako kaltegarria da. Zergaitik ez bein betiko alboratu alperreko atxe ori? Kalteak bai eta onurarik ez dakarren atxe ugari ori? Baiña itzi daigun arazo au oraingo, lenengo lortu bear doguna bizkaiera bizirik ateratea da eta orretan batera lan egin geinke. Egunen baten atxea kentzea bururatzen ba jaku,erabagia artzea da naikoa, ez dago ikasketa barririk egin bearrik. Guk atxe barik jarraituko dogu.

Mendebalde'ren laguntzailleak be agertzen dauz Juan Luis Goikoetxea adiskideak (Kintana, Alfonsoren maillan itzita): Adolfo Arejita adiskidea lenengo, eta gero Jazinto Iturbe, Iñaki Sarriugarte, Rikardo Urrutia, Iñaki Gaminde, Maribi Unamuno, Eneko Barrutia, Kaltzakorta markinaarra ta abar ...Or agertzen diran izen batzuk adiskideak doguz eta iñoz lankideak be izan dira. Poztu egiten gara bizkaieraren arazoa gogoz artu dabelako.

Gaurko idaz-Ian onegaz, nire ustez, lendik be argi izan diran arazo batzuk gogoratzen dira. Berba gitxitan esateko: Bizkai'ko euskerearen alde lan egiten dogunok zati bitan gagoz, batzuk atxeagaz eta beste batzuk atxe barik idazten dogunak. Bizkaieraz idazten ez dabenak be or dagoz. Guztiok ekin daigun Bizkai'ko gure euskerearen alde, erriurreko erakundeetan, ikastegi guztietan, aldiz-

karietan, liburuetan, albiste-bide guztietan (batez be ETB'n) eta bizkaiera bizi dan artean, euskerarik erdia bizi da, gitxienez erdiak diran ezkerro bizkaieraz berba egiten daben euskaldunak. Beste euskalkiak be aurrera egin bear dabe eta egiten diardue, baiña batez be naparroa ta iparraldeko euskalkiak dauke gure laguntzaren bear-izanik aundiena. Gipuzkoera batuak berak daroa aurrera, geien bera sartu dalako batuaren barrura.

Guk jarraitu daigun gure bizkaiera zaintzen eta indartzen, bizkaieraz berba egin eta idazten.

Olazar'tar Martin'ek
Zer – 1998

"EUSKALTZAINDIARI EPAIKETA" liburutik

B. Latiegi/ D. Oñatibia

1982

IPARRALDEKOEN OITURA

Iparraldeko gure anaiek beren euskalkietan H'a bearrezkoa ba'dute, erabili dezatela euskalki aietan, bearrezkoa duten itz bakoitzean. Gu ez gera aiei H'rik kentzera joan, eta ez gera joango ere. Ez bitez berak guri indarrean H'rik sartzera etorri. Bai! Badakit ez dirala etorri, eta badakit ez dirala etorriko ere. Baña Iparraldeko euskaltzaiñen jokaerak ematen digu min; orainorain arte egoaldeko euskaltzaiñen artean "el batua" -ren aurkakoak geiago izan bait dira "el batua" -ren aldekoak baño: Amar, aurkakoak; zapi, aldekoak.

Iparraldekoak H'a agoskatzen ba'dute, guk ez bait dugu agoskatzen! gañera, beste gauza bat ere gogoan artu bearra dala uste dut:

Iparreko euskaldunak, euskaldunetatik EUNETAN AMAR (% 10) izatera ez dira iristen. Gu, egotarrok, EUNETAN LAROGUITAMAR baño geiago gera (%90 baño geiago). Iñork zerbait ezartzekotan nork nori ekarri bear lioke "zerbait" ori? Baiñan, beude pakean ipartarrak! Gu ez gera indarkeriz zirisartzearen zale. Badakit, bai, lurralde aietako euskaldunjendeek ere orrelako zaletasunik ez dutela. Ez ditut euskaldun errikoi aiek buruan, nere bameñaze au agertzerakoan.

Aipatu ditudan eunetako zenbaki oiek beste zerbait ere adierazi nai digute, nere ustez beintzat: an eta emen ilzorian daukagula euskera. Baña iñun euskera salbatzekotan, emen salbatuko dala, Arantzazu'ko Billera artan bertan Lafitte'k esan zuan lez: Iparraldean alegia, Euskera galdua zala; iñun burua jasotzekotan emen, egoan, jaso bear zuala; eta gu, (egoaldekoak) aiengaitik (iparraldekoengaitik) Euskeraren gorputz aulduari indarrez H'a txertatzen ez asteko (1). H'a, ordea, euskal erreboluzioaren sinbolo plastikoa izaki!

Gai oni buruz azalpen bitxi bat egin zidan bein Azurtza'tar Joxejoakin injenieruak. "A" bat marraztu zidan nere begien aurrean ingi zurigañean. Aguren ertza batean eun arroako arri aundi bat, eta beste ertzean amarreko arri txiki bat. "Nun dago or balantzapuntua?" galdetu zidan.

Arrazoi osoa du Axurtxa adiskideak. "El batua"ren gurasoek ordea, arri txiki-runtz jo zuten eta Benaparroa'ko euskera aukeratu zuten, euskaldun geienen, iaia euskaldun guztien eskubideak zanpatuta, izkera berri au sortzeko; a! ori bai, Benaparroa'ko euskerari Prantzi'ko eta España'ko itzak eta erderakadak ugari erantsiaz! Ez da oker ibilliko, "el batua" euskalkiak ez baiña, Frantzera eta Gazte-

(1) Ona emen Lafitte berberaren itzak, Arantzazu'ko Biltzarrean Euskaltzaindiak erabili zuan magnetofietik Berrondo'tar Kepa'k jasoak: "H, galdua emen orain... Lehen? ori ez da arrazoia. H gal-tzen asi da (Iparraldean ere); Kontsonante ondoren, ken!... eta bai bokal artean ere... Ustaritz'en, Baigorri'n, eta itsasegian ere. Eskuara ere hiltzen doa. Nunbait salbatuko ba'da hemen izanen da (Egoaldean). Beraz, danok saia behar ginuke hemengoaren alde (emengo Euskeraren alde): han-goak eta emengoak. Nik ez nuke H sartuko hemen. Gu (Iparraldean) hiltzerea goazi. Hiltzera doan ontzi bati ez lotu! Bear ba'da nik ez dut esperantzarik bihotzean... (baña esperantzarik izateko-tan), hemendik (Egoaldetik) behar da . (Euskera XII 1968, 224 orria. Irakurle: (...) artean sartuta-ko itzak nereak dira. Magnetofioean zatika artutako izketaren zentzua argitzeko ipiñiak).

lera baturatuaz sortutako Izkuntza Batu berri bat dala diona! ijaditu laterazko eta latiñezko joskerak ere, baiña gazteleratik eta írantzesatik artuak, "el batua" sortu zutenak ez bait zekiten laterarik.

Beste gauzatxo bat ere esan naí nuke. Iparreko euskaldunak %10 besterik ez dirala, geínaz, ikusi dugu. Gañera,

1.- Ipartarrek ez dituzte idazten dituzten H danak agoskatzen.

2.- Ez dituzte ango idazle danek H'ak toki beretan idazten.

3.- Beraz, H asko alperrikakoak dituzte.

4.- Eta, azkenik, ipartar askok (itxasertzekoek adibidez), EZ DUTE BATERE H'RIK AGOSKATZEN.

Zenbat ote dira H'a agoskatzen duten euskaldunak? Eunetan bost (%5)?

Zalantzarik gabe esan genezake, Iparraldean H'a erabiltzen dutenak baiño askoz geiago dirala emen "1" eta "A" ren artean "X" bat ("ogixa". "begixa". "Azkoitixa"...) edo "Y" bat sartzen dituzten euskaldunak ("ogiya". "begiya". "Donostiya"...). Askoz eta askoz geiago. Gogoratu al zaie euskaldun oiei "X" ori edo "Y" ori indar bizian gañerako euskaldunoi arreraztea? Zer arrazoi dute orduan Euskaltzaindiak eta "el batua" zaleek guri indarrez Iparraldean bertan seguru ez dagoan H'a sartu nai izateko? Bat bakarra: H'a euskal erreboluzioaren sinbolo plastikoa izatea!

H'a Iparraldean ere eskier, (seguru), ez dagoala esan dut. Ez bide da beintzat oso gauza argía H'aren eskiertasuna. Gai orri buruz "Euzkadi'ko Iparraldean emezortzi bat H naikoak ditut" esan omen zion Iratzeder ipartarrak Akesolo'tar Lino Euskerazaintzako Lendakariari. Orrelako zerbait esan omen zion Euskaltzaindiari ere, Iratzeder'ek berak. Ain zuzen Iratzeder'en H'en auzi oni buruz ona zer idatziberri didan Zatarain'ek:

a) Iratzeder'ek Euskaltzaindiari zenbat H eskatu zizkion ziur jakitearren, Euskaltzaindiari idatzi ziola berak (Zatarain'ek).

b) Euskaltzaindiaren izenean Lizundia'k erantzun ziola, eskutitzez. (Lizundia'ren gutun onen fotokopi bat bidali bait dit Zatarain'ek, Ikus irakurle zer dion euskaltzaindiaren ikurradun ingían idatzita dagoan

Lizundia'ren eskutitz orrek):

"Hemen bidaltzen dizut Iratzeder'en kopia. (Iratzeder'ek Euskaltzaindiari aurkeztu zion idazkiaren kopia.)

Ikusiko duzu zerbait falta dala: zerrendaren bukaera; baiña hori ez dut arkitu, eta behar bada ez zuen emango."

c) Lizundia'k aipatzen duan kopia ortan, 15 itzetarako eskatzen du Iratzeder'ek H'a baiña lau auek bakarrik agiri dira bertan idatzia: "Behi, Nahi, Zahi, Ohi".

d) Iratzeder'en 15 itz oiek zein ziran era bat jakiteko, Iratzeder berari idatzi omen zion gero (Zatarain'ek), eta Iratzeder'ek itz zerrenda au bidali:

"AHI (Gipuzkeraz, "ai": iriñez eta esnez egindako janaria). AHUL, (Gip., aul). AHUR, (Gip., eskua bilduz egin ditek txokogunea). BEHI, (Gip., bei). BEHIN, (Gip., bein). BEHAR, (Gip., bear). IHAR, (Gip., igar). IHARDUKI, (Gip., jardun). IHAURRI, (Gip., zabaldu; adibidez belarra). IHAUTE, (Gip., iñaute). NAHI, (Gip., nai). SEHI, (Gip., sein, mirabe). XAHU, (Gip., txau, garbi). ZOHI, (Gip., zotal; belardun lurpuska). OHI, (Gip., "oi". "oitu").

Amabost itz guztira.

"Bertzalde -dio Iratzeder'ek Zatarain'eri bidalitako eskutitz ortan-, HAU, HORI, HURA, "H" ekin ematea ongi litzake, bainan ez beharrezkoa".

e) Amabost ítz bakarrik oientzako Euskaltzaindiari H'a eskatu ondorean,

auxe esan omen zuan geroago billera batean Iratzeder'ek, Zatarain'ek idazten didanez: "H bat aski ginuke, "nahiz". "zu ikusi nahiz etorri naiz" esatekoan "naiz" "naíz" ez esatearren".

"Guk ordea "naiez" esaten duguta, "zu ikusi naiez etorri naíz" esaterakoan "kakofoni" edo "soñu zakarrera" jausteko arriskurik ez dugulako, guretzat H bakar ori ere alperrikakoa da". esanaz amaitzen du Zatarain'ek bere eskutitza (2).

Zatarain'ek dion bezala guk ez dugu "H" bakar orren bearrik. Aítortu dezagun ordea Iratzeder'en goratarrez, onek ez zuala "H" bakar orí guretzat eskatzen; ipartarrentzat bakarrik eskatzen zuala. Ez Euskalerra osorako sortu litekean Euskera Bateratu batentzat, ez; soilki Iparraldeko Euskerarentzat baizik.

Eskerrikasko Aíta Iratzeder! Zentzu onaren alde eta Euskeraren alde egoki jokatu zera. Milla esker.

Agian, Aita Kardaberaz zaarrak ere, berak uste baiño egi aundiagoa esan zigun H'a euskalduna ez zala oles egin zuanean, jatorriz Iparraldeko Euskeran ere izki ori ez bait da seguruaski euskalduna. Strabon'ek eta beste antziñako idazleek gure errien eta jendeen izenak ematerakoan ez zuten H'rik erabiltzen. "H" a atzerritik etorria da. Ez írantzeratik, írantziarrek ez dute ba "h" rik agoskatzen. Nere ustez izki ori Inghlanderritik etorria dugu, ez bait dugu aantzi bear erdiaroan gure IparLurraldeak Inghlanderriko erregearen Jauntzapean egon zirala mende luzeetan, eta Inghlanderriarekin arremen aundiak izan zituztela (3)

Nere íritzikoa agertzen da, gutxi gorabera, Urrestarazu'tar Andoní, "Umandi" ere:

"La letra H que solamente ha sido utilizada hasta ahora en nuestros dialectos norteños, como una intluencia más, según opinamos, de I o de los erderas, y que el "euskera batua" trata de generalizarla como presunto medio de unificación; pero siendo los que han venido empleando esa letra, con una gran diferencia, los menos en el conjunto de los euzkaldunes, parece lógico que fueran ellos los que la fueran abandonando, como ya lo habían empezado a hacer además, y como medío mas fácil, más cómodo y más adecuado para llegar en ese nivel a una rápida unificación tan deseada por todos.

Para subrayar nuestro criterio del origen erdérico de la H en el euzkera, copiamos aquí lo que dice Azkue en la revista "Euskera" de Euskaltzaindi "XVI Urtea, III zenbakia 1935 "beltza Garagarrilla". página 115: "4.^a Se vale (el libro de "Refranes y sentencias") mucho de la "h" pero, según creo, no porque la pronunciasen sino por imitar a escritores castellanos. La prueba de ello es que varios vocablos los escribíeron a veces con esta letra, otras sin ella..." (Nik azpimarratua) (4).

Jatorriz euskalduna ez dan izki ori sartu nai digu orain Euskaltzaindiak indarrabitate; Iraultzalari artean iraultzaren ikurra izateko aukeratutako H'a!

(2) Zatarain'dar Anburtsi'k neri egindako eskutitza (11-II-81).

(3) 1152'an egin zan, Inghlanderriko Endika II'a, ezkontzaz Baiona'ko Jaun. 1451'an irten ziran, betirako, inghlanderriarrak uri artatik.

(4) "Euzkera", 19 or.

GAZTEEN JOERA IZATEA

Ori da Mitxelena'k bere burua "el batua" ren alde artzeko, izan zuan arrazoaia, arrazoi bakarra, "bizitzatik artutako arrazoaia", "razón biológica", beste motako arrazoirik arkitzen ez zuala aitortu ondorean.

El Sr. Michelena ha declarado en varias ocasiones-dio Labayen'ek-que tan arbitrario es el empleo de la H como el de su supresión (')

Gazte izatea ez da iñungo tokian "arrazoi bat". Ezta zarra izatea ere! Bai zarrek bai gazteek, batzuetan izaten dute arrazoi, eta beste batzuetan ez. Eta arrazoirik ez dutenean arrazoi ematea, zarrei eta gazteei, guztiei, gaitz aundia egitea da. "Arrazoiak" ez dira "griñak" bezela biológiazko gauzak, logikazkoak baizik. Toki onean lirake gurasoak eta irakasleak, "gazteen joerak" diralako betí gazteen griñen alde jarri bearrean arkituko ba'lira!

"H'rik gabeko batasuna la unificación a la española izango litzake, eta ori..., ori iñola ere ez"!, deadar egin zuan Txillardegi'k Euskaltzaindiaren Bergara'ko Biltzarrean 1978'gn urtean.

Bapo Txillardegi! Baduk orixe, bere burua izkuntzalarizat daukan batentzat arrazoi dotorea! Gañera, gañera, Txillardegi, españiarrengandik zerbaítek bereízten bagaitu, H'rik ez erabiltzeak bereízten gaítu, españiarrak h'z beterik bait daude, eta españiarrak baiño geiago oraindik españiarren gurasoedo diran arabitarrak!

(1) Labayen: "SasiBatasuna", 6-7 or.

"H" a euskaldun iadanen oituraren aurka dago. Zearo alperrikakoa da. Milla aldiz zallago egiten du, berez aski zalla dan gure izkuntza. Arrazoi guztiak "H" aren aurka dagoz, eta arrazoirik aundiena, une ontantxe, eriotzarrixkutik bizirik atera dedin, Euskerak orrelako txatxukeririk ez duala bear", erantzun nion nik Inghlanderriko L'iverpool'eko Trask izkuntzalaritari eskutiz batean. (Karmel 1981'ko lenen zenbakia).

"NORA DOA GURE EUZKERA?"

GU EUSKEREAREN ALDE

Errialde baten altxor aundfenetariko bat, bere izkuntza da, zalantza barik. Izkuntzak errialde oneri nortasuna emoten dautso eta ori dala-ta, zenbat eta aberatsagoa izan ele ori, askoz sendoago izango da errialdea.

Euzkereari dagokionean, erri txiki eta banatu baten izkuntza izatean, gatxago da. Gure aberria, Frantziaren eta Españaren artean kokatuta dago eta orren ondorioz, euren berbetak oso indartsuak diranez, eragin aundia dabe gure artean eta gure euzkera kutuna da galtzaille urteten dauana.

Gauzak orrela, guk euskaldunok izan bear dogu bere alde alegin guztiak egin bear doguzanok, bidezkoa danez. Bestela, Ebaristo Bustinza "KIRIKIÑO" ren liburu bateko izenburuak diñoan lez: "EDO GEUK EDO INOK EZ, EUZKEREAREN ALDE". Bai orixe. Guk ez ba dogu ezer egiten, kanpokoak bez.

AURRERA ALA ATZERA

Zoritxarrez, beste gai askotan lez, emen be, euskaldunok guztiz banatuta agertuten gara. Danak bat egin bearrean, bakotxa bere aldetik doa eta olan ez da arritzekoa gauzak, doazan legez, joatea.

Gaur egun, euskal erakundeak diru ugari erabilten dabe euzkerearen alde, aurrera egin dagían, ikastolak nun-nai doguz, euzkerearen aldeko alkarteak, ekitaldiak, geroago ta liburu geiago argitalduten dira euzkeraz, írrati ta telebisiñoak euzkeraz egiten dabe (batzuk beintzat), eta ori gorabera, zer lortu da? Ba, egia esateko... gitxi, ezebez ez esatearren eta ez ori bakarrik, euskaldun erri eta etxe askotan erdera nagusitzen joaku.

ZERGAITIK

Aide batetik, euskaldunen zabarkeriz. Bai, minoarri bada be, egi utsa da. Jen-deak jakin arren, ez darabil; batzutan, erosoago egiten jakolako erderaz egitea eta beste batzutan, lotsatu egiten dalako.

Bestetik, Euskaltzaindiaren jokabidea eta berak sorturiko "el Batua" deritxona. Baiña, ori baiño lenago, begitu dagigun atzeruntz denboran.

EUSKALTZAINDI ZINTZOA

1919garren urtean, Euskaltzaindia (jatorrizko ta benetakoa) sortu zanean, ba-

egozan euskaltzale ospetsu ta zintzo batzuk, Azkue buru ebela. Orrein artean batzuk aitatu giñeiz: Eguzkitza, Campion, Urkijo, Olabide... eta abar.

Gizon oneik gogor ekin eutsoen euzkera obetu ta aldeztuteari eta batez be, bere batasuna lortzeari. Orretarako, Azkueren "Gipuzkera Osoa" oiñarri lez ebela. Orren alde egin eben lan, baiña euskalki guztiak kontutan artuta.

GUDALDIA

Geroago, 1936ko guda ankerra eldu eta Euskaltzaindiaren lana eten eginda geratu zan.

Guda ori amaítu eta urte batzuk igaro ostean, Euskaltzaindia asi zan bere lanean barriro be.

Urteak joan, urteak etorri, akademia onek aurrera jarraitu eban, eta olan, irurogei urteetara elduko gara.

LARRIALDIA

Urte oneitan asi ziran euzkerearen larrialdi eta zoritxarrak. Ona emen adibide batzuk:

On Manuel Lekuona, euskaldun jakintsu eta bikaiña, Euskaltzaindiatik kanporatua da, "el Batua" geroago izango dana, ez daualako onartu gura. Guzti ori azpikeriz eta koldarkeriz egiña.

1968'garren urtean, Euskaltzaindia "barri" onek ontzat emoten dau "el Batua ori, euskaldun jatorren aolkuak baztertuaz.

Andik, amar urtetara, (1978an, ain zuzen be), beste batzar bat izan zan Bergaran, Euskaltzaindiaren barruan. Emen jazoko zan Euskaltzaindiaren banaketa.

EUSKERAZAINTZA

Euskaltzale ta jakintsu batzuk. Euskaltzaindiatik urten eta Akademi barri bat sortu bearra ikusi eben. Olan agertu zan: EUZKERAZAINTZA-ERRI AKADEMIA.

EUSKALTZAINDI OKERTUA

Ordutik ona, gauzak olan ikusten doguz:

Alde batetik, Euskaltzaindia "barri"orrek, utsak zuzendu bearrean, aurrera darrai. Olan, "H" alper ori toki guztietan sartu, erderakadak zenbat gura, eta bere arauak onartuten ez dauzana, "or konpon, Mari Anton".

Orregaz, euzkera erreztu eta erakargarri egin bearrean, askoz gatxago egiten dau eta orren ondorioz, jendeak "Zein gatxa dan" esanaz ez dau onartuko gure berbeta ederra.

Ori eta guzti be, Euskaltzaindi "barri" orrek alde guztietatik laguntza aundiak

jasoten dauz, mueta guztietakoak. Beraz, aurrera jarraituko dau ondamendia zabalduz.

JOKABIDE JATORRAK

Bestetik, eta orreri aurre egin nairik, ba-doguz euzkera errikoiairen alde lan eta ekintza txalogarriak egiten dabezanak. Merezi dabe, bai, aitatuak izatea erri lauak argi eta garbi jakin eta ezagutu dagizan.

Oneixek aitatu giñeiz: "Euzkera-zaleak eta "Euzkerazaintza". Biak alegin danak egiñaz, euzkerea eriotzatik salbatu edo gaizkatu guran.

Gizasemeen artean, oneixek doguz: Aita Santi Onaíndia (Euskaltzale eta olerkari ta euzkeratzaille parebakoa), Augustin Zubikarai (idazle jator eta oparoa), Iñaki Zubiri (ídazle ta jakintsu bikaiña). Martin Olazar (Euskerazaíntzako Lendakaria eta euskaltzale aspergabea), Karmelo Etxenagusia (euskal maisu ta euskeratzaille beíñena), besteak beste.

Danak lan aundia egiten dabe euzkerearen mesedean; artzen daben ordaiña, ostera, oso urria da. Danok dakigu zergaitik.

ERANTZUNA

Idazki oneri izenburua damotson itaunari erantzunaz auxe esan giñei: Euskaltzaindiak daroan bidetilk eriotzara doala, batez be, bere euskal sena ta jatortasuna kentzen ba dautsaz.

Eta ilten ba jaku gure Euzkerea, zer geratuko jaku? Azkenean, Euskal-Erria eta Zamora parra eta gure nortasunari agur esan bearra.

Alan be, ondiño sasoiz gagoz euzkerea indartuteko barriro. Eta ori zelan lortuko litzake?

Euzkera ondo batu gura ba'dogu, euskalkiak garrantzi aundikoak dira, eta oneik be balio bear dabe orretarako. Orduan, bai aIde batekoak (Euskaltzaindiakoak) eta bai bestekoak (euzkera errikoíaren aldezleak), euren alegiñak batu bear leukiez, euren arteko aldeak aaztuz, berandu ízan baiño lenago.

Euskaldunok beti ibilli izan gara bananduta. Emen dogu aukera ezin-obeaa, benetako batasun bat lortzeko.

Pentsakera eta pertsonen gaiñetik, gure Euzkereak iraun egin bear dau, orain, biar eta betiko.

Ez al gara izango ori lortuteko gauza?

MALAXETXEBARRIA TAR JON
"KALAMUA"
"ZER"
1992

ARGI BIDEAN

Asko gara bizikan, batera edo bestera jokaten alegindu gareanak.

Asko lanean míndu gareanak.

Beti brankaz jokatu bearrean aurkitu izan garealako, ekaikarí, denboraleari eutsí naían, itxasoan negu garratzetako ekaitz artean gora ta bera, ezkerreskuma olatu eta bagaen zapladak arken dabillan txaloparen antzera...

Euskal mundua dogu aurrean: euskal itxasoa. Kantauri itxasoaren antzera sarri arrotu ta gangartzen dan itxasoa. Kalma zuri baiño aize berde edo ipar baltzetan sarríago ezagutzen dogun gure itxasoa.

Itxas onetan era guztíetako patrioiak ezagutu izan doguz. Oíturen jarraikaleak, tradiziño baten menpekoak, eta zela-ala iraulkale izan diranak.

Or esateko Azkue berbera, or Lekuona. or baita Federiko Krutwwig, alemaniarra odolez, gizon jakintsu eta ikasía. Euskalkain autatu ebenetik gizon eztabaidatsua. Muga igaro bear izan eban Euskalkaíndiko lenengoko ítzaldi bat amaítu orduko.

Jakina, ez euskeraz, ez gerkeraz, txistik egiteko aukerarik ez gendun garizuma illun eta luze aretan gertatu zan ori.

Ba dirudí beste gauza asko eteteko burrukan, euskeran ere iraulka egín nai izan gendula. Eta bide barrietan asi giñan, euskeraren urak bíde barrietatik obeto joango ziralakoan.

Analisi zur, argi eta alderdikeri gabeko bat eskaken dauan bide barritze baten sartu giñan.

Ba dagoz bide ori dala-ta buruari eusten ari diranak, nora ete garoazan sinistu eziñez; urteera bako pendiz arriskutsu baten sartu eta garean larri, euskeraren bidea ortik joan bear eta dan salatzen...

Baiña lenago ere egon ziran lekaroan ots egin ebenak.

Asko dira ori ikusten dabenak. Asko baita, -bakoítzak daki zegaitik- mutu iraun eta jarraiken alegintzen diranak.

Alaz eta tartean agerken da egia ikusten asia dan norbaít. Mutu jarraiken koldarti izan nai ez dauanen bat. Eta bere aítorpen bakoitza, salaketa garratz izanaz batera, jokabide askorentzako ostikada da.

Guk ez dogu guretík ezer esango.

1990'ko Iraila'ren 30'n, "Deia" egunkarían agertu zana, etorran lez gogoratu-ko dogu. Datorran tokitik etorríta, pentsagarri ta pentsabide garratza askorentzat.

A. Zubikarai
1990

"HA FRACASADO EL PROCESO DE EUSKALDUNIZACION"

Federico Krutwing es duro y tajante al hablar del proceso de euskaldunización. Ese famoso batua es un desastre, es una cosa negativa. La lengua no se hace así sino por tradición literaria con los grandes literatos y no con cuatro "pelagatos" que procesan. Para mí, el proceso de euskaldunización ha fracasado ya que la filosofía con que se ha seguido ha sido populachera: que lo hable mucha gente aunque sea poco y mal".

El lingüista tiene una particular versión del euskera, lo define como "un vascuence un poco "pichi". peor que el esperanto y con el que puedan decir cuatro cosas: yo venir tú comer, si tú comer yo no venir. Es el idioma español con sonsonete vasco".

Krutwing no critica por el mero hecho de hacerlo sino que también aporta soluciones. Para él estaría en "dar valor literario al euskera, entre otras cosas. Hoy en día la literatura en euskera no vale gran cosa. Además, están los críticos literarios que no saben nada, son bastante ignorantes".

Según el lingüista el ejemplo lo tenemos en que la literatura que más se vende en el País vasco es la de libros de cocina, la de "casuelitas". La gente no sabe nada y para el futuro va a ser muy negativo, se las van a ver muy mal".

En cuanto al castellano, que lo califica como "idioma del proletariado" asegura que será un caos cuando Europa sea un mercado único ya que el inglés, alemán o francés se apoderarán de todo.

EUSKERAREN ERABILPENA ARAUZKOTZEZKO OINARRIZKO LEGEA

LEY BASICA DE NORMALIZACION DEL USO DEL EUSKERA

BOSKARREN ATALBURUA

Euskeraren idatzitako hizkuntza ofizial denezko erabilkera

30garren Atala

Jaurlaritza, Euskal Herriko Autonomia-Elkartearen lur-eremu osorako idatzizko hizkuntza ofizial denez, euskeraren batasun eta arauzkotasunas arduratuko da, Euskal Herriaren kultura ondarearen funtsezko zati direnez euskalkiei bizi diren tokietan zor zaïen begirunearen kaltetan gabe.

CAPITULO QUINTO

Del uso del euskerea como lengua escrita oficial

Artículo 30

El gobierno velara por la unificación y normalización del euskera en su condición de lengua escrita oficial común en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, SIN PERJUICIO DEL RESPETO A LOS DIVERSOS DIALECTOS, parte esencial del patrimonio cultural del País Vasco, en las zonas en que son hablados.

EUSKAREN NORMALIZAZIO BIDEAN URRATS BERRIAK

1. HIZKUNTZA POLITIKAREN BILAKAERA ETA GAUR EGUNGO EGOERA

Euskararen erabilera gízartean sendotzeko gogoetak eta proposamenak, aspaldikoak ditugu. Eusko Ikaskuntzak 1918an Oñatin ospatu zuen lehen kongresuan esateralko, Luis de Eleízalde argitasun handiz bereiztu zítuen hizkuntza-
ren beharrak edo gaur egun corpus plangintza esango genukeenaren beharrak,
eta, era berean statusarenak, bigarren esparru honetan ere helburuak jarriz eta
proposamen zehatzak eginez. Hala ere, denok ezagutzen ditugun arrazioak
medio, laister itzali ziren ordungo herri erakundeek (foru aldundiek batik bat) mar-
txan jarri zituzten jardunak (auzoeskolen esperientzia adibidez).

Azken lau hamarkadei begira jarriz, euskararen aldeko jardunak aldi ezberdi-
nak izan dituela esan daiteke. Euskararen hiritartze prozesua zuzpertzeko
garaia izan zen lehena, 1960tik 1980ra bitartean, gitxi gora behera, erakunde-
tzearen garaia bigarrena (80ko hamarkadan batik bat), eta "aro berria" deitu dena
hirugarrena (gaur egungoa). Badago gure ustez, haínbat ezaugarri euskararen
hizkuntza politika berriaren atarian gaudela esateko. Izan ere, azken urteotan
metatutako ezagutzak eta eskarmentuak erraztu egin digute euskararen gaineko
diagnostikoa eta lehentasunak adosteko bidea.

Politika berriaren beharra adierazten duten sintoma edo ezaugarrietako batzuk
aipatzearen esan daíteke, gutariko gehienak bat gatozela euskararen erronkarik
nagusienetakoak belaunaldien arteko jarraipena ziurtatzean eta erabilera indar-
tzean daudela, edo/ta erronka horiei erantzuteak jokabide aldaketa eskatzen
diela, bai erakundeek eta bai herritarrei.

Euskararen alde erabili diren ahalegin eta baliabideen ondorioz igo egin da
azken urteotan euskararen normalizazio-maila, honela esaterik badago behintzat.
Horretan ados daude aditu eta analista ia guztiak eta baita bestelako herritarrak
ere. Gehienok, aurrera goazela adierazten dugu bai hizkuntzaren beraren

bai hitzun elebidunen kopuruan, bai erabilera sozialean eta baita euska-
rarentzako erabilera eremuak irabaztean ere.

Baina, egia esan behar bada, ezagutza mailan izandako gorakada bera ez
dugu erabileran nabaritu. Izan ere, elebidunek euskara erabili dezaten, hau da,
euskara eta gaztelania (edo írantsesa) dakitenek euskaraz egin dezaten, behar-
beharrezko da, batetik, solaskide guztiak ere, edo gehienak behintzat, (%75a)
euskaldunak izatea eta, bestetik, gaztelaniaz edo írantsezeg egiteko duten gaita-
sun bera gitxienez izatea euskaraz egiteko ere. Soziolínguístikoki euskaldunenak
diren lekuak alde batera utzita, euskara erabiltzeko dauden aukera errealak oso
eremu zehatzetara mugatzen dira oraindik: bikote euskalduneg osatutako familie-
tara, ia euskalduneg bakarrik osatutako lagun taldeetara, D eredu nagusi duten
eskoletara eta euskaraz egiten diren eskolaz kanpoko jarduetara...

Corpusari dagokionez, esan daiteke, gizartean euskararen egoera normaltzen ari den hein berean ari dela euskara bera ere garatzen. Zentzu horretan, aipagarria da zein urte gitxitan bideratu den euskararen estandarizazio prozesua. Euskara batuak egun duen gizarte-onarpena UKAEZINA DA ETA EUSKALKIEK DUTEN ETA BEHAR DUTEN TOKIA ere geroz eta gehiago hartzen da aintzaketzat. Dena den, badugu arlo honetan ere zereginik oraindik (hiztegi batua, terminologiaren normalizazioa, estandarretik urrun dauden euskalkien prestigiatzea eta erabilera sustatzea,...).

Erabilera urriarekin lotuta dagoen beste puntu bat ere aipatu nahi nuke: euskararen erabileraren hedapenak, HIZKUNTZA-KALITATEAREN ARAZOA EKARRI DIGU. Esan barik doa beste hainbat gai edo arlo gizartean hedatzeak ere ekarri ohi duela kalitate arazorik, aro berriak bere ardatzak ondo sendotzen dituen artean behintzat (kultura eta hezkuntza gaiak gizartean hedatzeak ekarri du seguru asko aurreko aroekiko kalitate "galerarik"...). Arazo hori gainditzeko beharrezkoak diren ahalegin guztiak egin beharko dira, EUSKARAREN JATORTASUNA, ZUZENTASUNA ETA EGOKITASUNA ERE HEDATZEN JOAN DAITEZEN.

"ALTUBE IKASI GABE BESTE MUTURRERA JO ZUEN JENDE ASKOK". DIO JUAN GARMAK

Itzultzaile eta idazle legazpiarraren "Joskera lantegi" argitaratu du HAEE-IVAPek

Felix Ibargutxi

Juan Garziak bere Joskera lantegi aurkeztu zuen herenegun Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean. HAEE-IVAPek argitaratu duen liburu honek puntuazio-kode propio baten gabezia aztertzen du hasiera aldera, eta joskeraren arloko beste arazo batzuentzako soluzioak proposatzen ondorengo ataletan. KMko aurkezpenean Juanen anaia Joxerra ere mintzatu zen eta, modu ironikoan, sei akats bilatu zizkion liburuari: "Obra hau lodiegia da, zabalegia, salataria, lotsagabea, inpertinentea eta osatugabea". esan zuen. Egileak, berriz, aítortu zuen azkenaldi honetan berriz ere irakurri duela Sebero Altubereren Erderismos eta neoaltubianoztat jotzen duela bere burua.

"Egia da liburu hau askoz laburragoa izan zitekeela -esan zuen ondoren Juanek berak- baina hahiago izan dut argudioetan luzatu, irakurlea adostasun batera ekarri nahian".

Sebero Altubereren alde jardun zuen Juan Garziak: "Liburu hau bukatu ondoren, Altubereren Erderismos irakurtzen aritu naiz eta sentitu dut haren lantegia egiten ari naizela urte asko geroago. Niri kasorik egiten ez badidazue ere, egiozue behintzat hari. Obra horren lehen edizioa 1929koa da, ezin esango dugu, beraz, euskararen arazo guztiak frankismoak ekarri zituenik. Nik irudipena daukat Altube ikasi gabe beste muturrera jo zuela jende askok eta, azkenean, galduta ibili garela. Ibon Sarasolak, esan zidan behin neoaltubianoa naizela eta uste dut hala dela, bai, neoaltubiano naiz".

Eredurik eza

Juanen iritziz, "ahizko jardunean nola edo moldatu egiten gara, baina idatzizkorako ez daukagu oraindik eredu funtzionalik; arazoari oinarritik heldu behar diogu, eta pentsatu ea prest gauden lanari.

Sarasola jauna:

Ondo dio, oso ondo Juan Garzia jaunak, itzultzaile eta idazle ospetsuak: "Altube ikasi gabe beste muturrera jo zuen jende askok". Zuk "chicanotze prozesua" deitzen duzun ori, ez da gauetik goizera sortutakoa; baizik eta zu gazte zifaneko aziaren emaitza. Eta garai artan guk, On Manuel Lekuona'ren jarraítzailleok, "euskerantoa" deitu genion "chicanotze prozesu" orri.

"Euskerazaintza"k

DIRULAGUNTZA-GAIAREN AZALPENA

DESCRIPCIÓN DEL PROGRAMA O ACTIVIDAD

Egitarau mota / tipo de programa: 1 B C D E ® F
Adierazi zein egitarau den / Márquese el programa que proceda

Helburuen azalpen laburra / Breve descripción de los objetivos: *EUSKERAZAINTZA, euskera errikoia, euskalkietan bizi dena indartzeko eta aurrera ateratzeko sortua izan zen. Eta aldi berean euskeraren jatorrasuna, zuzentasuna eta egokitasuna lantzeko. Eta kon-tuan izanik*

- *EUSKO JAURLARITZAPEN "Euskararen Normalizazio Bidean Urrats Berriak"*
- *"Euskararen erabilpena arakotzeko oinarritzko legea" Batez ere 30gn. araua /10/1982 Legea.*

Zehaztu puntuz puntu ondoko alderdiak / Especificar cada uno de los puntos siguientes:

A) Euskararen sustapenean. garapenean eta normalizazioan izan dezakeen eragina. Orijinaltasuna eta bideragarritasuna / Contribución a la promoción, difusión y normaliza-ción del euskera. Originalidad y viabilidad

"Normalizazio Bidean Urrats Berriak e.J.ren txostenak onela dio: "Euskara batuak egun duen gizarte onarpena, ukazina da eta euskalkiak duten eta bear duten tokia ere geroz eta gehiago hartzen da aintzakotzat. Euskararen erabilpenaren heapenak, hizkuntza kalita-tearen arazoa ekarri digu"

gure ustez orixe lantzen dugu ain zuzen. Euskeraren batasuna bakoitzak ondo dakien euskalkian oinarritu bear duela uste bai dugu. Kalitateari eusteko, au da: jatorrasuna, zuzentasuna, egokitasuna eta izkuntzaren abarastasuna.

B) Ezarpen-esparrua / Ambito de actuación

Gipuzkoa eta Bizkaia geienbat. Baditugu arremanak Nafarroan, Lapurdin eta Zuberoan ere. Gure lanak, egitarauak eta usteak, "Euskerazaintza" aldizkariaren bitartez zabaltzen ditugu.

C) Eskatzailearen izaera: esperientzia eta bermea, elkarlanean jardutea, ekintzaren har-tzaile-kopurua / Naturaleza de la entidad solicitante: experiencia y garantía, la en colaboración con otras entidades, número de receptores de la actividad. *EUSKERA-ZAINTZAK "Erri-Zuduzkotasunaren Aldarrikapena" dauka. Gure bazkideen artean izen aundiko idazleak ditugu. Baita ere olerkariak, lizenziatuak, Filologoak eta Doktoareak. Orien barruan izlari trebeak.*

"Euskararen Unibertsoa" izeneko jardunaldietan esku artu dugu.

Gure bazkideek onako auetan idazten dute: El Diario de Navarra "Nafar Izkuntza" ize-neko ornan. Zer Bizkaiko aldizkarian. Sasaki-Naski, Gipuzkoako aldizkarian. Ekintzaren artzaile kopurua, esandako orietan eta gure aldizkarian 4.800 ale urteko iru illebeoro argi-taratzen dugularik.

Oharra/ Observación: informazio osagarria aurkeztu behar izatekotan, erantsi orrialde honi / En caso de ser necesaria la presentación de información complementaria, únase a esta página.

Eraskiña:

"Udako ikastaroaren — Egitarau. Uztailean burutzeko asmotan.

(EI Diario Vasco 28-11-92)

HISKUNTZ MAILEN NAHASTEA

Patziku Perurena

Egungo euskaldunak, lautatik hiruk benpe, ez du bereizten eremu publiko edo ofizialetan (eskolan, unibertsitatean, prentsa idaztian, irratian, telebistan) erabiltzen den euskara eskeletikoa eta herriko edo etxeko euskararen tradizio biziko hizketaren artean dagoen alde ikaragarria.

Are gehiago, herriko edo etxeko hizkera ederragoa eta aberatsagoa dela begien bistako gauza izanarren, gutietsi eta baztertu egiten du gazteak, modan dagoen beste eskeletiko hori ederragoa delako uste osoan.

Baíta euskaltegira alfabetatzera dihoan betiko euskaldunari ere gauza bera gertatzen zaio: inork duen euskararik aberatsena eta biziena bera izanik, pape-rean leitzen duen edo irakasleak dotore adierazten díon eskeletiko arrotz huraxe irudituko zaio eredugarriena, dotoreena.

Hizlariaren irudi publiko eleganteak, haren ahots lodikk, hitzaren ahozkatzen zehatzak, ematen diola uste du jende guziak hiskuntzari aberastasuna, eta hain zuzen, alderantziz izaki? Edozein komunikabide publikotan ari den ahots lodiko esatari elegante horrek ez baitu herriko hizkera bizia mozorrotu, zalahardatu eta itxura engainagarri batez apaindu baízik egiten.

"EUSKARAREN BATASUNA PIKUTARA DOA"

Ibon Sarasola euskaltzain osoa da. 1946an Egian jaioa, histegigintzan aritu da, eta poesiak eta eleberrí bat, "Jon eta Ane zigarro bat erretzen". idatzi ditu. Egun irakasle da Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan, Filología Hispanikoko fakultatean, eta datorren asteartean, hilak 11, bere azken liburua aurkeztuko du: "Euskara batuaren ajeak".

BIZKAIERA				BATUA		
ZER	NORI	NOR		ZER	NORI	NORK
	ST	T			T	T
	A/Na	WNa			WN	K/N
	TSO-TSA	-			O	-
D e -U	SKU (1)	GU	Z	D 1 Z- ki	GU	GU
	TSU	ZU			ZU	ZU
	TSUE	ZUE			ZUE	ZUE
	TSE	E			E	TE

(1) Nori eta Nork biak 3. pertsonalkoak direnean -TSO-, bestela -TSA-.

Niri		Guri	
Deusta-k/Zak	Di-dak/Di-zki-dak	Deusku-k/zak	Di-guk/zki-guk
Deusta-na/Zana	Didan	Deusku-n/Zana	Digun
Dust/aZ	Dit	Deusku/z	Digu
Dustazu/Z	Didazu	Deuskuzu/z	Diguzu
Deustazue/Z	Didazue	Deuskuzue/z	Diguzue
Deuste/Z	Didate	Deuskue/z	Digute
Hiri		Zuri	
Deua-t/Zat	Di-at/di-zki-at	Deutsut/daz	Di-zut/zki-zut
Deuna-Uzat	Dinat	Deutsu/z	Dizu
Deua/z	dia	Deutsugu/z	Dizugu
Deuna/z	Dina	Deutsue/z	Dizute
Deuagu/z	Diagu		
Deunagu/z	Dinagu	Zuei	
Deue/z	Diate	Deutsuet/daz	Di-zeUzki-zuet
Deune/z	Dinate	Deutsue/z	Dizue
		Deutsuegu/z	Dizuegu
		Deutsuee/z	Dizuete
Hari			
Deutsat/daz	Di-ot/zki-ot	Haiei	
Deutsa-k/zak	diok	Deutset/daz	Di-et/zki-et
Deutsa-n/zan	Dion	Deutse-k/zak	Diek
Deutso/z	Dio	Deutse-n/Zan	Dien
Deutsagu/z	Diogu	Deutse/z	Die
Deutsazu/z	Diozu	Deutsegu/z	Diegu
Deutsazue/z	Diozue	Deutsezu/z	Diezu
Deutsie/z	Diote	Deutsezue/z	Diezue
		Deutsie/z	Diote

Aditzaren batasuna...?

Eta nola ikusten duzu oro har euskara batuaren inguruan egindako lana?

Alde batetik, oso positiboa izan da. Ni baino zaharragoak direnek esaten dute ez zutela sinesten herri hau gai izango zenik batasuna hain ondo eta hain denbora gutxian egiteko. Koldo Mitxelenak, adibidez, egundoko zalantzak zituen, ez zuen garbi ikusten aditzaren batasuna egiteko moduan izango ginenik. Alde horretatik, eredu izan gara mundu osoan.

Hala ere, espainola alde guztietatik sartu zaigu, zabarkeriaz eta inolako neurririk hartu ez dugulako.

Sarasola jauna:

ADITZAREN BATASUNA...? ALA EBAKUNTZA?

'Euskerazaintza'k'

IBON SARASOLAK USTE DU "'CHICANOTZE' PROZESU BAT" ARI DELA GERTATZEN

Gaztelaniarekiko menpekotasuna salatu zuen 'Euskara batuaren ajeak' aurkeztean

Ibon Sarasolak Euskara batuaren ajeak liburua aurkeztu zuen atzo Donostía-ko Udal Liburutegian. "Etsenpluen liburua" da hau eta "Euskara batuaren ize-
nean" zabaldu diren hitz okerren zerrenda. Lexiko mañlako lana da batik bat, alde
batera utzi baititu Sarasolak joskera hutsak. Atzoko aurkezpenean egileak esan
zuenez, "gaztelaniaren eraso" bizi du gaur egun euskarak eta Iparraldearekiko
loturak guttiz ari dira eteten. "Txikanotze prozesu bat gertatzen ari da" eta zen-
baiten euskara batua ulertzeko behar-beharrezkoa da gaztelania ezagutzea.
Hegoaldekoontzat "Iparraldea erreferentzi puntua da, elebakarren halako erreser-
ba bat baita".

Aldatzeko beldurra

Aldatu beharreko hitzak aldatu behar direla uste du esukaltzain honek, baina
beldur da jendeak ez duen bertan goxo egingo, konformidade osoz. Hau dío
aurrerago hitzaurrean: "Beldur naiz nire belaunaldia ez dagoela horrelako ahale-
gin bati ekiteko prest. Ez gara dagoeneko gazte, eta aski konforme gaude; gaí-
nera funtzionario edo bihurtu gara seme-alabak ditugu eta berrogeita hamarren
bat urte ez da adin egokiena gauza berriak ikasteko eta, batez ere, ohiturak alda-
tzeko".

Orain atzean ez du belaunaldi kementsurik ikusten: "Mitxelenak euskararen
alde egin bazuen, atzetik balaunaldi kementsu bat ikusi zuelako egin zuen. Orain
ez dago horrelako belaunaldirik, ideología ahulen erkinen garaia baíta hau".

Berak proposatzen dituen irtenbideak ez omen dira zailagoak, "hiztun garbia-
rentzat bederen; zeren hizkuntzaren berezkotasunaren eta naturaltasunaren bila
ibili bainaíz, ahaleginean".

Bi euskalki bakarrik

Sarasolaren ustez, haín da haundia gaztelaniaren eraso azkenean euskarak
bi euskalkí baino ez dituela: "Iparraldekoa eta Hegoaldekoa, eta bigarren hau era-
bat gaztelaniaren mende dagoena". "Eta gaínera ez gara konturatzen zenbaterai-
no sartu zaigun espainola; guk esaten dugunean 'eta abar luze bat', Iparralde-
koak harrিতa gelditzen díra, ez dute ulertzen, beraíentzat 'egurrezko abar luze
bat.

Sarasola jauna, begirunez:

- "Berrogeítamar urte ez da adin egokiena gauza berriak ikasteko". díozu.
- Beraz, orain, "arrazoi biologikoak" ez du balio. On Manuel Lekuona'k zenbat ote zituen 68'an?
- "Orain atzean ez duzu belaunaldi kementsurik ikusten"
- Ori zaarraren arrazoa izateaz gain, zaarkituarena ere bada.
- "Bi euskalki bakarrik omen ditu euskerak orain, Iparraldekoa eta Hegoaldekoa"
- Eta Bizkaiera zer ote...???
- Euskara batuaren ajeak" baiño ez al litzateke egokiagoa "Euskeraren ajeak" esatea?? "Batua" ez bait da izkuntza.
- Liburu onen 2.04 atalean Jesus Gaztañaga'ren "Erderakadak eta Akatsak" izeneko aspaldiko "lore sorta" bat ortxe duzu. Beraz, "Ajea" ez da gaurkoa, Eta ori azaltzeagatik, gure Jesux, ankaz gora ibilli zuten zenbaiteren "arrazoi biologíkoak". Nikolas Ormaetxea -ORIXE- inpemuetara bidaltzeko, Gabriel Aresti "santifikatu" zeneko garaia zen...

Euskerazaíntza'k

BORDAK SARASOLARI: "EZ DUGU LITERATURAREN IRAKURKETA FILOLOGIKO JANSENISTARIK NAHI"

Mikaztu egin da Iparraldeko zenbait idazle eta euskaltzainaren arteko eztabaida

Zuberoan bizi den itxaro Bordak bere bosgarren olerki-bilduma aurkeztu zuen atzo Donostiako Udal Liburutegian. Eta, bide batez, azkenaldi honetan Iparraldeko zenbait idazle eta Ibon Sarasola donostiar euskaltzainaren artean dagoen idatzizko eztabaidaz ere mintzatu zen. Hasteko, esan zuen Egunkariak hilaren 11 n argitaratutako Iparraldeko hamalau idazleren agiri hori berak idatzia dela, eta ez Emilio Lopez Adan, Beltzak.

Iparraldeko zenbait idazle eta Ibon Sarasolaren arteko polemikak sustrai aski luzeak ditu. Lehengo maiatzean, Ibon Sarasola Baionan mintzatu zen bere euskararen ajeak liburuari buruz, Maiatz elkarteak gonbidaturik. Hitzaldi hartan kezkatuta agertu zen Sarasola, Iparraldeko idazle talde berri batek, Maiatz aldizkariaren ingurukoak hain zuzen ere, literatur hizkeraren tradizioa eten duelako. Euskaltzain honen ustez, frantsesetik hitz gehitxo hartu dituzte idazleok, eta, ondorioz, Hegoaldeko euskaldun ikasleei ere oso saila gertatzen zaie haien prosa.

Iparraldeko idazle horiek ez zuten ontzat hartu Sarasolaren arrazoiketa. Hil honen 11 n, Euskaldunon egunkariak hamalau idazlek izenpeturiko iritzizko artikulua luzea argitaratu zuen. Honako hamalau lagun hauek, alegia: Itxaro Borda, Emilio Lopez Adan Beltza, Henriette Afire, Ur Apalategi, Aurelia Arkotxa, Luzien etxeharreta, Jon Casenave, Eñaut etxamendi, Gillon Irigoien, Martin Irigoien, Mailux Legorburu, Marijan Minaberri, Maddi Pelot eta Auxtin Zamora.

Idatzi hartan idazleok ziotenez, -Iparraldeko idatz tradizioa, hegoaldeko filologo eta jakintsunek hitz altxor moldean erabiltzen dutena, berria da: 1850-1950 artean finkatu zen, euskaldun-fededun ideiarekin inguruan.

Areago zihoan testua: Goraipatzen den idazle tradizio hau izpiritu eta jarrera politiko bat da: larrutu jendeari baten zoriontsu eta batua agertzeko diskurtso kontsentsual bat, apezten, nausien, notableen jandarmen eta gizon politikoen errespetuaren bermatzeko.

Hegoaldeko misiolaria

Atzoko Egunkariak Ibon Sarasolaren erantzuna zekarren. Euskaltzainak zioenez, Emilio Lopez Adan Beltzak idatzia izan behar zuen lehengo testu hura, eta bere idazlanaren izenburuan bertan ere Hegoaldean jaiotako sendagile horri buruz ari zen Sarasola: Hegoaldeko misiolaria Iparraldeko indijenei zer behar duten sinatu (eta sinetsi) erakusten.

Atzoko ekitaldian Itxaro Bordak esan zuenez, berriz, berak idatzia da ekainaren 11 ko agiri hura, eta ez Beltzak.

"Eta erran behar dut hemen -azaldu zuen Itxarok atzoko ekitaldian- ni Iparraldekoa naizenez, eta gainera Ekialdekoa, Zuberoan bizi bainaiz, talde horrekin bat egiten dudala beti. Ze Sarasolaren gaurko artikulua ikusten baduzue, bada taldea desegiteko xedea".

"Uste dut Iparraldeko idazleek elkartasuna behar dugula erakutsi". jarraitu zuen Bordak. "Eta ez dugu nahi holako molde politiko bati atxikitako tradizioerik. Hizkuntz tradizio hark sumisioa gorensten baitezuen".

**Iparraldeko idazleok ez dugu
Hegoaldeko gehiengoa
kopiatu nahi, esan du Bordak**

Iparraldeko idazleen idazkera "anitzta" deia esan zuen baita ere: %ahi nuke erran gure idazteko era anitzta deia, hemen Hegoaldean den bezala, baina ez dugu hemengo gehiengoa kopiatu nahi. Erreibindikatzan dugu idazteko atsegina, filologoek literaturaz egin dezaketan irakurketa jansenista horretarik urrunago".

"Kontsiderazione patemalista horretarik aski da, bai hemen, bai han. Finitu dira kolonialismo kulturalaren garaia", azaldu zuen gero.

Elkar ezagutuz

Euskara batuari buruz hau adierazi zuen Bordak: " Euskara batua, gurekin, Iparraldeko jendearekin egiten da. Elkar ezagutuz eta elkartasunez egiten da. Gomendatzen dizuet irakurtzea Iparraldean egiten den literatura, eta ez bakarrik Jon Mirande arterainokoa, Jon Mirandetik onararaz ere. Eta ahaztea Iparraldeko liburuak direla. Ze muga hori Hendatan izateia, gutarik kanpoko borondate politiko baten emaitza da".

Atzokoan, Sarasolak honela laburtu zuen horrenbeste ita-mika ekarri duen bere kezka hori: Azken urteetan sortu da Iparraldean idazle talde berri bat, Maiatz aldizkariaren inguruan, mugaz haraindikoko panorama aski hila astindu nahi duena. Berri pozgarria eta esperantzagarria, inondik ere, hango egoera hitsean. Baina berritze horrek -Hegoaldean azken 30 urteetan gertatu denaren ildotik- literaturara hizkuntzaren frantsese itaragarria ekarri du (...) segur aski ezinbestekoa izango da frantsese hori, hein batean bederen, Iparraldeko gazteria euskaltzaletzeko; baiña kalte handia ekartzen dio euskararen batasunari, hizkuntza nazionalari".

(El diario vasco 19-6-1998)

"Ensayos críticos sobre la unificación literaria del vascuence"

José Lasa Apalategi — 1973

UNA HIPOTESIS PLAUSIBLE MIRANDO AL FUTURO

En una de las ponencias de la Asamblea de Arantzazu, de donde dimana la actual polémica en tomo a la unificación, el ponente a la sazón, Sr. Mitxelena, dejó caer el siguiente pensamiento: la juventud, biológicamente, tiene razón siempre. Es una Sentencia algo enigmática, con la intercalación del adverbio "biológicamente".

Sin embargo, el contexto arrojó abundante luz sobre el significado de la proposición. Bueno es, pues, que nos demoremos un tantico y le dediquemos algún que otro comentario substancioso.

Partamos de un hecho. Los jóvenes, que en la memorada Asamblea, contaban de 20 a 30 años de edad, más cerca de veinte que de treinta, se acercan a galope a la cuarentena, otoño de la juventud. Si hemos de ser lógicos con el contenido de la proposición arriba citada, la nueva juventud podía hacer prevalecer en una nueva Asamblea sus derechos a favor de la línea trazada entonces o en contra. Y los niños que empujan inexorablemente a la juventud de hoy, 1973, mañana podían vindicar para sí el mismo pretendido derecho. ¿A dónde nos llevaría esta filosofía de la juventud?

No en vano dijo el poeta que la más hermosa de las edades es la primera en huir de entre los mortales. Después, *subeunt morbi tristisque senectus* (Virg. Buc. Lib. 111). Todavía la pasada Asamblea de Arantzazu tuvo lugar en un marco eclesial, bajo los reflejos oblicuos de una cristiandad agonizante.

No sabemos dónde será la cita de los escritores vascos, a los que asistirían aquellos jóvenes, con sus barbas seminevadas y los de hoy con su incipiente barba rojiza o negra como la pez. ¿Dónde sería? Tal vez, en la campa de Larraitz, a la sombra de Txindoki, en un marco prehistórico pastoril, sin las lindezas de la dulce cocina franciscana. Claro, la asamblea sería al aire libre y, los que siempre fuimos discípulos felices en esta clase de Asambleas, nos sentaríamos en el verde césped para tomar los apuntes sobre las rodillas.

De una tal Asamblea, a juzgar por los aires que soplan, no habría que esperar que nos despidiéramos de la Ermita de la Virgen con el canto de la *Salve o Ave Maris Stella*.

Tal vez, en la clausura, soltaríamos en todas las direcciones del País Vasco, como anuncio de una nueva primavera de unificación, bandas de palomas con anillas en las patas, *in memoriam*. Sería bonito, ¿verdad? Desde luego, ahora mismo me apuntaba yo para una Asamblea así.

Supongamos que el nuevo grupo de presión hiciera allí tabla rasa de la orto-

grafía presabiniana, la sabiniana y la postsabiniana y echara por tierra, con la furia de los iconoclastas del tiempo de la emperatriz Irene, todos los logros del nuevo experimento de unificación.

¿Cuál sería nuestra postura frente a ellos? Nada podríamos objetar por aquello de que la historia habla por boca de la juventud; ella biológicamente siempre tiene razón; la juventud es la promesa del futuro...

Creo que un puente así no puede establecerse entre las altas edades y la juventud, pues sería a la larga la muerte de aquéllas y de ésta. Si el verdadero amor consiste en querer bien al otro, es preciso hallar otra vía para la inteligencia con la edad primera. La misma experiencia es harto explícita en cuanto a que los que hoy sirven ciegamente a la juventud mañana son marginados por la misma.

Pero dejamos ahore el aspecto generacional.

Vengamos al problema del euskera.

La discontinuidad, las rupturas, los saltos bruscos, los impulsos traumáticos no favorecen nada a la vida y al ílorecimiento del euskera.

Un pueblo, como el nuestro, debe cultivar el mimo y el cariño hacia una tradición í fresca, viviente y amorosamente conocida y comprendida en sus cualidades y vicios.

El resto es vivir en el presentismo de los mosquitos y de los animales, los cuales ignoran la muerte, cuyo conocimiento, triste que sea, es uno de los terribles privilegios del hombre.

No soy tradicionalista, mas sí amante de la tradición, entre otras razones, porque no hay progreso auténtico sino en la línea de la tradición.

NOTA: Conviene que lo tengan presente los que argumentaron "razones biológicas", hace 30 años y hoy se sienten mayores para rectificar.

Hala jakinarazi dio Eusko Kontseilu Nagusiari

EUSKALTZAINDIA, GERNIKAKO ESTATUTUAREN SEIGARREN ARTIKULUA ALDATZEAREN ALDE

Euskaltzaindiak gutun bat bidali die Eusko Kontseilu Nagusiko Lehendakari den Karlos Garaikoetxeari eta Kontseilu Nagusi honetako beste kontseilari guztiei, Gemikako Estatutuaren 6garren artikulua bostgarren zatia aldatzeko eskariarekin. Hain zuzen, Madriden eztabaidatu aurretikako Gemikako Estatutu proiektuaren testuak zioenez, Euskaltzaindia aipatzen zen, hizkuntza arazoetarako erakunde bakar bezala.

Estatutuari buruzko Madrideko akorduen ondotik, haatik, puntu hau aldatu egin da eta orain ez dagokio, testuak dioenaren arabera, Euskaltzaindiari hizkuntza arloko eginkizun guztia, oso osoan.

Gauzak orain geratu diren bezala, Euskaltzaindiaz gainera, Euzko Ikaskuntza eta beste erakunde batzu ere kontsultagarri lirateke euskararekin zer ikustekorik luketen hainbat arlotan. Euskaltzaindiko Jon San Martinek esan duenez, ohargarri da Euzko Ikaskuntzak, Lizarrako Estatutua idatzi zuenean, bigarren kapituluaren seigarren zatian, euskarari zegokion guztia Euskaltzaindiari utzi ziotela, 1931ean.

EUSKALTZAINDI BERRIA EUSKERAREN JABE OTE...?

PROTESTA DE EUSKALTZAINDIA POR SU MARGINACION DEL ESTATUTO

La Real Academia de la Lengua Vasca ha reclamado para sí la exclusiva en la consulta de las materias lingüistas, que ha desaparecido del Estatuto

Los 24 académicos de esta entidad han dirigido una carta de protesta al Consejo General Vasco y a su presidente, en la que manifiestan que no están de acuerdo con el apartado V del Estatuto de Gemika.

Proponen también estos académicos que se tenga en cuenta el primer Estatuto vasco, aprobado en la Asamblea de municipios vascos el año 1931, en el que la Sociedad de Estudios Vascos dejó la parte consultiva en materia lingüística a la Euskaltzaindia.

Esta entidad tiene en proyecto la formación de una escuela de traductores y la ampliación de alfabetización a nivel mundial y un homenaje a Severo Altube, que comenzará el 27 de agosto en Gemika y se prolongará en Mondragón, ciudad natal del escritor.

Y ella pretende marginar a los demás...
"Euskerazaintza"

("Diario de Navarra" 14-6-1997)

GARCIA MARQUEZ "NOBEL" DUNA ETA EUSKALTZAINDIA

Oso idazle ona izan bear du Ameriketako Kolonbi'n jaiotako Garcia Marquez eleberrigillea. Ala diote beintzet.

Nik nere iritzirik ezin ortaz eman aal izango dizut, bere eleberriak (nobelak) ez ditut irakurrita. Irakurri nai ízango ba'nitu ere, ez nuke astirik izango; dagidan lanerako. (Euskalerra'ko lenen Elizaren edestia bukatzeko) bearrezkoak ditudan idazkí guztiak irakurri aal izateko, apika betarik aurkitzen bait dut.

Dena dela, "Nobel Saria" eman diote beintzet, eta eman diotenean zerbaitegatik emango zioten, naiz nere ustez, sari izentsu orí ematerakoan erabilli oi diren erak, bizkaitarrek esango luketen bezala, agian "oso antetsuak" (muy acertados) izan ez.

Euskalerrian arrats maíte izan dute Marquez kolonbiarra punttako ezkertiarak. Gaur ezkerok ez dute ain maite izango. Zakatekas izeneko uri mexikotarrean Gaztelerrietako izkuntzalariek egin duten batzarrean, Euskaltzaindia aipatu gabe, agian Euskaltzaindiarik ba' den ere jakin gabe, parregarari utzi bait du Garcia Marquez'ek gure ezkertiar ertzakoiek ain kuttuna duten Euskaltzaindia.

Gogor ekin dio ba izkuntza guztietako ortografian. Batez ere bera ere gaztelera duna izanik, gaztelareren ortografi txoroan.

Kulturarentzat izugarritzko eragozpena omen da gaztelareren ortografi ori , agoskatzen ez diren" H"z eta "V"z, eta doñu bat berarentzat alperrikakoak diren bi edo iru izkiz beterik omen dagoelako. "K" ren doñua agertzeko iru izki omen ditu ("K", "C", eta Q"), bat bakarra naikoa lukeelarik. Bí, berriz "J" rena emateko, (J" bera eta "G"). Ortografi alu ori ikasteko urrea balio duen denbora galtzen omen dute gure gazteek, azkenean, gañera, ikasi gabe gelditzeko.

Bí gizonek erantzun diote Euskalerrian Kolonbi'ko eleberrigilleari, Kintana'k eta Olazar'ek.

Kintana'k bera Euskaltzaindikoa dela esanez, (eta orrela Euskaltzaindiaren izenean ari delako itxura emanik) arrazoía ez den arrazoi antzeko txatxukeri bat erabilliz. Berak dionez, au omen da Marquez'ek eskatu duena, (Kintana'ren ítz berberak emanen dizkizut): ("Una disparidad de sistemas para que cada cual escriba de acuerdo con su pronunciación particular, es decir con sus yeismos, seseos, lleísmos y contracciones").

Kintana'ren ízketa orri appellatio ad absurdum" esaten zaio erretorikan, eta norbaitek, egiazko arrazoirik ez duenean, etsaia parregarri utziz erabilli oi duen arras usaf zikiñeko "arrazoi" ustela besterík ez da. Marquez`ek ez bait du deus orrelakorik esan.

Sendagilleak berdura jan bear duzula esaten dizunean, ez dizu kolore berdea duen guztia jan bear duzunik esaten. Marquez'ek ez du Kintana'k leporatu nai díon alukeririk esan. Auxe besterík ez du esan: Alperrikako izki guztiak lenbaitlen

kendu bear direla ortografiatik. Gauza zintzoagorik eta zientzi guztien aldetik egokiagorik, esan al diteke?

Orregatik, zorionak eman ez erantzun dio Martin Olazar Euskerazaintza'ko lendakariak. Eta Euskaltzaindiari, arren, lengo Euskaltzandi jator arengandik artu zuan ortografira bíurtzeko eskatu dio, ori delako euskerari eta mota guztietako ikasleei egin dezaiekeen mesederik aundiena.

Ori nik baiño obeki munduan iñork ez dakí, izen aundiko Instituto batean irakasle izan naíz nere bzi guztian. Egin aal guztiak egin ditut neska ta mutil gazteei, adibidez "H" non jarri, erakusteko.

Alperrik !!!

Latiegi'tar Bixente

Se ha formado una comisión en defensa del idioma oficial

MÉXICO: EL "SPAÑGLISH" HACE UÑA DURA RESISTENCIA AL

ANTONIO ORTEGA. Efe. México

Una difícil tarea le espera a la "comisión del español" recientemente creada por el Gobierno mexicano en su lucha por la defensa de ese idioma, que es el oficial en el país.

Creada para cuidar y defender el español, la comisión centrará su atención, en principio, en las zonas de la frontera México-estadounidense y en las regiones en las que la lengua española no es la principal.

En el norte de México, sobre todo en la franja fronteriza, que tiene una extensión de 3.000 kilómetros, la influencia del inglés es muy grande y provoca la deformación del español, dando origen a una mezcla llamada "spanglish".

La comisión del español no ha dado aún a conocer sus programas para defender la lengua, pero se estima que éstos estarán dedicados a atacar el uso del inglés combinado con el español para lograr una buena utilización de este último.

De acuerdo con el lingüista José Lozano Tranco, 80 de cada mil palabras que se utilizan en la frontera México-estadounidense son de origen anglosajón.

El "spanglish" ha dado lugar al uso de palabras como "wacar" or ver, "konke" por depósito de partes, "troca" por camión, "jale" por trabajo, "sistinier" por bailar, y "tirar" por ir al cuarto.

Si bien en la frontera norte es donde se da más el fenómeno, también ocurre en el interior de la república, preferentemente en las grandes ciudades, donde la influencia del inglés es amplia, ya que se utiliza principalmente en la publicidad.

En la capital del país, la presencia del inglés y de otras lenguas no oficiales es muy marcada en ciertos barrios. En la televisión y en los cines, la mayoría de los nombres de productos y algunos nombres de programas y de películas no son escritos en español.

De "EL DIARIO VASCO"

GAZTELERAREN ERAGIÑA EUSKERA BATUAN

Guk "euskerantoa" deitu genion orren antzekoari.

Ibon Sarasola jaunak, orain "chicanotze prozesu bat". Berandu xamar ez ote...????

"Euskerazaintza"k

Euskaltzañdiak bitartean...

OPINION

**DE DON GONZALO TORRENTE BALLESTER, ESCRITOR, Y
PROFESOR DE LA UNIVERSIDAD DE SANTIAGO DE COMPOSTELA**

"Los técnicos del mundo de las computadoras, utilizan términos ingleses hablando español, esto es COMO METER UN MONTON DE PEDRUSCOS EN UNA CONFITERIA".

"Sería mejor que estos señores hablaran solamente inglés. No hacen nada para adaptar la terminología al español".

(Escuchado en Radio Cadena Española el 20-8-1985- a las 11 de la noche)

COMENTARIO DE EUSKERAZAINTZA:

Esta es una de las cuestiones importantes que pusieron de manifiesto los fundadores de Euskerazaintza, miembros de Kardaberaz y Euskerazaleak, cuando comenzó el imperio del "Batua".

Ahora el señor Sarasola, gran impulsor del batua, olvidadizo con el bizkaiera y en su juventud contrario a las tesis de Don Manuel de Lekuona, presidente de Euskaltzaindia hasta que lo echaron, se lamenta de que hay un proceso de "chicanización".

LEMA

**QUE FIGURA EN EL EMBLEMA DE LA REAL ACADEMIA DE LA
LENGUA ESPAÑOLA:**

- Limpia, fija, da esplendor.
 - LIMPIA: Conserva la pureza, eliminado términos no castizos.
 - FIJA: Dando normas comunes.
 - DA ESPLENDOR: Conserva la riqueza lexical
- Podría afirmarse lo mismo de la nueva Euskaltzaindia...?

ORACIÓN DE DON MENENDEZ PIDAL

Estimo importantísima la opinión de Menendez Pidal y paso a exponerla inmediatamente.

Era el año 1921. La joven Euskaltzaindia había recibido de la Sociedad de Estudios Vascos en 1918, la tarea de "unificar al Euskera para la literatura". ¡Cómo estaba, Dios mío, entronizado en las mentes de aquellos hombres ilustres el falso podrido mito de la Unificación! De una unificación a la latina, es decir a la castellana, "a la española", utilizando la expresión Txillardegiana, de una unificación totalmente ajena, extranjera, antinatural al Euskera. Digamos, aunque ello sea repetitivo, en honor de aquella Euskaltzaindia pre-aranzazuana, que sus hombres (Azkue, Campion, Eleízalde, Broussain, Lhande...) tomaron la tarea en sus manos con temor y temblor, con religiosa veneración y delicadeza, evitando con exquisito cuidado todo cuanto pudiera tener visos de violencia u obligatoriedad.

A pesar de todo, con ojo certero, el gran filólogo, Menéndez Pidal, vió enseñada que allí se estaba gestando al vampiro que iba a devorar a los Euskalkis. Que aquel Euskera Unificado que se pensaba fabricar era terriblemente peligroso para el Euskera real y verdadero, para el Euskera de los Euskalkis. Y el filólogo habló, con energía:

«Se comprendera que verdaderamente se trata de formar una lengua artificial; pero una lengua así ¿puede ser lengua de un pueblo?»

«Podréis llegar a tener un Eusquera (sic) literario único pero eso no será obra momentánea. Fácil relativamente es hacer un libro para uso de unos cuantos escritores; una combinación del guipuzcoano y labortano y proveerla de perfecciones de otros dialectos, pero esa, creo, no llegará nunca a ser la lengua de un pueblo.

«Fíjémonos que eso, que yo estimo imposible, se realizara y que las nuevas generaciones llegaran a aprender la lengua artificiosa unificada. Pues la Academia, en vez de haber continuado depurando e impulsando el vasco histórico, como era su misión... habría matado a los venerales dialectos tradicionales. Por mi parte estoy bien tranquilo. Los vascos de hoy ni los de mañana cargarán su conciencia matando, no ya un dialecto tan robusto como el vizcaino, pero a ningún otro". (Que así sea, maestro. Que Dios nos dé a los vascos de hoy la sensatez suficiente y la valentía necesaria para saber oponernos a esa matanza, matanza monstruosa que la Academia Vasca está decidida a perpetrar).

«Fomentar con energía la producción de los dialectos, prosigue Menéndez Pidal es cosa que está en manos de la Academia.

«Yo espero que el mismo estudio histórico del idioma, moderará a los más impacientes y los apartará de una intervención violentamente reformadora, que juzgo atentatoria a la esencia tradicionalista del más tradicional y conservador de los idiomas".

No pudo ser más rotundo D. Ramón Menéndez Pidal, Presidente de la Real Academia Española y Académico de Honor de Euskaltzaindia.

"ME IRRITAN LOS QUE SE GANAN LA VIDA CON LAS PALABRAS PERO NO LAS CUIDAN

JUAN CANTAVELLA

El profesor Lázaro Carreter lleva más de veinte años escribiendo artículos para corregir los defectos más írecuentes en el lenguaje periodístico, sobre todo en el radiofónico. Primero fue en el diario Informaciones, de Madrid, y luego en varios periódicos de España e Hispanoamérica a través de la agencia Efe. Muchos le han insistido para que reuniera tales artículos en un libro, que ahora publica Galaxia Gutenberg/Circulo de Lectores.

"Me he divertido escribiendo estos artículos, porque me he liberado de la comicidad y de la ira. Ha sido una especie de escuchar atentados contra nuestro idioma, causados unas veces por la ignorancia y otras por la mala fe", afirma don Fernando Lázaro Carreter, director de la Real Academia y catedrático de Lengua Española. Después de decenas de libros y artículos sobre temas de su especialidad, ha querido descender (en El dardo en la palabra) a corregir defectos habituales en el empleo que se hace de la lengua.

-¿Cuántas veces tiene la sensación de luchar contra gigantes?

Y apliquemos la afirmación
igualmente para el euskera,
cuyo exponente lo podemos
apreciar intensamente en:

- ETB
- Algunos literatos incluso premiados
- Traductores
- Y un largo etc....

Oigamos y leamos.

Véase en el apartado 3.4 de este libro "Erderakadak eta Akatsak" de Jesus Gaztanaga.

"Euskerazaintza"

EUSKERA BATUA BAI ALA EZ? ZELAN?

(Euskerazaiñei itaunak-1988'an)

1. Euskera baturik bear al da?

- Izkuntza guztien batasuna ez da berdiña (B. Latiegi'k).
- Euskerak ez du batu bearrik (M. Oñatibia'k).
- Euskera bateratzeak lau euskalkiak galtzea dakar (M. Oñatibia'k).
- Euskaldun guztiak obeto alkar ulertu aal izateko, baiña ulertze kontuan ez dago ainbeste zailtasuniz (M. Oñatibia'ak).
- Bi zaldi bear ditu euskeraren guriak aurrera arin-arin joango ba'zaigu: Literatur-euskera batu bat, eta euskalkiak bizirik erriaren aoetan. Batu bat bear da (A. Arrinda'k).
- Euskerea batzekotan, urteen joanean, erriak batuko dau (M. Olazar'ek).

2. Batua egitekotan, zelan egin bear litzake?

- Euskeraren batasuna laukoitza da elenerarena lez. Euskaltzaindia'ren asmoa ez-euskalduna ízan zan (B. Latiegi'k).
- Euskaldun bakoitxak bere euskera argi egin eta ederki idazteko gai izan bear dau. Eta beste euskerak ederki ulertu, ederki itz egin eta idazteko gai izan (B. Latiegi'k).
- Euskalkien arteko alkar izketak ugaritu (M. Olazar'ek).
- Idazleek egingo dabe euskerearen batasuna (I. Zubiri'k).
- Ikastegi guztietan euskalkiak onartu ta erabilli (M. Olazar'ek).
- Liburuak eta aldizkariak euskalki guztietan idatzi ta zabaldu (M. Olazar'ek).
- Irratietan eta ETB'n egokiro erabilli euskalkiak (M. Olazar'ek).
- Norberaren eta besteen euskalkiak, aal dala ulertu eta erabilli (M. Olazar'ek).
- Euskera ez da izkuntza bakarra, laukoitza baizik (M. Oñatibia'k).
- Lenengo lurralde bakoitxean egin batasuna (I. Zubiri'k).
- Beste euskalki bateko aditza ikasi (Bizkai'koa Gipuzkoa'n eta alderantziz (I. Zubiri'k).
- Arana Goñi'ren idazkera arau oñarri lez, -H'ak baztertu, ñ eta 11 erabilli (I. Zubiri'k).
- Euskal itzak erabilli beti, norberaren euskalkian ez ba'dago, beste euskalki batekoa, orrelan be ez dagonean itza sortu euskal sustraian oñarrituta (Itza ezaguna izan arte kakotxen artean erderazko itza ipiñi (I. Zubiri'k).
- Jatorrizko itzak billatzen geiago saiatu (A. Arrinda'k).
- Ez dut -H'a itsumustuka artzeko gogorik (A. Arrinda'k).

3. Kalterik ekarriko leuskio gure izkuntzari euskera batuak?

- Eleneran lez elertirako ta jakintzetarako gaitasuna guztiak ilgo leukez (B. Latiegi'k).
- Euskaltzaindia'k bere sortze egunetik sortu nai izan duan batasunak euskera bera ilko du (B. Latiegi'k).

4. Euskalkiekin zer egin?

- Euskalkiak indartu (M. Olazar'ek).
- Euskerearen batasuna ez da euskalkiak nastatzea (M. Olazar'ek).
- Ikastetxe Nagusiaren aurreko ikastetxeetan norberaren euskalkia sakon eta zabal ikasi, besteakaz dauzan aldeak ikusi, eta Ikastetxe Nagusian edozein euskera erabili (M. Olazar'ek).
- Euskalkiak dira euskeraren indarra (A. Arrinda'k).
- Euskera batua ilda jaio da (A. Arrinda'k).

5. Euskaldun guztientzat berba egiten danean, zelako euskerea erabili?

- Norberaren euskalki apaindua erabili, idazten dan lakoa, laburpen eta aldakuntza barik (M. Olazar'ek).
- Euskereak bere euskalkietan itz bat ez ba'du, itz barriak sortu baiña errez ulertu daitekezanak, edo Europa'ko izkuntza bat baiño geiagotan erabilten dana artu. Teknika itzak kezka barik artu (B. Latiegi'k)
- Aldundiak eta Udalak egiten dabezan idazkerak bakoitzaren euskeran idatzi (M. Oñatibia'k).

EUSKERA IZKUNTZA BAT OTE?

ADITZ-LAGUNTZALLEA: IRU EREDU

Gure euskeraren mamiari buruz, esan bearrik aundiena oraindik, argi ta garbi azaldu bearra daukagu.

Bein betiko, jakintsuen lana da esatea, euskera zer dan: izkuntza bat edo beste zerbait. Galdera garbi batek azalduko luke gure kezka: Izkuntza bat al da, edo bizpairu ote daude batean? nolanai elkaturik, bata bestearen ondoan dauzkagunak.

Orain arte, gure izkuntza bat bezala artzen dugu eta ikusten duguna bizpairu zatitan banatua. Izkuntzen adar oiei, dialektoak deitzen diegu. Gure euskalkiak dialektoak ote?, edo egitazko izkuntzak? Ori garbi asko ikusi bearra daukagu.

Itzi garbi batera iristeko, ikerketa batzuek egin bear, adibidez artu gai berexi bat eta ikusi nola esaten dan ori bera beste euskalkietan.

Neurtzeko gai berexi oiek izkuntzaren giltzarriak bear lukete izan. Neurketa oietan ikusiko litzake gure izkuntzaren sustrafak eta gíarra, baita nolakoa den bere nortasuna.

Beste izkuntzetan bezala, euskeraren sustraía edo zutabea, aditza da. Beste izkuntzeen ondoan jarrita euskal aditza oso berexi ta bestealakoa da ta ba ditu bere jokabide arrigarríak.

Gure euskalkiak azertu ditzazkegu eredu batzuen bidez, esanez nola jokatzen diren.

Aditzaren aldetik, jokabide aberatsenak, aditz laguntzallearenak ditugu, bai garaien aldetik ugarienak direlako, baita morfologi aldetik era askotakoak agertzen direlako.

Orduan aditzaren itzen aldaketa oien itxurari begiratuko diegu zorrotz, baita dagokien neurriak egin, egitazko neurketak.

NEURKETAKO AUKERAK

Aditz laguntzalleak aditz jokabideen bildumetan morfologia dauka aberatsena ta ugariena.

Alor orretan, nere iritziz, lanik ederrena Aita Placido Mugikarena da. Bi orritan, aditz laguntzallearen morfologia osoa sartu du. Gañera morfologiaren aurkezpena, izan leiken argíena erabíllí du. Bi orritan den dena sartua; orri batean transitiboa, bestean intransitiboa. Garaiak berriz, Nor-Nori-Nork jokabidean atsestua.

Nor-Nori-Nork erabideari eusten diola, Intransitiboan bi jokabide ditu bakarrik; bat NOR eta bestea NORNORI.

Transitiboak berriz iru larrain dauzka; NOR 3a-Nork, NOR-NORI-NORK eta NOR (1 .a-2.a) NORK.

Orain aditzaren garaiei buruz orrela ditu eratuak laukoak:
(DA) Oraín garaia (Indikatiboa)

(ZAN) Len garaia (IND.)
(DEDIN) Orain (SUBJUNT)
(ZEDIN) Len garaia (Subjunt.)
(DAITEKE) Orain (Potenziala)
(LITEKE) Gero (Potenziala)
(ZITEKEN) Len garaia (Potenziala)
(LITZAKE) Gero garaia (Indikatiboa)
(ZITZAKEAN) KONDIZIONAL, LEN GARAIA (IND.)
(BALITZ) Baldintza (INDIKATIBO)
(BEDI) Orain (AGINDU era)
(BA'LEDI) Baidintza (Potenziala)

Intransitiboaren lauki nagusia dugu or. Garaien aldetik irtenbide berdiña darabilki Transitiboakin.

Garaiak errenkan jarri ditun bezala ez zait iduritzen ain zuzenak, zertxobait nasiak baizik. Ikus dezagun nola egiten duen. Lendabizi Indikatiboa dator orain eta len garaia. Ondotik Subjuntiboa dator. Bidezkoa deritzaigu.

Gero Potenziala dator ta onen ondotik Indikatiboaren garai batzuek, batez ere indikatiboaren geroa. Ez al luke joan bear Indikatiboa osoak, bat egiten dula?

Ta Agindu erako aditzaren ondotik jartzen du Baldintzazko Potenziala. Emen ere ez al du Potenziala sendi orrek denak batean joan bear?

Aditzaren ageribidea zorrotzagua bear luke izan, garaiak errenkan jartzerakoan. Orregatik beste jarraipen bide au eskeintzen dugu:

(DA) Orain garaia (IND.)
(ZAN) Len garaia (IND.)
(LITZAKE) Gero (IND.)
(ZITZAKEAN) Kondizionala len (INDIC.)
(BA'LITZ) Baldintza (INDIC.)
(DEDIN) ORAIN (SUBJUNT)
(ZEDIN) LEN (SUBJ.)
(DAITEKE) ORAIN (POTENZIALA)
(LITEKE) GERO (POTENZIALA)
(ZITEKEN) LEN KONDIZIONAL (POTENZIALA)
(BA'LEDI) BALDINTZA (POTENZIALA)
(BEDI) ORAIN (AGINTE)

Morfologi osoa orrela dijoa eratu, emen egin dugun zuzenketa orretan: Indikatiboa, Subjuntiboa, Potenziala eta Agintea.

Jarraibide au askoz zuzenagoa eta egokiagoa deritzait. Garaiei buruz auxe izango da jarraibidea: Orain, Len, Gero, Baldintza ta agintea.

Aditz laguntzalea, orrela moldatua, ikaskintzarako aurrerapen aundi bat da. Orrialde orreri begiratur euskal aditzaren ikasketa askoz errexagoa egiten da.

ZE EUSKALKIEN ADITZA

Orain gipuzkeraz lan ori egiña daukagula bidezkoa deritzait, malla ta garai berdiñean, begien aurrean bizkaitarrez aditza laguntzalearen lan osoa egitea.

Bizkaitarren ondotik jokabide ta garai berdiñak, ondo eratuak jarri bearko genituzke Xiberotarrez. Orrela euskeraren iru eredu oien erantzunak izango genituzke.

Ortxen ikusiko genuke garbi asko zeren antza dauzkaten euskeraren iru eredu oiek.

Gipuzkoar aditza laguntzallearen lana, Aita Plazido Mugika'rena da, esan dugun bezala oso lan ona eta aurrerapen aundia irakaskintzaren aldetik.

Aita Plazido Mugika'ren lana oraindik obeto orraztu dut nik eta errexagoa azaldu dut.

Lan ori bera, Bizkaieraz idatzi dit Martin Olazar euskal idazle ta Euskerazaintzako zuzendariak. Morfologia aldetik lan zailla. Ezagutzen zituen jokabideak ematen dizkigu. Ezagutzen ez ditun aditz-ítzak marratxo batekin agertuko ditugu.

Aita Plazido Mugika'ren bi orrialdeak nik moldatuak Aita June Casenabe'k xiberotarrez jartzen ditu; ziñezko euskara, oso garbia eta egokitasunez jantzia erabiltzen du.

Orrela iru eredu auek, alkarren ondoan jarrita ikusiko dugu, oso lasterka ta garbi asko zeren antza daukaten.

Aditz laguntzallearen iru eredu auek, zoragarrizko aurrerapena eskuratzen digute, iruek batean gure euskal kulturaren bítxi bat dira ta ikasle ta ikerlariantzat laguntza aundi bat.

NEURKETA BATZUEK

Ikus ditzagun orain guipuzkoar aditz laguntzallearen ondoan ba bizkaieraz jokabide batzuek, berdiñak ote diren edo oso ezberdiñak.

Ementxen ditugu eredu batzuek bizkaieraz:

NOR-NORI-NORK, Oraingo garaian (IND.), ara ereduak:

-daust, duz dautzu, dautso, dausku, dautse.

NOR-NORI-NORK, len garaian (IND.) ara ereduak:

-Neban/neutzun, neutson, neutsen...

NOR-NORI-NORK, geroa (IND.):

-Neukeak, neuskizu, neuskio, neuskizue

NOR-NORI-NORK, geroa, len garaitik ikusia:

-eukean, neuskizun, neuskin, neuskizuen...

NOR-NORI-NORK, baldintza (IND.):

- ba'neutsun, ba'neutson, ba'neutsuen...

NOR-NORI-NORK, orain (SUBJ.):

-egidan, dagitzudan, dagitsodan eta abar.

NOR-NORI-NORK, len (SUBJ.):

-EINKEN, neiketzun eta abar.

Jokabide osoaren laukian, bizkaieraz ikusten ditugun itz guzti auek gipuzkoarren ondoan jarrita, ezberdintasun aundia nabari. Egitura edo estruktura berdiña, garaíak ere baí eta ítzeen itxuraren aldetik edo morfologíaren aldetik aditza oso bestelakoa, oso ezberdiña.

Berea sortzez ez duna aditza au bereganatua, den dena, orpotik ikasi bearra dauka, oso bestelakoa dalako.

Orain xiberotarrez aditz laguntzallearen eredu batzuek jartzera goaz:

NOR-NORI-NORK, Orain (INDICAT.) -deíot, -deíok...

NOR-NORI-NORK, Len Garaia neion, -heion, -zeíon...

NOR-NORI-NORK, neikes, leike (IND.)

-ba'neio

-dizaodan, dizaon

-lizaon

-dizatez... eta abar

Aditzaren mami ori edo egestura, giarra edo giltzarria berdina da. Ala guztiz ere jokabidearen itzak aldaketa aundiak nabari morfologiaren aidetik.

Jaiotzez ez dakizkitenak jokabide auek ikasi bearra berriz. Ikasi ezkeru eskubideak datza ere bai.

Aditz oiek zer esaten duten eta zer nai duten esan berriz, ikasi bearra daukagu. Ezin dugu jokabide bat ikasi eta bestea utzi. Ez dira zokoratzeko tresnak. Euskerari buruz dauzkagun xeetasunak denak bearrezkoak. Gure izkuntza laboratorio bat da. Gure izkuntzaren zati denak gorde ta jaso bearrak daukagu. Gure euskarak bere nortasun berexi berexia dauka. Orregatik alderdi den denak jaso bearrak daukagu.

IZKUNTZEEN SENDIA

Aditz laguntzallearekin egin den berdinketako edo elkar neurtzeko lan ori, egin bear litzake gure izkuntzaren beste alderdi batzuekin, adibidez joskerarekin. Ortzen daukagu arrobia. Ar ditzagun esaldi batzuek eta euskalki bakoitxetan asmo berdiña nola esaten dan euskalki ezberdiñetan ikus dezakegu. Ikerketa onek emango liguke ezberdintasunaren arazo nagusi bat. Lan au bearrezkoa, beste norbaitek egin bearko luke.

Aditz laguntzailearekin izkuntzaren ezberdintasunak garai nabari. Izkuntza guztietan azaltzen zaigun ezberdintasunataz Martinet jakintsuak erabiltzen du, bere ardurapean argitaratutako liburuan, "A. Martinet, Le langage, Encyclopedie de la Pleiade, Gallimard, Paris 1968", zertan dagon ezberdintasuna izkuntza ta dialektoen artean. Asmo oiek laburtzen ditugula nolabaiteko garbiketa egin bear, izkuntza ta dialektoen artean. Iru arazo nagusiak ditugula izkuntza eta dialektoen artean berak dio. Izkuntza izateko iru baldintza bete bear ditu:

- 1- Morfologia aldetik aldaketa nabarmenak.
- 2- Izkuntza ortaz gramatikak egiñak; aditzari buruz berdin.
- 3- Literatura ederra euskalki orretaz idatzia.

Naiko errex, iru baldintza oiek betetzen dituzte gipuzkerak, bizkaierak eta xiberotarrak. Baldintza oiek betetzen dituztela ezin dugu esan ain arin, gipuzkera, bizkaiera ta xiberotarra euskalkiak, dialektoak direla. Alderdi berdintsu asko dauzkate beren artean arazo berdintsuak dituztela, sendi bateakoak direla esateko. Eta garai berdiñean ezberdintasun aundiak. Euskalerriarekin berdin gertatzen zaigu. Euskaldunok Euskalerria osatzen dugu, bañan oso ezberdiñak gera. Lurralde bakoitxak bere nortasun berexi berexia dauka. Izkuntzarekin gauza bera gertatzen zaigu.

Gure euskalkiak oso izkuntz zarrak dire ta dauzkaten itz eta joskerak, den denak, aspaldiko berriak ematen dizkigutenak, oso aintziñako gizonez gauza asko erakasten digutelako. Den dena osorik bildu bear. Ezin baztertu ezertxore.

Euskeraren eredia ez da bakarria. Ortzen dugu zerbait antzekoa, Europa'ko iparaldean, Germaniko izkuntzaren sendi zabala arkitzen dugu: suekoa, noruegoa, danesa, olandarra, islandesa, Feroe ugarteko izkuntza eta abar eta abar. Sendi zabal baten kideak dire eta garai berdiñean baktotxa, bere aldetik izkuntza bat. Gure euskalkientzat, gauza berdintsu izango litzake...

Gure ustez, etortzeko diren ikerketak bide orretik joango dire. Ba dagota nundik nora jo...

LIBURUEN ZERRENDA (BIBLIOGRAFIA)

Jose María de Lachaga, La representación del Tiempo en el verbo vasco, Zabaltzen, Bilbao 1994.

Latxaga, Euskal Aditza Noizkoa Ote?, Euskerazaintza, XXV zenbakia, Donostia 1995.

Jose Maria de Lachaga, Remarques de G. Guillaume sur la langue basque dans l'elaboration d'une theorie du langage humain, pp. 701-707.

Anuario del seminario de filología vasca "Julio de Urquijo", -ASJU XXV- 2/31, 1995.

"Latxaga"

BIZKAIKO EUSKEREAREN AURKA (EGUNA, 1989-12-28)

Bizkai'tarrak Bizkai'ko euskerearen aurka idaztea, benetako zentzunbakokeria dala baieztu-bearrik ez dagoala uste dot. Eta orixe da Eguna'n joan dan abenduaren 28'an idatzí zan lan baten argi ikusten dana. Zenbat diran, Bizkaí'tarrak izan eta gutzat zapaltzaílle ta iltzaille dan euskera barri baten idazten daben idazleak! Benetalco zori txarra izan dogu arlo orretan bizkaitarrok.

Idazle orrek asieratik argi agertzen dau nortzuk diran burubakoak: elertirako batua bearrezkoa dala ukatzen dabenak.

Ezagutu dodaz nik burudunak diran gizonak, edo idazle onek beinkat buruduntzat daukazenak, esaterako Koldo Mitxelena, batua ez dala elertirako esan dabenak. Buruduna ta burubakoa nortzuk diran jakitea ez da aín erreza, antza dagoanez

Euskalerrri osorako ain bearrezkoa dogun batua, diño idazleak. Baiña Euskalerrri osoak bearrezkoagoa dau euskalkiak ondo ezagutzea, batua baiño. Euskalkiak il ezkeru, batua bizi izan arren, euskerea antxiña ain zabala izan zan latiñaren anekoa likake. Eta euskalkiak bizi izan ezkeru, batua galdu arren erriaren izkuntza izango litzake.

Ez dago zalankarik. Euskalkiak zainkea ta indartzea bearrago dogu batua indarkea baiño.

Guztiok ikusten eí dogu goi-maíllako irakaskintzan, administraziñoan, komunikabide nagusietan eta elertian, literaturan, nai ta nafezkoa dala batua.

Nik ez dot ain bearrezkoa danik ikusten.

Goi-maíllako arlo orretan ondo alkar ulertzen dogu, bakoitxak bere euskalkia ondo jakin ezkeru. Bizkaierea ondo dakíanak ez dauko ezelako eragozpenik gipuzkera ulertzeko, eta bardin alderantziz. Ori egunero ikusten dogun gauzea da eta ori orrelan izanik, oraintsu batuaren sortzailletariko batek esan dauan sez, batuak ez dau ezertarako balio.

Gero beste au diño idazleak: Bakuk ume txikienkat eta erri txikietarako euskalkia erabilli bear dala diño.

Guk ori baiño geiago nai dogu euskera biziarentzat. Euskalkiak maila eta toki guztietan iraun bear dabe bizirik eta erabilli egin bear dira. Or argi ikusten da euskera biziarenkat batua eragozpena baiño besterik ez dala

Gaiñera, gure idazle au euskeraz berba egiten dauan erri baten bizi ba'litz, laster konturatuko litzake erri-maíllako euskeran zelako kalteak egin dauzan batuak: Umeak batuz berba egiten eta gurasoak ori ulertzeko eragozpen aundiakaz, eta azkenean guzua erderaz berba egiten. Ezagukzen dodaz sendi bakuk urteetan gurasoak euskeraz egin eta seme-alabak erderaz erantzuten dabela, eta dana eskolatík dakarren euskera ori egitera ausarken ez diralako.

Euskera batua edozein euskaldun normalek ulertu lefkela diño, baiña orretarako iztegi eta joserka egokiak erabillí bear dirala.

Zori txarrez, batuzaleak sarrítan erabilten dabezan joserka ta iztegia ez dira jatrorrak izaten. Iztegiari buruz, esaterako, sarrítan entzun dogu eta euskaldun jatrorrak, euskerea ondo dakienak, esanda, batuaren iztegia ulertzeko Espaffa'ko ta France'ko iztegiak erabilli bear dirala.

Dana dala, batuari buruz diñoan orrek beste edozein euskalkitarako be balio dau: Gipuzkoeraren iztegia ta joserka jakin ezkeró, Bizkaitarrak ulertzen dabe eta antzera alderankiz.

Orduan zertarako bear da batua?

Bere errikide bakuren setakeria salatzen dau idazleak. Onetan dago setakeria Bizkaitar batzuk batuz berba egiten dabenean Bizkai'ko euskalkiaren berbak sarken dabezela.

Norberaren euskalkiaren berbak sarkea, gauza guztiz egokía da eta euskerea aberastuteko bidea.

Eta beste au be esan-bearrekoa da: Galkeko arriskuan dagoan norberaren euskerea alde batera iki eta batua deritxon beste euskera bat arken dauana ta darabillena saltzaillea "traidorea" dala. Zori txarrez ba-daukaguz olako asko gure Bizkaia' n.

Sartu gaitazan idazle onek aitaken dauan idazkerara ortografiaren arazora Bizkaieraz idazten dogunok, batuaren idazkera erabillí bear ei dogu.

Aurkeztu jakun batu ori onartzen ez dogun ezkeró, gitxiago onartzen dogu idazkera ori. Gure idazkera, ortografia, euskereak aspaldion izan dauana da, oso egokía eta erreza Batua sortzeko arlo onetan egin diran aldakunkak benetan okerrak dira, edozein izkuntzalarik alboratuko leukezenak. Gaiñera, une arrisku-tsu baten aurkitzen dan euskereari gaíztasun barriak ezarten dautsoz. Izkuntza guztiak kenduko leukee "h" erabilte orí, eta batzuk kendu be egin dabe, erreztasuna lorkearren, eta gure batu-zaleak, kendu bear litzaken sasoian sartu egin dauskue eta geu be beartu egin gura gaítue idazkera ori artzera, euskerearí kalte izugarría egitera

Zati beratan sartzen da idazlea iztegiako arazo batzutara: "Liburua, kafea ta gorpuka" erabilli bear ei dira eta ez "idaztia, akeíta ta soiña". Gure agintaritzu oneík ez dauskue orretarako askatasunik be izten. Iru itz oneik Euskalerrian zabaldua dagoz eta ulertzen dira Goazen aurrera nai dauanak bata eta nai dauanak beste erabilliz, gure gramatika, araudia baiño geiago, erriaren jokarak batzea dala.

Ez ei da "dauz" iñoz be erabilli bear, beti "ditu" Eta orretan Bilbo'ko Errí-Irratiaren jokarea salatzen dau.

Bizkai'rik geíenean "dauz" erabilten edo ezagutzen da, Gipuzkoa'ko mugatik urrean dagoan errietan ízan ezik. Zergaitik alboratu bear dogu ba aditz-joko ori? Zergaitik biak ez erabilli bakoitxak nai dauan lez? "Dauz" ez da arraroa ta uler-gaika Bizkaia'n eta ori diñoana ez da sarrítan sartu Bizkaí'ko errietara.

"Zoriondu" ika be saltzen dau Erri-Irratian erabilten dala esanez.

Euskereak erreztasun aundia dauka itz barriak sortzeko, eta itz barri orreik egokiak eta ulerterrezak izaten dira. Bat auxe berau. "Zoríonak emon" esan barik "zoriondu" esatea, ikaren esan-naia zabalkea da, baiña ez dot uste txarto dagoanik. Errez ulertzen da gaiñera.

Bai "dauz"en arazoan eta geiago oraíndiño "eroan dautso" non arraio esaten dan itauntzen dauanean, idazleak ondo agertzen dau, bizkaieraz berba egiten dabena artu-emon gitxi daukala. Bizkaian "eroantso" esaten da eta "dautso" ala "deutso" dan gramatikaliarien arazoa da. Nik neuk "dautso" dalla uste dot, \ "dau" dan ankeria eta "deutso" aboskeria dala, "gaur" en ordez "geur" esaten dan antzera esana.

Eleiz-eskola ezagun baten setakeriak dirala orreik, sartzeko beartuta aurkitzen da idazlea.

Eskola orretan, eta ez dakit zein eskola izan leiteken, gramatikatze txiki orreik saatu-bearra ba'dago, zer salatu bearko gendu "batua"ren eskolan? Ondo ete dago astoak zaldiari "belarri-aundi" esatea?

Azkenez "nazio" batuaren adierazgarri dan izkunka batua aitaken da, sendotu bear dan batua, besteen zentzunbakokeriak, alkar-lanerako gogorik-eza.

Laterri batua ta izkunka batua bikote ori ezagun jaku. España'k bere Aginterria sortzeko gaztelerea artu ebanean Lebrija'k esandako berbak eurak dira. Gaztelerearen lenengo gramatikaren sarreran aurkitzen dira. Lebrija'k izkuntza batuaren bidez "Inperioa" sorkeko bideak zabaldu nai ebazan, baiña guk nai doguna geure euskera osoa ondo ezagutu eta geure izkunkaz ondo alkar ulertzea da Erria aikartzen dan neurrian alkartuko dira euskalkiak be. Erri batuak izkuntza batua izango dau. Orren ezaugarriak oraín be ikusten doguz. Euskera batua egiten diardu erriak berak. Ez dagigun estutu sasoi baíño lenago egin dagian. Landareak bere aldía bear dau azteko (Menendez Pidal'ek GERNIKAn 1927'an).

• 99

Azkenez, alkar-lanerako gogorik-eza agerken da

Idazle onek alkar-lanerako gogorik ez daukenak norkuk diran jakin nai ba'leu, naikoa leuke 1978'an Bergara'n euskerarí buruz izan zan bakarria aztertzea. Batua sortu zanetik 10n. urtea zan. Bakar aretan argi agertu zan alkar-lana egiteko gogoa ta bide bakarria, baiña argiago bakarria eratu ebenen "setakeria". Batzuk ziran an lanerako eskubidea euenak eta besteak lan egitekotan, ezarrita egozan arauetara makurkea baiño beste biderik ez eben. Ori ete da alkar-lana?

Ondorena guztiok dakigu zein izan zan: EUSKERAZAINTZA ERRI-AKADEMIA sortu-bearra

Bizkaiera dagoan egoera larrian egon eta iperbizkaiera aitaken dauan idazleak, batukaleak egiten dabean triskantzak ikusi eta bizkaierearen alde egiten diran aldakunka txikiak salatzen dauzan idazlea edo itsua da edo ez dau ikusi gura

OLAZAR'tar Martin'ek

BIZKAIERAK BIZIRIK IRAUTERIK BAI OYE?

EUSKERAZAINTZA'ren elburua, erri-euskera zaintzea da eta bere sorreratik, -artarako sortu zan eta-, azken urte auetan sortu dan giro ulerteziñagatik, lau euskera nagusiak, baiña batez ere bizkaierak jasan bear ízan duan eta duten burruka bizia dala eta, kezka larrian bizi da.

Batuaren errudunik aundienetakoa dan Mitxelena'tar Koldo'k aspaldi esan zuan, batasun-burruka ontan galtzailerik aundiena bizkaiera izango zala.

Urteak aurrera dijoazten eran, Euskerazaintza'koak ez diran bizkaieramaitale asko ere, Jaurlaritzza, alderdi politiko eta beste erakunde askoren jokaera ikusiz, kezkatzen asiak ditugu.

Arrigarria ba'da ere, -eta bizkaitarrak ere beren alegintxoak egin arren-, bizkaitarrak ez diran batzuk ikusten ditugu, bizkaiera leiza-zuloan amiltzera doala ikusirik, eskua luzatu nairik.

Oyetako bat, Deustu'ko Ikastetxe Nagusian irakasle dan Pagola'tar Rose Miren da. Berak bultzata, ikasleku ospetsu orren Areto Nagusian, "Bizkaieraren gaurko egoera" izenburua artuaz, mai-ínguru bizi bat eratua da.

Aretoa lepoz-gain beterik zegola, bi ordu terdiko izketaldiak entzuteko egokiera izan nuan. Mai-inguruan zeudenen itzak agertuko ditut lendabizi, entzuleenak gero, azkenenean nere iritzia azalduaz.

MAIKOEN IRITZIAK

Lakarra tar Joseba

Lendabizi, Lakarra'tar Joseba'k itz egin zuan eta berak zionez, "Larramendi, Añíbarro ta Bonaparte'k euskalkien artean bizkaierari leku bat aitortzen diote eta Lakonbe'k berriz, bizkaiera alde batean eta beste euskalki danak alboan jartzen ditu". Bere kontuetan, "bizkaiera euskalki bat da; berezitasunak ba-ditu, baiña beste euskalkiekin lotura aundiak ditu eta era oso ortan bakarrik ar daiteke". Beste aldi batean ala zion: "Bizkaieraren etorkizunak ez dit batere ajola, euskerarenak baízik. Bizkaieraren egoera illuna da".

Irigoyen dar Alpontxo

Irigoyen'dar Alpontxo'k ondoren, ala zion: "Batuak ez du iñondik ere bizkaieraren aurka joan bear; euskera biziko ba'da, euskalkiak bizi diralako izango da". Eta beste aldi batean: "Bizkaiera iltzen ba'da, besteak ere gaizki ibilliko dira. Euskera batua ez da biziko, euskalkiak bizi ez ba'dira". Eta geroxeago, "Suiza'n aurrak, amar-amaika urte arte, bertako alemaneran ezitzen dira eta gero asten dira bestea ikasten. Emen planteamenduak gaizki egiñak daudela, aspaldi esanaz nator".

Muniategi tar Abel

Muniategi'tar Abel'ek Bizkai'ko Aldundiko lege-gizon bezela itz egin zuan eta zuanez, "legeak euskeraren nortasuna rekonozitzen dau; ez bizkaierarik. Lurralde autonomoak Bizkai'ko egunkari ofizialean batez be ataraten ditu bere erabaki ta etekiñak; ba, ez da ezer be bizkaieraz. Aldundiko bere gauzetan ez da bizkaierazko ezer nabari. Bere prozedura edo jardun-bideetan ez du bizkaiera erabiltzen. Batzar Nagusiak bere jardunbide ta bizitza administratiboan, bizkaieraz emoten dau. Bizkai'ko egunkari ofiziala lekuko dogula, argi ta garbi esan bear da, Bizkai-Aldundian bizkaierak ez daula leku formalik. Salbuespen bat da Bermio". Eta beste aldi batean: "Euskeraren etorkizuna ez dot ain garbi ikusten, baiña bizkaierarena, batez be premisak orain bezala jarduten ba'dabe aurrerantz, nik uste, illuna dala. Ez dot uste boluntarismo utsean egon ditekenik".

Berriozabal dar Erroman

Berriozabal'dar Erroman, Jaurilaritzaren izenean jardun zan eta onela mintzatu zan: "Euskal autonomi alkarte osoa eta bide berean, lekuan-lekuko gizarte ta ingurunea gogoan izanik, normalizazio plan osoa eratzerakoan, zentzuzko orekagunea eta geiengoentzako urtenbidearen aldekoa da Idazkaritza eta egin bere, ortik egin dau bere apostua". "Lekuan-lekurako neurriko trajea bearrean aurkitzen gara. Elburua, elburu nagusia beti bere, bertakoen izkuntza normalizazioa dalarik. Bi dira, guzti onen argitan, egin bearrekoak: Bizkaierari erabillera erraz eta bizia segurtatu bizirik dirauen lekuetan orretarako bear diran ekintza ta funtzioak sortu ta indartu; bestetik, euskera batua erakutsi egin bear da. Ez deritxat zuzen, euskara batua euskalkiak kontra jartzeari. Batak ez du bestea ukatzen; ez dira bateraeziñak. Ez deritxagu zuzen, euskara batua bizkaieraren iltzaille moduz azaltzeari". Eta beste aldi batean: "Transizio ezkeroztik, milia gauza egin dira. Batzuen iritziz, presaka eta egia esan, oker asko egin dira, baiña oker oyek zuzentzen asteko garaian gaudela esango nuke. Bizkaiera prestijiatu ta aurrera ekin bear da".

Urruburu tar Laura

Urruburu andereiñoa, Busturia-aldea ta Lea-Artibai inguruan, erri-eskoletako ta ikastoletako begirale bezela ikasitakoak adierazi zitun. "Ikastolarik geienak batu-bidea artu dabe; gutxi batzuk bizkaiera-bidea. Iru urtekin sartzen diran aurrei batuan itz egitea beartzen dituzte". Irakasleen jarrera dala-ta, "eretxi pedagogikoetan baiño, geienetan, eretxi ideolojiko eta politikoetan oiñarrituak egoten dira, oso politizaturik daudelako: PNV atzerakoia, HB aurrerakoia. Legeak ez ditu jaso bizkaieraz itz egiten dabenen eskubideak eta betebearrak; umeak etxetik datozenean, bizkaieraz itz egiten dabe. Irratia, telebista, egunkariak batuan dabezalako, bizkaiera erabat bastertua gelditzen da. Aurren izkuntza dala eta: "Darabilen euskara, erritasunik bakoa da; esaldi soillak egiten dabez. Baserriko umeak kalekoak baiño askoz obeki itz egiten dabe. Kalekoek izketa oso pobretua dabe; subordinaziñorik gutxi erabilten dira; sintaxía aldeko akatsak; aditza da gutxien menperatzen daben arloa; naste ikaragarriak ikusten dira; sustituziñoak eta diferentziak egiten dira. Gauza bera gertatzen da lexikoan: sakatu, ez, bultzatu; jausi ez, erorí; ostu ez, lapurtu; eroan ez, eraman, e.a. Debekatuak daudela dirudi". Eta beste tarte batean: "Gizarte osoaren

sensibilizaziñoa egin bear da eta batua edo euskara bizitzeko, bizkaierak ere beste euskalkien moduan bear dau".

Etxebarría tar Igone

Etxebarria'tar Igone EITB'ko euskera-jokaeraz jardun zan. Eta ondoren, bizkaieraren egoera nola ikusten zuan galderari ala erantzun zuan: "Gauzak aldatzen ez ba'dira, beste bide batzuk artu eta beste arlo batzuetara zabaldu ta euskara batuan eragiñik egiten ez ba'da, oso etorkizun txarra dau".

ENTZULEEN IRITZIAK

Latiegi tar Bixente

Mai-inguruan zeudenen izketaldiak amaitu ondoren, entzuleei, beren iritziak agertzeko egokiera eman zien. Latiegi'tar Bixente izan zan itza eskatu zuana eta auxe esan zuan: "Bizkaiera arrixku aundian dago ta bizkaiera galtzen ba'da, Bizkaia ez da sekula Bizkaia izango; Guadalajara edo ba'diteke izatea. Sartu nai diguten batasuna ez da euskalduna; española da: gazteleraren batasuna da. Euskera gerkeraren antzekoa da. Aurra ikasteko, irrati ta telebistan, gipuzkeraz eta bizkaieraz, bietara itz egin bear da; berealaxe ikasiko dute". Beste jardun aldian, ala zion: "Nik Grezi'ko izkuntza aipatu dut eta Grezi'n batu bat sortu zala, baíña indarkeririk gabe ta batu ori sortu zanean, Grezia'k izan zuan literaturarako ta filosofiarako gaítasun guztia, ezabaturik gelditu zan".

Aurre tar Anton

Aurre'tar Anton izan zan urrengoa. Zerbait geiago esango zuan, baíña galdera eran jardutera beartu zutenean, bere sua asko moteldu zan. Ala ere galdera auek egin zitun: "Zelan ikusten dozue, etxean bizkaieraz itz egiten dauan iru urteko ume errukarri orri batuan egiten beartzea? Batua ez da bizkaieraren arerioa diozute; zelan ikusten dozue zuek, sistematikamente artuten diran itzak, bizkaierakoak ez diranak, batuan erabiltzen diranak; ori, bizkaieraren edo euskaldi baten aurka joatea ez da? Eta joskerari buruz zer? An emen euskera batuan ikusten dogun euskera baldarra? Ardularitzako adierazpenak, legeak, bere aginduak eta bere gauza guztiak erri-agintzarako egiten dituz eta erri orrek egiten dauan euskeran emoten ez ba-yakoz, zer deritxozue zuek orri buruz?"

Arejita tar Adolfo

Arejita'tar Adolfo'k, onela itz egin zuan: "Euskera batuak afektibitate mailla sikolojikoan eragin aundía dau. Etxean bizkaieraz egiten dauan seígarren maillako neskato batek ikastolan besteekin urteetan ez du barbarik egin. Pobretu dan izkuntza da. Normalean konplejoak egiten dira; ez dabe espontaneidaderik; bat-batekotasunik bage berba egiten dabe umek. Beraz, batuak eragin aundia dau irugarren mailla orretan".

Olazar tar Martin

Olazar'tar Martin izan zan ondoren jardundakoa. Ala zion: "Bizkaiera galdu

arren, ez diola ajola esan du batek eta ori niretzat mingarria da. Bizkaiera galtzen ba'doa, bizkaitarrek bizkaieraz idazten ez dabelako da".

Oñatibia tar Manu

Nik ere nere iritzia emateko egokiera izan nuan eta galdera eran jardutea beartutakoan, galdera au egin nuan: ' Bizkaierak bizirik irauterik bai al du? Nere iritziz, -emen entzundakoa entzun ondoren-, ezetz esango nuke. Gaurko egoera, euskeraren egoera, alor guztietan gaur bezelakoa ba'da, emendik 4050 urtera bizkaierarik ez da entzungo. Ara nola: Emen esan dan bezela, emengo ikastetxe ta ikastola danetan esan leike, batuan dabilta. Gaur ikastoletan dabiltzan aur oyek ezkondu ta beren seme-alabak azten diranean, etxean ez dute bizkaierarik entzungo. Bestetik, irratian, izparringietan, Aldundietan, Jaurlaritzan, batuan bakarrik entzuten baldin ba'due, bizkaiera emendik berrogei edo geyenez berrogeita amar urtera ill egingo da ta bizkaierarekin batera, euskera".

Lakarra jaunari ez zitzaion ondo iruditu, izkuntza baten iraupenari mugak jartzea eta adibide bezela ala zion: "Humbolt'ek ere esan zuan, 1900 garren urterako etzala euskaldunik izango eta 1991 'an gaude eta euskara oraindik bizirik dago".

Altuna tar Patxi

Mai-ingurua zuzentzen zuan Altuna'tar Patxi'k, euskeraren egoera orain berrogeita amar urte baiño ohea zala ta itxaropentsu agertu naí izan arren, batek eta bestek ziona ausnartu ezkeru, bizkaieraren egoera oso larria dala ikusten da. AdlbideZ Lakarra'k "Bizkaieraren egoera illuna da". Irigoyeñ'dar Alpontxo'k: "Bizkaiera ilten ba'da, besteak ere gaizki ibilliko dira. Euskara batua ez da biziko, euskalkiak bizi ez ba'dira". Muniategitar Abel'ek: "Euskeraren etorkizuna ez dot ain garbi ikusten, baiña bizkaierarena, batez be premisak orain bezela jarduten ba'dabe aurrerantz, nik uste, illuna dala. Ez dot uste boluntarismo utsean egon ditekunik". Berriozabal'dar Erroman'ek: "Transizio ezkeroztik, milla gauza egin dira. Batzuen iritziz, presaka eta egia esan, oker asko egin dira, baiña oker oyek zuzentzen asteko garaian gaudela esango nuke. Bizkaiera prestijiatu ta aurrera ekin bear da". Urruburu andereñoak: "Gizarte osoaren sensibilizaziñoa egin bear da eta batua edo euskara bizitzeko, bizkaierak ere beste euskalkien moduan bear dau".

Lakarra tar Joseba

Lakarra'tar Joseba'k Humbolt'ek esandakoa adieraziz, azti eta igarleetan uste onik ez duala esan nai zuan, baiña garai artan euskerak zituan arerioak eta giroa oso txarra izan arren, bizkaierak gaur egun jasaten duana baiño milla aldiz tikiagoa zan. Etxeetan eta kaleetan eta neska-mutillak eskola ta ikastoletik at bizkaieraz mintzatzen ziran. Eskoletan erdera utsa erakusten zieten, baiña andik at, bizkaieraz mintzatzeko askatasun osoa zuten. Orain berriz, ikastoletan, dakiten bizkaiera era bat baztertu ta batuan ikasi arazi eta itz egin erazten diete eta ori, bizkaieraren iraupenerako, garai artako jasan bearra baiño askoz aundiagoa da. Orren gain, irratiak, ikustirratia, izparringiak, kinemak, agintarien aginduak eta abar, erabat batuan daudela, Muniategi'tar Abel'ek zionez, "premisak orain bezela jarduten ba'dabe aurrerantz", bizkaieraren iraupena eziña da.

Laburpenak

"Bizkaieraren egoera" taz egindako izketaldia etorkizunari begira itxaropen aundirik gabekoa izan arren, bertan jaulki ziran iritzi batzuk, gogoan artu ta aurrera eraman ezkeru, oraindik ere bizkaierak bere burua jaso eziñik ez duala esango nuke. Ortarako, Uruburu andereiñoak esan zuan bezela, "gizarte osoaren sensibilizaziñoa egin bear da". Bizkai erri osoarí, bizkaieraren egoera larria argi ta garbi adierazi bear zaio. Agintaríei eta batez ere Arana'tar Sabin'en jarraitzaille diran alderdi politikoetako buruzagiek, beren betebearra ta ezinbesteko ta garrantzi aundiko ekintza, bizkaiera dagoan zulotik ateratzea dala ozenki esan bear zaie.

Bide batez, bizkaieraren iraupenerako bear-bearrezkoak diran urratsak aztertu ta erabaki ta aurrera eraman bear dira. Izkuntza baten ill-biziko bideak aukeratzea, danen arazoa da, baiña geien-bat, agintariena.

Ni, nere iritzi apalean, ara nundik asiko nintzaken: Lenengo ta bein, Bizkai'ko ikastola ta ikastetxe guztietan, aurrak amaíka urte dituzten arte, bizkaiera eta bizkaieraz ikasiko dute. Irratietan eta batez ere Euskal Telebistan, berriak bezela kinemak eta aurkezleak, beste izkelkien parekoa dala adieraziz, "gipuzkeraz eta bizkaieraz, bietara itz egin bear da" Latiegi'tar Bixente'k esan zuan bezela.

Eta bukatzeko, Berriozabal'dar Erroman'ek esandakoa: "Oker asko egin dira, baiña oker oyek zuzentzen asteko garaian gaudela esango nuke. Bizkaiera prestijíatu ta aurrera ekin bear da".

**Oñatibia'tarManu
1992**

BIZKAIERAREN ETORKIZUNA IRAKASKUNTZAN

Bizkaieraren eskoletako egoerari buruz garbi itz egin eban Laura Uraburu'k Deustuko Unibersidadeko Mai-inguruan.

Eta gaurko akatsak aipatu ondoren, Laura'k onelako laburpena egin eban:

Ezkuntz-sisteman egiten dan Erreforma desafio bat dala alde guztietatik irakasleentzat, batez be izkuntza arloan. Izkuntza eta pen tsamenduaren arteko loturea zein sendoa dan dakigunezkero, jokabide barriak billatu bearrean aurkituko gareala argi dago, emaitz eta lorpen obe eta egokiak nai ba doguz beintzat. Vygotsky, Luria, Bruner eta abarren teoriak gogoan artu eta izkuntzaren irakaskuntza beste modu batera planteatu bearکو dogu. Elburua, eredu batuaren jaube egitea izan go da, baiña ez epe laburrean. Ez dot uste iñok ukatu dauanik orren bear izana, baiña beste kontu bat dira bideak. Gaurregun umeak izkuntza dan dituan aurretiazko ezaguerak ez dira sendotzen. Bestera, bastertu egiten dira eta au ez da jokabide egokia.

Izkuntzaren teorikoek diñoen ildotik, era onetara jokatu bearکو da:

1) Aurretiazko jakintzak abiapuntu izan bear dabe, eurok izango diralako ikaskizunera eltzeko lenengo mailla. Dakianetik abatu, ez dakian era joteko.

2) Ikasketa esanguradunak segurtatu.

Zelan egingo da au?

- Ikasgaia, ikaleak dakianagaz loturik egon bearکو dau. Zegaitik? Konexioa bear dalako. Konexiorik ez ba dago, ez dau bere buruko eskemetan sartuko, eta buruz ikasi eta gero aaztu egingo dau.

- Ikasgaiak bere esperientzi, bizitza eta eguneroko bizitzagaz zer ikusia euki bearکو dau.

- Ikasgaiak funtzionala izan bearکو dau; batez be komunikaziñorako balio bearکو deutso, eta gauza barriak ikasteko.

- Orrez gain, motibaziñoa sortu bearکو da.

Gorago esan danez, desafio bat dogu au, eta auxe da momentua berplanteamentu bat egiteko, gogoeta eta ausartze sakonak egin ondoren

"EUSKAL LITERATURA VI" ETOR LIBURUTIK SANTI ONAINDIA'K BIZKAIERARI BURUZ

Atzen-urteotan suster gabeko istillu geitxo aizatzen gabil tza geure izkuntzaren kalte aunditan. Itzez, idatziz eta azpi-janez ain zuzen ere. Ba al dago eskubiderik ortarako? Guztion izkuntza ez ote dugu Euskera? Zertarako ainbeste eztenkada euskalkiak dirala-ta? Naiz zuberotarrez mintzatu, naiz bizkaieraz ez al da berdin? Gaztelerak naiz prantsesak ez ote daukate gauza edo fenomenu berdiañ?

Euskeraren batasuna burutzeko, bizkaiera omen da koska, korapill orik gordiñena. Ala ere, korapilloak eskatu egiten dira, ez sutara bota. Bizkaiera il bear dala esan omen dute. Nolako txaldankeriak esaten ditugun mingain leunegiz!

Eta "Zer"-en au irakurten dut: "Bizkaiera ez dogu guk asmau. O r dago Errian. Or dago elerti ederrean. Bi milla urte ba-dira, gitxienez, Bizkaian bizkaieraz egiten dogula eta bi milla urte orreitan, inguruko erriakaz izan doguzan artu-emonak gogoratzeko or daukagu artutako ta emondako itzen kondaira jakingarría. Nor da- tor guri ondasun ori ken tzera? NOR DATOR GURE AMARI BIZIA KENTZERA? Betor. Emon bear dautsogun lako erantzuna emongo dautsogu. Eta jakin begie bein betiko iltzaille madarikatuok, gudaldi bat galtzea ez dala gudea galtzea. Eta... zori txarrez... gudea galtzea ba'litzake be, euskaldunok lar ondo dakigu, kon dairea lekuko, gudea galtzen dauan erriak zer egin bear dauan eta zer egin dauan".

Eta bizkaieraz mintzo diranak zenbat ditugun adieraziz onela amaitzen du: "Yrizar'tar Pedro jaunak egin dauan billaketa zeatzean, Euskalerriaren barruan 200.494 euskaldun agertzen dira bizkaieraz berba egiten, Bizkai-barruan 140.229, Gipuzkoa'n 58.402 eta Araba'n 1.863. Eta ez dakigu Euskalerritik kanpoan gure izkuntzaz berba egiten daben 80.000'k zein euskalki darabilen. Kanpo ta barru euskeraz 613.500'ek egiten dabe. Gipuzkeraz guztiz, 200.049. Olan dala, euskaldunik geien ak euskeraz egiten dabenean bizkaíerea darabille" (1982, epallla, 1 orr.).

GURE ATHENAS'EN

1981

A. ZUBIKARAI (1)

Erderaz ba dago esanbide bat: globo sonda.

Guk, arrantzale errietan, amua luzatu, txikota jaurti edo antzerakuak erabilten doguz.

Bizkaieraz berba egiten dogun errietako esnatzeagaz, ba dirudi Irakaskintza saila konturatzen asia dala.

Konturatzen asia dala, baita, jaurlaritzan, agintza aña banakaritza (aministrazioa) dala. Eta banakaritza baten, emontzaile guztiak dirala era batera edo beste; a ondasunen partaide.

Beste eskubide guztiak alboan laga barik.

Ba dirudi Euskadi'ko Athenas'en, Gasteiz'en, bizkaiera beste edozein euskeraren eskubideen duin dala aitortu eta eskatzen dogunon asarreak, benetako asarreak, besterik ezean, kezka batzuk sortzen asi dirala.

Ez dira lau katu, jaurlaritzako inkesta batzuk ezagutzean, bidebakokeri batzukaz laster konturatu eta jaubetu diranak: Labairu Ikastegia, Izkuntz-eskola, Derio'ko irakasle eskola, Euskerazaintza, Eleiz Ikastola Batza, Euskerazaleak... izkuntza kontuan Bizkaian arduratsu igarten diranak, batzarrak egin eta egiteko ditue. Eta katea luzatuko da. Ba dakigu.

Nork pentsatuko eban gure jaurlaritzan batek, "gureak", bizkaierarentzako ain ezaupide gitxi agertu bear ebznik?

Bizkaiera problema dela? Zergaitik? Bizkaia ez al da Euskadi'ko erri? Ala ondasunetarako bakarrik al da?

Eta bizkaiera erabilten dogunok ez al daukagu gure Jaurlaritzan zereginetan eskubiderik? Ez bakarrik d i rutan eta ondasu neta n, bai eta goietan arduradunen eta zuzendarien artean bestien pare egoteko eskubiderik, eta guri dagozkiguzan neurrietan, geurea aztertu, zuzendu eta legezkatzen egoteko eskubiderik? Ala agotak al gara bizkaitarrok edo bizkaiera erabilten dogunok?

Zabala nazala, estu baten irudia emoten nabil.

Anaitasunik onena inor mindu barik zaintzen dala esaten da. Baiña gu mindu egin gara. Origaitik gagoz asarre. Eta asarre gagozan lez, urduri gagoz asarre au indartu eta itsutu barik, baretu eta ondutea naí dogulako.

Zuzena danai eutsiko dautsagu. Bidezko leikenari errie emon. Baiña gure berbetako era, berezko eta legezko eskubide lez aldeztuteko kontzientziko eskabidea dogu. Bizkaia'n euskera indartuko ba da, eta geiago esanda, euskerak Bizkaia'n iraungo ba dau, (mingarri dan arren alaxe esan bear da, Iraungo ba dau"), bizkaierari eutsita izango dala ziurtasun osoa dogulako.

Orretarako nai ta ezko da irakaskintzan bizkaierari aterik luzeena zabaltzea.

(1) TI batua " Bizkai'ko euskera jatorra ilkera datorrela ikustarazi nai dio Zubikarai'k erriari 1981'ko Azillaren 24'eko "Deia"n srgitaratutako idazlan bikain ontan. Iñor gutxi egingo zuan iñoiz bizkaieraren alde Zubikarai'k aña lan ederrik. Bijoia Ondarru'ko idazle dotore bikain onenkat Euzkadi guziko euskaldun guztion esker ona.

Ez dogu ori ukatu leikenik egongo danik.

Euskera bizitik etorriko da euskeraren indartzea, berba egiten dan euskeratik, etxekotik.

Eta lengora jota: Aideko pelotak artu nairik: Nor asi da zabaltzen, Arratía'n, Mungia'n, Durango, Markiñalde eta abaretan bízkaiera erakusten lagako ba da be, Bilbo, Barakaldo ta inguruetan bizkaierarik ez dala erakutsiko?

Bizkaiko errietatik Bilbora joandako gurasoak ez al dira bizkaitarrak, eta bilbotar umeak ez al dira bizkaitarren semeak?

Gasteiz'ko Athenas'en zer dakie ontaz? (2).

(2) Arazo ontan euskaldun guztiontzat auxe da arazorik mingarri ena: gure Jaurlarika, Euzkadi'ko Jaurlaritza, ari zaigula Euskadi'ko Euskerarik bikaiñenetako bat, BIZKAIERA!, erailtzen.

Ikus: Euba'ko Aita Permiñ'ek ogeita bi milloi ta zazpireun milla peztako diru-laguntza eskatu dio Eusko-Jaurlaritzari, Ikastoletarako liburuak Bizkai'ko Euskeraz idazteko. Ogeita bi milloi oiek ez dute Jaurlaritza ikaratu; beste gauza batek kezkatu du gure Jaurlaritza; Bizkaieran ere "el batua"ren ortografia H ta guzti indarrez ba'da ere sarrerazteak kezkatzen du gure Jaurlaritza. Izango duzu gure laguntza —erankun dlo Gazte²'tik AIta Permih'eri—, izango du u gure laguntza baiña Bizkaierazko liburu oiek, H ta guzti, Euskaltzaindiaren "ortografiaz" idazten ba'dituzu. Eusko Jaurlaritzaren erantzun ori, 1981'ko Urrillaren 28'koa da.

ERASKIÑA

Euskerazaintza'ko gaur egungo idazleak.

Bakoitzaren biografiak, liburu bat mereziko luke. Emen tokiari men egiñez aipamen labur bat besterik ezin dezakegu egin.

BIXENTE LATIEGI: (1920) Euskerazaintza' ko sortzaille jakintsu eta langille porrokatu onek, zortzi liburu ditu argitaratuak. Gaia: Elizaren istoria. Orain artekoak auexek dira: "San Inazioaren denborako eliza/ Apostoluen eta martirien denborako eliza/ Gure denbora auetako eliza/ Demokraziaren denborako eliza/ Elizak eta estadiak bat egin zuten denborako eliza/ Denbora berrietako eliza/ Euskal kristautasunaren sorkuntza, eta Euskal kristautasunaren zabalkuntza". Lau milla orrialde guztira, gutxi gora-beera. Bederatzigarrena idazten ari da, aurtun argitaratzeko asmotan: "Euskal kristautasunaren sendokuntza". Azterlan sakona eta zabala. Aldizkari eta egunkarietan, 4.000 idazki gutxi gora-beera. Gipuzkeraz. Apaiza. Eta Gasteiz'ko "Instituto Politécnico Diocesano" izeneko ikastetxearen kondairan: Eragille, zuzendari eta irakasle ainbat urtetan.

IÑAKI ZUBIRI: (1913) Landu dituenak: Edesti laburrak; olerkia, ipuiña, eta eleberria. Izenburu batzuk: "OroitzaW Izadiko pitxiaW Bidetik ametsetan/ Bideko ipuiñak/ Morroia/ Mendekua/ Basamortuko semea/ Txomin". Amaseigarren liburua idazten ari da. Aldizkari eta egunkarietan 800 idazki inguru. Benetan emankorra, eta goi maillako elertia berea. Bizkaieraz.

Ogibidez, ingeniari.

AUGUSTIN ZUBIKARAI: (1914) Euskerazaintza'ko bazkide eta sortzaille den ondarrutar idazle ospetsu onek, 1998ko Andres de Mañarikua" sari garrantzitsua jasoa du, Bizkaia'ko Foru Aldundiak eskaiñita. Argitaratuak 50 liburu: Antzerkia, elertia, saiakerak, istoria, olerkia, ipuigintza eta eleberria. Eta egunkari eta aldizkarietan 5.000 idazkitik gora. Bizkaieraz. Bere bizitza eta lanak luze, zabal eta sakon jakin nai dituenak, jo beza aldizkari onetara: "Revista de cultura e investigación vasca-Sancho el Sabio 1997. Un siglo de literatura vasca" atalera. Gorka Aulestia'k idatzia. Benetan arrigarria eta miresgarria gure Augustin'en jarduna. Ogibidez kontularitzan jarduna.

PAULIN SOLOZABAL (1912) Itz gozoez sorburu. Amabi olerki liburu argitaratu ondoren, itz lauzkoa ari da idazten, au bigarrena du. Izenburu batzuk, olerkiak: "UskeriaW Urre bitsa/ Gizonetan/ Gizadian/ Deika/ Erri amasa/ Eder miñetan/ Aldatz gora/ Malkarretan/ Urrats". Itz lauz: "Itza". Egunkari eta aldizkarietan, 900 idazki inguru. Bizkaieraz. Apaiz edo abade Mungian.

ANES ARRINDA: (1912) Gure idazle emankor eta oparo onek, ainbat liburu argitaratuak ditu. Batzuk aipatzeko: "Euskal aztamak, Cromagnon'etik Erromara". Ori, beste bi liburu auen laburpen gisa: "Los Vascos de la magia al animismo"; eta "Los vascos del animismo a la romanización". 1000 orrialdeetik gora. "Euskalerrria eta arrantzak" Euskalerrria eta eriotza "Euskal Erri zaarreko Jainko txikiak" Euskalerrria Zaarra "Anañen arteko gorroto". 13 liburu guztira.

Aldizkari eta egunkarietan 1.000 idazki inguru. Gipuzkeraz eta bizkaieraz. Deba'n | 950 gn. urteaz gero apaiz, erretore izana, zaarsaritu zen arte. Etnologoa, eta Teologian doktorea.

MARTIN OLAZAR: (1927) Mungia'ko erretorea, urte askotan; eta inguruko beste erri txikietako parrokien arduradun. Orain deIa gutxi jubilatu zen eginbear orretan, baiña Gotzaí jaunak eskatuta lanean jarraitzekotan. Filosofia eta Letretan lizenziatua eta ildo orretatik irakaskintzan jarduna. Euskal abostegiari buruz arterketa sakonak egiñak ditu. Euskerazaintza'ko leendakari; eta "ZER" aldizkariaren zuzendari. Argitaratuak 17 liburu. Aldizkari eta egunkarietan 1.000' tik gora idazki. Bizkaieraz.

JOXEMARI SAN SEBASTIAN - LATXAGA -: (1932) Atsedendía zer den ez dakien gizona. Bere amets ona: Naparroa gero eta euskaldunagoa izatea; eta eginkizun orretan diardu buru-belarri lanean. Bere liburuen artean, argitaratutako batzuk: "Naparroa euskal arrobia-/ Jaka'ra oñez Naparroa'n zear/ "Aralar'ko San Migel/ Errioxa'ko San Millan euskal iturri". Eta gaztelaniaz: La "Representación del tiempo en el verbo vasco". Guztira, 17 liburu. Eta egunkari eta aldizkarietan 1.000'tik gora idazki. El Diario de Navarra'ko- "Nafar-Izkuntza" orriaren arduradun eta idazle. Napar-gipuzkeraz. Amazazpi urte New York'en eman zituen, apaiz lanetan eta irakaskuntzan. Eta asieran aiapatu bezala, Teologian, Antropologian eta Izkuntzalaritzan, Doktoregoa dauka.

Berrogei urte luze aien gau illunean, argi. Bere oizko eginkizunaren atsedendieí kenduz, eten gabe lan eta lan euskeraren alde jardunak dira orrelaxe, Euskerazaintza'ko idazle jator auek. Etekiñik ez dute jaso. Patrika ustu bai, liburuak argitaratzeko; eta doiñik banatu.

Eta LIZARDI aundiarena, ikur gisa, beti gogoan:

Baiñan nik, izkuntza larrekoa,
nai aunat ere noranaikoa:
yakite-egoek igoa;
soña zar, berri gogoa;
azal orizta, muin betirakoa.

Jm. M.

Allegretto



Za toz ki da - Goi-Ar nas — e - i -



- zu - ne - re - kin lan e - ri ba-ten ar-




- na-sa ma-mi-tu de-za - dan Ge-ro-ak



e-san be-za e-ri bat i-zan zan e-dota



ats e-ma - io-gun on-tan i-raun de - zan.



EUSKERA

Euskaldunen mintzaira
millak urteak zear
gureak sorrua,
sortzez ez ezaguna
euskaldun en artean
endaz in dartsua.

Zu **ta** zuro semeak
ain tzagarri zerate
gizonen aurrean.
Garbi ta **aberats** zera
mundu guztian zear
izkuntzon artean.

Euskera bizi bedi
ta euskaldunak ekin
euskeraz mintzaten.
Gure oiñarri nausia,
zu, **betiko** izanik
erria azkatzen.

Paulin

